

1. *Euskal Herriko udalen izendegia*
Euskaltzaindia, 2011
2. *Leioako leku-izenak*
Euskaltzaindia, 2011
3. *Aiarako toponimia nagusia*
Euskaltzaindia, 2013
4. *Euskal Herriko ibaiak*
Euskaltzaindia, 2014
5. *Araba / Álava. Los nombres de nuestros pueblos*
Patxi Salaberri Zaratiegi, 2015
6. *Sestaoko toponimia*
Jorge Luis Tejedor, 2016

La labor de Onomástica de Euskaltzaindia tiene como finalidad el estudio de los nombres, tanto antropónimos (nombres de pila, apellidos...) como topónimos (mayores, menores, exónimos, callejeros, oicónimos...). Tras recoger, clasificar, analizar y establecer la forma normativizada de los nombres, Euskaltzaindia considera imprescindible darlos a conocer, a fin de que las formas correctas vayan implantándose en el uso habitual, al igual que ocurre en toda lengua normalizada. Ese es el objetivo de la presente colección *IZENAK*.

Le travail d'Onomastique d'Euskaltzaindia a pour but l'étude des noms, aussi bien des anthroponymes (prénoms, noms de famille...) que des toponymes (principaux, secondaires, exonymes, noms de rue, noms de maison...). Après les avoir répertoriés, classés, analysés et établis selon les normes, Euskaltzaindia considère indispensable de les faire connaître, afin de favoriser l'emploi habituel des formes correctes, comme c'est le cas de toutes les langues normalisées. Voilà l'objectif de cette collection *IZENAK*.

The main aim of Euskaltzaindia's Onomastic work is the research of basque names that are classified in proper nouns (names of persons, surnames...) and place names (main and minor toponyms, exonyms, street names, house names...). After collecting, classifying, analyzing and deciding the standardized form of those names, Euskaltzaindia considers it is a must to announce them, so that the correct forms are adopted in the every-day use as it happens with any standardized language. That is the purpose of this *IZENAK* collection.



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



9 788494 451270



JORGE LUIS TEJEDOR

SESTAOKO TOPONIMIA TOPONIMIA DE SESTAO



Euskaltzaindiaren Onomastika lanak euskal izenen ikerketa du helburu, bai antroponimoena (ponte izenak, deiturak...) bai toponimoena (toponimia nagusia, txikia, exonimia, kale izendegiak, etxe izenak...). Izen horiek bildu, sailkatu, ikertu eta arautu ondotik, beharrezkotzat jotzen du Euskaltzaindiak izenen forma zuzenak plazaratzea, euskararen erabileran eta normalizazioan eragina izan dezaten. Hori da, hain zuzen ere, IZENAK bilduma honen xedea.

ONOMASTIKA BATZORDEA:

BURUA:

Patxi Salaberri

IDAZKARIA:

Mikel Gorrotxategi

KIDEAK:

Nerea Alaba
Asier Bidart
Isabelle Duguine
Patxi Galé
Imanol Goikoetxea
Roberto González de Viñaspre
Elena Martínez de Madina
Alfontso Muxika
Felix Mugurutza
Paskual Rekalde
Luis Mari Zaldúa





SESTAOKO TOPONIMIA

TOPONIMIA DE SESTAO



Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteko katalogoan: www.euskaltzaindia.eus/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca: www.euskaltzaindia.eus/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque: www.euskaltzaindia.eus/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language: www.euskaltzaindia.eus/azkue

Euskarazko testuaren hizkuntza-orraketa: Euskaltzaindiaren hizkuntza kalitatearen zerbitzua (HIZBEA)

© Jorge Luis Tejedor

© Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca / A.L.B.

Plaza Barria, 15

48005 BILBAO

Tel. 94 - 415 81 55

Fax: 94 - 415 81 44

E-mail: info@euskaltzaindia.eus

Webgunea: <http://www.euskaltzaindia.eus>

Eskubide guztiak jabetunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiazea, ez sistema infomatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Azaleko irudia: Agustín Díaz Guinea

Diseinua / Diseño: Ikeder, S.L.

Maketazioa / Maquetación: Composiciones RALI, S.A.

Inprimategia / Impresión: RGM, S.A.

ISBN: 978-84-944512-7-0

Legezko-gordailua: BI-1606-2016

ESKER ONA

Nire esker onik beroena lagun hauentzat:

Agueda Laraudogoitia Jauregi.

Luis Alonso Pascual.

Koldo Azkona Zubimendi.

Barranco de Azeta-ri buruzko informazioa eman zidan Txomin Hermosilla Portugaletekoa.

Callejón de la Bomba-ri buruzko informazioa eman zidaten

Joseba Urbieto, Iñaki Ruiz Odriozola eta Fernando Otxandiano Larrinaga sestaoarrak.

Blanqui Cubert sestoaarra, *Casa Labarga*-ri buruzko informazioa eman zidana.

Eskerrik asko denoi.



Aurkibide nagusia

Índice principal

| | |
|---|-----|
| Sarrera / Introducción | 9 |
| Sestao udalerría / Sestao municipio | 27 |
| Sestao izenaz / Sestao nombre. | 39 |
| Sestaoko toponimioak / Topónimos de Sestao | 45 |
| Eranskina / Apéndice | 285 |
| Bibliografía / Bibliografía | 321 |
| Dokumentu iturriak / Fuentes documentales | 327 |
| Toponimoen aurkibidea / Índice de topónimos. | 329 |



Sarrera

*“Hitzak egiten gaitu,
eta aldi berean geuk sortzen dugu hitza”*
Andoni Egaña

Onomastika dugu izen bereziak edo propioak katalogatu eta aztertzen dituen zientzia, lexikografiaren adarra dena. Halaber, herrialde edo leku bateko izen propioen multzoa ere bada. Nolabait, gure inguruko orori izena emateko tenorearen ondorengo mugan kokatzen da onomastika, eta talaia horretatik bi bide ditu jorratzeko.

“Hitzak egiten gaitu...”

Alde batetik, historian zehar atzera eginez, ez dugu inola ere jakiterik izango zergatik ezaugarri batzuk gehiago nabarmendu ziren beste batzuk baino, leku, etxe, bide, iturri edo dena delakoa izendatzerakoan. Halere, errealitatea hitzez adierazteak alde deskriptiboa garatzen du nahitaez, eta honek historiografiaren atea zabaltzen du. Liburu honetako erregistroek erakusten duten legez, *Aizpuru* (euskaratik, (h)aitz *harri handi* eta (b)uru *zerbaiten muturra, aurrekoa, edo goikoa denean*) eta *Simondrogas* hitzek (Simon Gardiazabal Andetxaga elorriarrak drogeria-negozioa ipini zuen lekuak geroago *Simondrogas* izena hartu zuen) kasurako, hainbat aspekturen deskribapena agertzen dute, eta ingurune fisikoaz gain, garaiz garaiko gizartearen berri ere ematen dute.

... aldi berean geuk sortzen dugu hitza”.

Beste aldetik, izena emanda dagoen puntutik historian barrena aurrera joaz, etimologiaz baliatzen da onomastika hitzen jatorriaz eta jasandako eboluzioaz arduratzeko. Izan ere, hitz baten jatorria (*etymo*) argitu ahal izateko, sorburuko esanahia, egitura eta eboluzioa aztertu beharra dago. Beste era batera esanda, etimologia hizkuntzaren arkeologia da, hitzen sustraiak eta haien osagaiak ikertzen dituen, urteen (edo mendeen) terminoaren aldaerei arreta jarritz. Eta denboraren poderioz hiztunak soilik, hitza ezpainetan darabilela, alda dezake, hiztuna baita sortzen duena.

Hutsalkeria lirudike irakurleak esku artean daukan *Sestaoko Toponimia* hau hitzez beteriko liburua dela esateak. Hitzek baina, erregistro bakoitzean azaltzen duten adieraz gainera, alfonbraren azpialdeko korapiloek bezala lotune-lana ere egiten dute. Eta hala, hitz baten hariari segika beste batzuk suertatuko zaizkigu, harik eta, alfonbrari buelta emanda, azpialdeko lotuneek osatzen duten paisaia ageriko izan arte. Historiografiak ikertu eta interpretatuko du ondoren paisaia horren denborazko eboluzioa.

Ikerlan honetako erregistrorik antzinakoena Sestao hitzari dagokio, 1322ko Portugalete Hiribildua fundatzeko Pribilegio izeneko eskuizkribuan *Santa María de*

Sesto agertzen delarik. Deigarria da oso terminoa ikertu dutenen zerrenda, Julio Caro Barojak, L. Mitxelenak, M^a L. Guazak, R. M^a Azkuek, Alfonso Irigoyenek eta Iñigo Rementeriak, besteak beste. Hagitz adierazgarria da euskarak izan duen garrantzia hitzaren osieran, XIX. mendearen erdialdera arte euskaraz egiten zuten sestaoarrek.

Sestao izena Euskal Herrian arras ugariak diren *-ao* atzizkiaz bukatutako toponimoen multzokoa da, Galdakao eta Lazkao bezala. Gaztelar erromantzearen esateko moduan *Galdácano* eta *Lazcano* ditugu, baina ez da inon kausitu **Sestano* hitza. Hortaz euskarazko bertsioa hautatu zuten hiztunek herriari izena emateko. Izena eta izana. Gainera, *Bilbao* / *Bilbo*, *Ubaio* / *Ubo* toponimoetan legez, *Sestao* / *Sesto* forma bikoitza jasota gelditu da zenbait agiritan.

Gure herriaren historiaz aditzera emandako obra landuak zein onomastika honetako erregistroek deskribatzen duten garaiz garaiko testuingurua aintzat hartuta ere, gaitza da XIV. mendeko *Sestao* hura irudikatzen. Ibaizabalen bokalea eta barra taxuz antolatzeke helburuz Pedro Moreau ingeniariak marrazturiko planoak irudipen esanguratsua dakarkigu, 1731. urtekoa bada ere. XIV. eta XV. mendeetako Sestao ingurune fisiko bortitz batek meneratzen zuen. Galindo eta Ibaizabal ibaiek gogorki estutzen zuten kontzejuko triangularen goiko erpina, non eta *San Nikolas Punta* hareatza eta ihitzen bitartez lehorrari lotuta azaleratzen zen aldizka, edo urez inguratutako uharte legez marearen arabera. Horra hor *La Isla*, 1743. urteko aipua. Hondartzek *La Punta*-tik egungo *Benedikta* dartsenarainoko eremua estaltzen zuten elkarren segidan. *Galindo*-ko ur-bazterrak ihitzez josita zeuden *Ugarte*-ko portuetaraino. Irlatik ipar-mendebalderantz, oihan ilun eta zarratuaz osatutako muinoak gora egiten zuen aldapatsu, harkaitzak nahinon, bidezidor eta orgabideek nekez zeharkatzen zuten esparru malkartsua *Portopin* eta *Rebonza* aldera zabalduz.

Serrevoñça aipua Lope García de Salazarren *Bien Andanzas e Fortunas* obratik jasoa da, 1400. urtearen inguruan: “*En esta sason qemo Ochoa de Salazar una nao que estaba en Serrevoñça amarrada, e sola de noche.*”

Serrevoñça hau, *Sorrebonza* edo *Rebonza* pean ulertu behar dugu. Beraz, ohikoa omen zen garai hartan bai Galindo ibaian, bai *San Nikolas* irlaren ondoan Ibaizabal-go uretan, ontziak porturatzea. Itsasontzi bat nahita erretzearen berri dakarren erregistro honi segida ematen dio alfonbrapeko beste korapilo batek, hain zuzen ere 1419. urtekoa dugun aipuak (*El Arenal de Sesto*). Ekintza are bortitzago baten kronika da: “*...e por esta causa mataron este Ferrando de la Sierra e Ferrando de Yrauregui, su cuñado (...) en el Arenal de Sesto a Juan Peres e a Juan de Nesperuça*”.

Garai ilunak izan omen ziren XIV. eta XV. mendeen artekoak, erregistroek azaldutakoari erreparatuta. *Portopin* izenari lotutako sarrera honek (1769) “*Ciento y cinco reales que costo la poda de los arboles de este monte (Portopin) y nogales*”; “*... los ladrones que se decia estaban ocultos en el monte de Portopin*” erakusten du herriko alde honek basoz beterik iraun zuela mendeetan zehar.

Portopin-dik haruntzagoko muinoa, *Piedra Panadera* bizkargunea gainditu eta gero, mantsoki jaisten zen *Ondezaga* eta *Aizpuru* aldeetaraino. Gaurko *Kaskoa*-n *La Atalaya* izeneko gunea zegoen (*La Talaia*, 1636ko aipamena), eta gaztelaniazko zein euskarazko adierari (*Talaia*, *ingurune zabalak begiztatzeko toki garaia*) jaramon eginez gero, pentoka txikia bazela ondoriozta dezakegu. Bertan, *Mendebarr* izeneko lekuan, *San Pedro Ermita* kokatzen zen. XIV. mendearen bukaerako ermita hau 1906. urtera arte mantendu zen zutik. Handik hurbil gure herrian izan den arkitektura militar oparoaren lanik garrantzitsuena zegoen: *Sestao*-ko *Dorretxea*. Juan López de Salazarrek altzarazi zuen bandoen gerra garaietan, 1380. urte inguruan, eta haren hasierako forma eginkizun militarren menpe zegoen. Mendek pasa ahala sorburuko egiturari erantsitako elementuek, arte gotikokoek batez ere, Bizkaiko dorrerik ederrenetarikoa bihurtu zuten. Ordurako *Deikunde Andra Maria Eliza*-k kontzejua begiesten zuen *Aizpuru* mendixkaren gainetik. 800. urte aldera eraikia, gaur egun kanpai-horma, eliz ataria eta arte erromanikoaren beste aztarna batzuk baino ez dituen, ondorenean gure herrian altxatu eta mendeen joan-etorrian galtutako eraikin erlijioso frankoren aitzindaria dugu. XV. mendearen hasierakoa da *San Nikolas Ermita* (*La Ermita de San Nicolás*, 1695eko aipua), esate baterako, *La Punta* lurmuturrean eregia Ibaizabal-i eta Galindo-ri so.

Ondezaga, Aizpuru eta Okillo ziren mende honetan Sestao-ko hiru alde nagusiak, eta herriaren espazio fisikoa egituratzen zuten. Hiru barruti edo ereintza-leku hauek (*mies/mier* gaztelaniaz), mugari askotan hesituak, bata bestearen arrimuan hedatzen ziren. Ondezaga-k, ipar-mendebaldera lerraturiko eremu zabalak, gaurko Las Camporras parke osoa hartzen zuen, baita handik Galindo ibaiaren ur-bazterretako lurzatie ere. *Okillo*, egun ezagutzen dugun Okillo baino askoz zabalagoa, *Ibaizabal*-en paraleloan zabaltzen zen mendia beste alderantz. San Nikolas-etik Benedikta dartsenako hondartzetara iristen zen eta, nonbait han, gaurko La Iberia kalearen parean, *Aizpuru* aldearekin muga egiten zuen. Molde zaharrenean *Aspuru* eta *Axpuru* izeneko mugarte Portugalde-ko hiribilduak zedarritzen zuen mendebaldetik. Hitzaren esanahiak eta jasotako aipu andanak mendialde harkaiztsua zela adierazten dute, herriko goiko aldearen zati handizarra okupatzen zuena, kasurako egungo udaletxearen atzeko mendixka osoa, *Bide Txikito* izenekoaren bidearen inguruneak, etab.

Alfonbraren azpialdeko beste lotune batek mende honen amaierako Sestao-ko paisaia hornitzen du. Orduko *Salcedillo* Sestao-koa zen, eta ondorenean ere, Hiru Kontzejuko partzuergoa desegindakoan, dekumaren kobrantza tarteko, Andra Mari eliza sestaoarraren agintepean geratu zen. *Salcedillo* toponimoaren adierari jarraikiz, sahasiek janzten omen zuten ibaialde hura, non eta *Campillo de Galindo* izeneko parajea *Pietateko Andra Maria Baseliza* eraiki zuten 1492an (*Nuestra Señora de la Piedad* aipua, 1721eko). Ez da gaur egun aztarnarik gelditzen.

XVI. mendearen abiaburuan ematen diren zenbait erregistro, kontzejua egituraketa burutzerata datozela esan liteke. Barruti handien izenez aparte (ikus 1577ko

Axpuru eta *Ondexar* sarrerak esaterako), zonalde txikiagoen toponimoak dira maizenik agertzen direnak, hala nola, *Mendieta* (gaurko hilerriaren inguruko eremua), *Ballonti* (oso toponimo zaharra, ibai, mahasti, lursail eta baratze legez jaso da), *Aranaga* (*Ondezaga*-ren barruko bailara ttipia), *Azeta* (dermioaren azpisarrera askoren artean, auzo, putzu eta fielatoa ditugu), *Galindo*, *Riba* (*Repelega* eta *Sestao* arteko gunea) eta *Dovalio*, Portugalete-tik gertu.

Bandoen guda aroa bukatuta, Jaun Feudalek nahiz Ahaide Nagusiek izandako botere maila ahulduz joan zen heinean, merkatarien, militarren, nabigatzaileen, enplegatu publikoen eta abarren jarduerak hartu zuen gizartearen gidaritzan. Mende honetako lehenengo laurdenetik aurrera gizarte maila berriek, giza-egituraren aldaketaren kariatz aberasturik, euren errenten iturri ziren tituluak, etxeak, produkzio bideak (burdinola, errota, edota nekazaritza jabetzak) legezkatzen zituzten maiorazko figurapean. Izan ere, maiorazkoen legezko prebendak indarrean egon ziren Madrilgo Gorteen XIX. mendean haien izaera juridikoa ezabatu zuten arte. Maiorazkoa berriaz fundatzeko aukera zegoen formula oso erraz baten bitartez, eta hala antzinako jaun gerlariak nola burges iritsi berriek dorretxeak jasotzeari ekin zioten, beren giza eskalaren ordezkagarri, maiorazkoen ikur bilakatu zirenak. Etxebizitza berriak gerrarako dorreen ezaugarriak mantendu zituen, hauen akats asko baztertu eta beharizan berriak betetzeko beste forma batzuk gehitu bazituen ere. Sestao-n hiru maiorazko ezarri ziren garai hartan, *Rebonza*-koa mendearen hasieran, *Salazar-Galindo*-koa 1543an eta *Ugarte*-koa 1577an.

Diego de Rebonzak maiorazkoa eratu zuen izen bereko lekuan, eta dorretxea eta errota (1632. urtekoak dira bi aipu hauek) zeuzkan bertan, baita lursail (1637ko sarrera) eta mahastien jabetzak ere, *Albiz*, *Las Returas*, *Mendieta* eta *Aranaga* lekuetan. *Salazar-Galindo*-ko maiorazkoa Pedro de Salazarrek eta Elvira Diez de Uribarririk sortu zuten, eta Trapagaran-ekiko mugakide den ibaialdean dorrea (1634ko sarrera), errota (1632koa), burdinola (1662koa) eta oinetxea kokatzen ziren. Guneari heldutako sarrera ugariak gure herriaren historian zonalde honek izan duen inportantziaren testigantza adierazten dute.

Ugarte maiorazkoa, azkenik, Juan de Ugarte eta Teresa Gómez de Martiartu y Butrón Portugalete-ko bizilagunek ezarri zuten, eta *Mendieta* tontorrean dorretxea eregi. 1577ko sarrera honek adierazten duenaren aburuz, dorre motako beste eraikin baten jabetza ere bazeukan maiorazkoak: “*Ademas de la dicha casa torre principal tenemos en el lugar de Sesto (...) que es en el camino de Portugalete a Sesto, una torrezeta pequeña.*”

Hainbat eta hainbat lursail, mahasti, baso eta baratze zeuzkan maiorazko honek *Axpuru*, *Escandal*, *La Ribera*, *La Peña*, *Dovalio* eta *Ondezaga*.

Data zehatzik ez da agertzen *Sestao*-n zein Portugalete-n kokaturik omen zegoen *Pedriza*-ko maiorazkoaren sorburuari buruz. Halarik ere, dorretxearen berri (*La Casa y Torre de la Pedriza*) ematen digute, eta ondorioztatzerik daukagunez, XVI. mendean izandako jabego hauen loraldiari atxiki behar zaio.

Garai honetan jazotako nolabaiteko oparoaldi ekonomikoaren adierazle ditugu Galindo, *Causo* eta Ugarte-ko portuei buruzko hainbat sarrera. Mugarte berean eta Galindo ibaian gora, hiru portualde eratu ziren merkataritzaren susperraldiaren mesederako. Victor Arroyo historialari sestaoarrak Hiru Kontzejuko partzuergoaren jurisdikzioko kargalekutzat hartzen ditu. Javier de Ybarrak Erdi Aroan kokatzen du Galindo-ko kaiaren sorrera, Aiarako Jauntxoek fundaturik. *El Puerto de Galindo* erregistroa 1582. urtean dataturik dago. Ugarte-ko portuari dagokionean, M. Ciriquiainek, bere *Puertos Marítimos Vascongados* obran, Nafarroa Erresumako Gartzia III.a erregearen eskrituretan (1040. urte aldera) aurkitzen du merkataritzarako gune honen lekukotasuna: “*Hubo otro puerto, además del de Portugalete, el de Uhart, en el concejo de San Salvador del Valle. Este Uhart o Ugarte, que dió nombre a la vega, ya aparece citado en escrituras de 1040. Por el río Galindo le subía abundante agua de las mareas y allí se cargaba, al abrigo de los piratas, el mineral de las veneras de Triano*”.

Lehorreratzeko moilak baziren *San Nikolas* irla parean ere, Ibaizabalgo urbazterretan. Kai-egitura honi buruzko XVIII. mendeko azpisarrera honek (*El ancladero de San Nicolás*) adierazten duenez: “...*“tres mil seiscientos y sesenta y ocho quintales de vena, (...) que la condujera desde los puertos de Galindo, Causo y Ugarte al ancladero de San Nicolas*”.

Edonola ere, iraganeko bidexka, gurpide eta landabideek segitzen zuten, orduan ere, XVII.eko Sestao horretan. Lursail franko eta zuhaitzi askoren toponimoek nekazaritza bere aktibitate ekonomikoaren oinarri zeukan herri xume baten irudia dakarkigute. *Igueral* (1669ko aipua), *El Argomal* (*Okillo* barrutian, hondartzaraino zabaltzen zen), *El Argomal de Cavadura* 1645eko sarrera honek jabetza auzi bat agerrarazten du), *Gorostiaga* (1642koa), *La Campa* (1658), *La Sierra* (gaurko Cueto-tik Galindo-rantz luzatzen zen zonaldea), *El Excasal* (sasitza, 1660koa), *El Manzanal* (1636), *La Casa del Encinal* (1642) eta *Heredad El Castaño* (1696) bezalako izenak horren adibide ditugu. Galindo, Causo eta Ugarte-ko portuen artean kokaturik zegoen ihitza handitzarraz jakinarazten duen *La Junquera de Allende* erregistroan, estreinako sarreratik azkenerako denbora-arkuak (1668–1920), mendeetan barrena mantendu zela adierazten du. Sestaoko aberastasun natural honen presentzia oso nabarmenez ondorengo mendean jasotako *El Majuelo* (1773) aipua ohartarazten digu: “*Yo Manuel de Villar (...) doy fe de como abiendo pasado en compañía de Domingo de Sarria regidor actual de este Conzejo de Santa Maria de Sestao (...) al puesto y paraje del majuelo que se alla arriba de la fuente, he visto que se hallan plantados dos mil y zien arboles robles*”; “*Cargo (...) Veinte reales que costo el recavar el majuelo de arboles para ir trasplantando de los que se sacan para ir al Arbolar de Portopin*”.

Barneko zonalde izenen zerrenda luzea ikusita, nekazari giroko gizarteetan ematen den espazio fisikoaren antolaketa zehatza agerian gelditzen dela esan genezake. Baditugu *El Queto* (leku garai eta defendatua), *Arbinaga* (*Rebonza* eta *San Nikolas* arteko eremua izendatzen zuena), *San Pedro* (sarrera honi azpisarrera asko eta *La Plaza de San*

Pedro eta *La Ermita de San Pedro* erregistroak gehitu behar zaizkio), *Albiz*, *Urtetegi* (urez nara den lekua), *Elguero* (*filicaria* berba latindarretik eratorria, iralekua), *Urtubeko* (*Piedra Panadera*-ren inguruko aldea), *Labariega* (*Rebonza*-tik egungo *Txabarri*-rantz hedatzen zen, *La Barięga* kalea gelditu zaigu zonalde honen testigu), *Las Llanas* (mahastileku bezala 1642an), *Iturburu* (*Repelega* aldean kokatuta, bertako urgunearen izena hartu zuen), *Jauregi* (*Salcedillo* inguruko aldea), *Yartu* (*Azeta* eremuko lekua), *Arana* (*Ondezaga* eta *Abatxolo* arteko parajea), *Las Sernas*, *Borreaga* (Galindoko erroten aldera zegoen), *Etxebarriaga* (Galindo-ko aldaparen aldamenean), *El Callejo* (ibarbide, sakonune edota sakana ere izendatzen duen hitza), *El Valladar* (El Sol kalearen gainean omen zegoen lubeta), *La Alta de Arriba* (1667ko aipua), *El Pedazo* (egunean Escribano etxea dagoen lekua), eta *El Alerón* (lurzoruaren irtengunea).

Leku izenen euskara/gaztelania elebitasunari dagokionez, toponimoen itzulpena, izen generikoen ordezkapena eta gaztelaniara egokitutako grafiak bezalako fenomenoak, bi hizkuntzak elkar ukitzen zeudela adierazten dute. Honi lotuta, sustrai euskaldunik ez duten toponimoek Enkarterriko beren-beregiko gaztelania dutela ardatz argudiatzen du, eta ugariak dira honen adibideak: *La Serna*, *El Majuelo*, eta abar.

XVIII. mendearen hasieraren bueltan, kontzejuaren historian hain lorratz sakona utzi zuen gertaera dugu hainbat erregistroren sorburu, alegia, *Convento y Santo Desierto de Carmelitas Descalzos de San Josef de la Isla*-ren fundazioa *San Nikolas* eremuan. Izan ere, alfonbraren metaforaren barnean azpiko lotune sarea eratzen dute kilometro bat luze eta lauhun metro zabal den penintsula honi atxikitako sarrerek eta azpisarrerek. Erregistro nagusi asko izan dira jasoak, besteak beste, *San Nicolás*, *La Punta de San Nicolás*, *La Isla*, *La Ermita de San Nicolás*, *La Abacería*, *La Alhóndiga*, *Aranotegui*, *El Desierto*, *El Convento-Desierto*, *El Puente del Desierto*, *La Casa Principal*, *El Carmen*, *La Ermita del Carmen* eta *San Francisco del Desierto*. Honako zerrendan agerikoa den bezala, mugartearen izen generikoak bere ordezkapena pairatu zuen, eta jatorrizko *San Nikolas* terminotik hasita, *Desierto* izendatzera iragan zen karmeldar oinutsek mende batez izan zuten influentzia zela medio. *Desierto*-k, Erljio Ordena honen komentuek izendatzeko eleak, bakarlekua adierazten du, karmeldarrek, otoiitz, bijilia eta mortifikazioaren bideak errazteko helburuz, komentu ugari eraiki baitzituzten Etxe Printzipaletik aparte, beharrezko urruntasunaren bila. Teófilo Guiardek *Escudo y Toponimia de Bilbao* obran eraikin erlijioso hauen funtzioa deskribatzen du: “*los religiosos que asistían a dichos desiertos tenían continuas oraciones, perpetuas vigalias é incesantes mortificaciones de sus cuerpos*”.

Hortaz, toponimiaren ikuspegitik oso aipagarria da fenomeno hau, hots, mota honetako komentuek propio duten izaeraren alde batek multzo osoari nola izena ematen dien, lekuaren berariazko toponimoa baztertuz. Teófilo Guiardek berriro ere: “*A raíz de la fundación del instituto carmelita comenzó a denominarse al lugar Santo Desierto de San Nicolás de Ugarte o, también, Desierto del convento de San José y, finalmente, Desierto,*

salvo para los marinos extranjeros, especialmente los ingleses, quienes le nombraban San Nicolás, conservando con más acierto la tradición”.

Ibaizabal-go ezkeraldearen bilakaera historikoan nekez aurki daiteke hain eragin nabarmena izan duen instituziorik, bai plano espiritualaren harira, bai eta ekonomiaren ikuspuntutik ere. Hainbestekoa izan zen eragina, ezen *Desierto* izenak Galindo eta Ibaizabal ibaietako muga naturalak igaro zituen *Desierto-Barakaldo* eta *Desierto-Erandio* sortuz. Eta zela ohitura hutsez, zela nabigazio kartetan halaxe adierazita zeukatelako, itsasgizon ingelesen gehienbat eutsi zioten tradizioari, eta *San Nicolás*-eko ainguralekuetan segitu zuten ontziak porturatzen.

Eleuterio Gago sestaoar historialariak antzinako *La Isla de San Nicolás* gaur egunean *Campa del Carmen* edo *San Francisco* izenaz ezagutzen dela apuntatzen du, *La Punta*-n izan zen *Karmengo Ermita*-ren kariaz, edota komentu-etxea desagertutakoan *Mudela*-ko markesak jasoarazi zuen *San Francisco Fabrika* dela kausa, hurrenez hurren. Horra, *Campa del Carmen* (1920) eta *San Francisco* (1883) aipuak.

XIX. mendearen atarikoan *San Josef de la Isla* komentuaren gainbeherak, peste izurriteak eta frantziar tropen inbasioak eragin zuten bereziki. Azkenik Mendizabalen Desamortizazio Legeak leku idiliko hura behin betiko abandonatzera behartu zituen karmeldarrak 1837an. Haien itzalak, baina, haratago joko zuen, sortzear zegoen industrializazio prozesuaren oinarri fisikoa atonduta utzi baitzuten. Fraideek maretatik defendatu eta nekazaritzarako zanpatu zuten lur-eremua ezin egokiagoa zen industriaren ezarpenerako, zein bi ibaien arteko kokapenaren aldetik, zein lurzuoren lautusunagatik. Aipatu *San Francisco Fabrika*, *La Vizcaya* (1887ko sarrera), *Astilleros del Nervión* (1889koa) eta abar *Desertu* hartan ezarri ziren, gure herriari eraldaketa sakona ekarriko zion aroari hasiera emanez.

Alfonbrapeko beste korapilo batek, horratio, industrializazioaren aurreko *Sestao* nekazari eta basodun hura gogorarazten du, hain zuzen ere, *El Fortín* erregistroak. *Sestao, de aldea rural a concejo industrial* liburuan E. Gagok Mendieta-ko gailurrean kokatzen du gotorlekua eta 1793. urtearen inguruan datatzen du haren eraikitzea. Ibaizabalgo zati handia, Sestaoko parte osoa, meneratzen omen zuen eta Karlistaldien kroniketan jasotzen denez, bertatik etsaien posizioak ahultzeko kanoi-leku moduan erabili zuten.

Antigoaleko Sestao, Erdi Aroaren iluntasunetik makinismoaren etorrera bitartean iraun zuena, liburu honetako erregistroen arrastoan azaleratzen da aldez edo moldez. Proiekzio honen narrazioan erabilitako historialarien aipamenak, hizkuntzalarien argudio filologikoak eta erreferentzia historiko gehienak ikerlan honetako parte dira, erregistro bakoitzeko azterketa etimologikoaz gainera erantsi baititu autoreak lan-metodologia zehatz bati jarraikiz. Funtsean, izen propioen katalogazio eta ezagumen zientzia dugun onomastikak testuinguru historikoa eta metalinguistikoa beharrezko ditu ikergaien osaera eta bilakaera gauzatzeko. Hortaz, erregistrook proiekzio historikoa

eta etimologikoa eskaintzen dituzte, irakurketarako bide anitz zabalduaz. Alfonbraren metafora lagungarri suertatzen da bide aniztasuna agertzeko, eta logikaz, Sestao zaharraren irakurketa alfonbrapeko lotunek dagitzaten proiektzio askotariko bat baino ez da, goialdean ikusterik izan duguna.

Fabrikak marrumaka etenik gabe, ontziolak ahaleginean ur-bazterretan, trenbide eta errepedeak, garraio sarea, *La Gran Vía de la Vizcaya* kalea (1889ko aipua), migrazio masiboak, hiri-garapen kaotikoa... Industrializazio prozesuak ekarritako eraldaketaren testigantza ere badugu hainbat eta hainbat sarreratan.

Atzeko sasoiatar bueltan, kontzejuan izandako sortetxeek XVII. mendetik XIX. era bitarteko denbora arkuaz trazatzen dute. *Alisal* eta *Larretategui* (1696ko aipamenak), *Mendoza* (1793) eta *Mello* (XVIII.ekoa ere), eta *Palacio* (1864) leinuetako etxetzarren izenak eta deituren sorburuak aztertzen dira erregistrotan.

Irakurketa aniztasun honek azken gogoetarako lerro bikoitza planteatzen du. Lehenbizian, ikerlan honen oparotasunaz ohartarazten du. Erregistro bakoitzaren azterketak testuinguru historikoa eta metalinguistikoa gorpuzten ditu eta, horrenbestez, ezagumen bide anitz libratzen ditu, nahi beste proiektzio ahalbidetuz. Sestao herri zahar berri honen bilakaera historikoaren ezagutzarako, etimologia zientziaren eremutik, oso ekarpen preziatua egiten du. Gainera, ezin da saihestu, onomastika lana den aldetik, herrialde honetako izen propioen katalogoa izatearen balioa, bai filologikoa, bai historikoa.

Bigarrenengan, hainbat planotan garatu daitezkeen irakurketa bideek hautaketarako joera gailentzen dute. Eta hautaketa ez da inozentea. Hitzaurre honetara ekarritako antigoaleko Sestao-ren proiektzioak zenbait egitate laga ditu agerian. E. Gago historialariak izendatutako *aldea rural* hura, gure herriaren historiaren aldirik luzeena osatu arren, XIX. mendean hasitako eraldatze prozesuen kariatz ia osorik ezabatuta iritsi da XXI. mende honetara. Ondasun arkitektoniko eta naturalaren galerak iraganeko jokamoldeen berraztertze kritikoa egitera behartzen du, eta erronka bikoitza agerrarazten du: Sestao-ko historiaren hutsarteak bete asmoz ikerketarako ekimenak aisatzeko lana eta, ingurunearen edonolako transformazioaren gaineratik, naturazko baliabide eta elementu historikoen kontserbazioaren aldeko pentsamoldea faboratu beharra.

Luis Alonso Pascual

Introducción

*“Traté también de hacerle comprender el nombre que le había puesto,
que era el de Viernes,
por ser este el día de la semana en que le salvé la vida.”*
Daniel Defoe (Robinson Crusoe, 1719)

Poner nombre no es un acto simple. Nombrar es construir. Es establecer una realidad, proceder a su definición y objetivación. Incluso algunos autores afirman que la realidad es en la medida en la que puede ser nombrada. Lo que no se nombra no existe. La Onomástica es la rama de la Lexicografía que estudia y cataloga los nombres propios. Además, por onomástica se entiende el conjunto de nombres propios de un lugar. De algún modo, la ciencia onomástica se sitúa en la frontera posterior al hecho de nombrar, y desde ese punto concierne a la etimología para indagar en el significado de las palabras.

Este libro, *Toponimia de Sestao*, es, por lo tanto, un libro de palabras, de nombres. No es posible averiguar por qué determinados elementos objetivos y/o subjetivos predominaron en el momento de nombrar un camino, una fábrica, un río, una casa o cualquier otra realidad. Sin embargo, el estudio de su significado original, su estructura y su evolución diacrónica ofrece, en ocasiones, vías de conocimiento que superan la descripción física. Por un lado, este trabajo recoge el registro *Aizpuru*, del euskera (H)aitz *peña, roca* y *-Buru cabezo, prominencia*, por lo tanto, *cima o cabezo de la peña*; y por otro lado, *Simondrogas*, cuyo estudio explica que Simón Gardiazabal Andetxaga, natural de Elorrio, montó un negocio de droguería en el lugar que más tarde sería conocido como *Simondrogas*. Las palabras aportan, más allá del inventariado del entorno natural, una idea del contexto histórico en el que se crearon.

En este sentido, esa vertiente informadora la completan los hechos narrados en los distintos registros bibliográficos. Los nombres están asociados a actos que reflejan aspectos diversos de un momento histórico. A su vez, los nombres se asocian unos con otros, ya sea por su dimensión temporal o por factores etimológicos. Esto sugiere la estructura de un poliedro, cuyos vértices son los registros de cada nombre. Su asociación pone al descubierto las caras de ese cuerpo geométrico hecho de palabras, planos fijos que proyectan imágenes del devenir histórico de este lugar de nombre *Sestao*.

La palabra *Sestao* es el registro más antiguo datado en este libro. Lo recoge del *Privilegio de fundación de Portugalete*, del año 1322, donde se cita *“la desmería de Santa María de Sesto”*. La relación de autores que han publicado trabajos sobre el significado y evolución del término es muy relevante: Julio Caro Baroja, L. Mitxelena, M^a L. Guaza, R. M^a Azkue, Alfonso Irigoyen e Iñigo Rementería. Por otro lado, es significativa la importancia que tuvo el euskera en la formación del nombre del municipio. El autor explica en su estudio que *Sestao* forma parte de ese grupo de topónimos terminados en *-ao*, tan abundantes en Euskal Herria, como *Galdakao, Lazkao, ...* En la versión romance-castellana se han dado las variantes *Galdácano*, y *Lazcano*, pero no se han hallado registros, ni documentos oficiales, que recojan la voz

* *Sestano*. Por ello, concluye que la forma popular Sestao, obedeciendo a las leyes fonéticas del euskera hablado en la región, predominó en el laberinto del tiempo para dar nombre a este lugar. Argumenta además, que la duplicidad Sestao / Sesto es equivalente a la de los topónimos Bilbao / Bilbo y Ubaio / Ubo.

La investigación del significado de la palabra Sestao, aunque incorpora las referencias históricas precisas para conformar el estudio, se desarrolla en el plano de la etimología. No es su objeto abordar el ensayo historiográfico sobre los orígenes de la primigenia aldea. Ahora bien, el trabajo etimológico, esto es, el análisis de los elementos estructurales del término, plantea varias líneas de trabajo para la investigación histórica. Su lectura indaga en los elementos que identificaron este espacio físico con este nombre. En la metáfora del poliedro, es su vértice inicial.

Incluso si consideramos la obra realizada por diversos autores sobre la historia de la localidad y el contexto histórico que aportan los nombres catalogados en este libro, resulta muy complejo representar de un modo fehaciente aquel Sestao del siglo XIV. El plano realizado por el ingeniero Pedro Moreau como base para la realización de obras de mejora en la bocana y la barra del Ibaizabal proyecta una imagen significativa del municipio, pero su datación cronológica es de 1731 y nos aleja en el tiempo de aquel primitivo Sesto. El Sestao de los siglos XIV y XV era un lugar dominado por una naturaleza salvaje y agreste. Los ríos Ibaizabal y Galindo, unidos en la desembocadura del uno sobre el otro, erosionaban con fuerza la península de San Nicolás, la cual aparecía unida a la ribera a través de arenales y junqueras y, al compás de las mareas, transmutaba en una ínsula alejada por las aguas de su acomodo natural. De este hecho deja constancia el registro *La Isla* (1743). Las playas se extendían en una larga barra de arena desde *La Punta* hasta la actual dársena de La Benedicta. Las orillas del Galindo las poblaban extensos y frondosos juncales que ascendían río arriba hasta los puertos de Ugarte. Desde la isla hacia el noroeste, el terreno se elevaba abruptamente sobre las riberas y una oscura selva jalonada de riscos, apenas surcada por senderos y caminos carretiles, subía hacia los lugares de Portopín y Rebonza.

La subentrada *Serrevonça* la recoge la obra *Bien Andanzas e Fortunas*, de Lope García de Salazar, fechada hacia el año 1400: "*En esta sason çemo Ochoa de Salazar una nao que estaba en Serrevonça amarrada, e sola de noche*".

Serrevonça corresponde a *Sorrebonza*, o si se quiere, *bajo Rebonza*. El registro informa contextualmente sobre la existencia de ancladeros y muelles en aquella época, tanto en Galindo como en San Nicolás, para el abrigo y amarre de embarcaciones. Al luctuoso suceso de la quema intencionada de una nave narrado en la cita, le da continuidad un nuevo vértice del poliedro, *El Arenal de Sesto*, entrada de 1419. En ella se detalla la crónica de un crimen: "...e por esta causa mataron este Ferrando de la Sierra e Ferrando de Yrauregui, su cuñado (...) en el Arenal de Sesto a Juan Peres e a Juan de Nesperuça".

Tiempos oscuros, todavía sacudidos por la Guerra de Bandos, los que proyectan estos registros de comienzos del siglo XV. La entrada asociada al nombre *Portopín* (1769) identifica la zona como boscosa y abrupta tres siglos después: "*Ciento y cinco reales que costo la poda de los arboles de este monte (Portopin) y nogales*"; "... los ladrones que se decia estaban ocultos en el monte de Portopin".

Más allá de Rebonza, la colina se alzaba hasta hacer cumbre en la *Piedra Panadera* (entrada de 1701), y desde allí descendía suavemente hacia la mies de *Aizpuru* y la de *Ondezaga*. Sobre el actual El Kasko se elevaba una meseta (*La Talaia*, 1636), y en esa planicie, en el sitio llamado *Mendebar*, se construyó la Ermita de San Pedro a finales del siglo XIV. La explanada estaba dominada por la Casa-Torre de Sestao, un imponente torreón que hizo levantar Juan López de Salazar hacia 1380, en el apogeo de las luchas banderizas. Si bien su estructura original respondía a necesidades bélicas, con el paso de los siglos se fueron añadiendo distintos elementos, sobre todo de arte gótico, que la dotaron de enorme singularidad. La Casa-Torre de Sestao fue derruida en 1931 y con ella desapareció el mayor exponente de la abundante arquitectura militar erigida en la localidad.

Por aquel entonces, la Iglesia de Santa María de la Anunciación contemplaba el pueblo a sus pies desde la cima del *Alto de Aizpuru*. Construida alrededor del año 800, en la actualidad solamente conserva del estilo románico original la espadaña, la estructura del pórtico y algunos elementos de la cubierta. Su presencia a través de los siglos supone la única muestra de las numerosas edificaciones religiosas, ya desaparecidas, que proliferaron en el Sestao antiguo. *La Ermita de San Nicolás* (cita de 1695) se levantó a principios del XV en el cabo de *La Punta*, al filo del encuentro entre el Galindo y el Ibaizabal.

En esta centuria el espacio físico de Sestao se divide en tres grandes distritos, los cuales aparecen en los registros con la denominación *mies / mier*, esto es, conjunto de sembrados de un valle Real Academia Española (RAE). La mies de *Ondezaga* ocupaba completamente lo que hoy se conoce como el parque de *Las Camporras*, y desde allí se extendía hasta las riberas del Galindo y la vega de *Ugarte*. La *mier* de *Okillo*, mucho más vasta que el actual barrio, se prolongaba por el otro lado de la montaña desde San Nicolás hasta las playas de La Benedicta, y allí, según se deduce de la información recogida en varias entradas, hacía frontera con la mies de *Aizpuru* a la altura de la actual calle *La Iberia*. Este tercer distrito, *Axpuru* o *Aspuru* en sus variantes más antiguas, limitaba por el oeste con la villa de Portugalete. El significado de la palabra y las numerosas entradas ligadas al término indican que se trataba de una zona de monte escarpado y frondoso, la cual ocupaba en gran medida la parte alta del concejo, el alto del mismo nombre, los alrededores del *Camino Txikito*, etc.

Otro vértice del poliedro que conforma esta onomástica viene a completar esta proyección del Sestao de finales del siglo XV. El barrio de Salcedillo pertenecía en aquel tiempo a Sestao, y a la disolución del municipio de los Tres Concejos pasó a formar parte de San Salvador del Valle, pero siguió dependiendo de la Iglesia de Santa María de Sestao para el cobro de los diezmos. Si atendemos al significado del topónimo, los bosques de sauces poblaban esta zona cercana a la ribera del Galindo en donde, en el paraje conocido como Campillo de Galindo, se construyó la *Ermita de Nuestra Señora de la Piedad* hacia 1492 (entrada de 1721). En la actualidad no queda vestigio alguno de aquella construcción.

Diversos registros datados a comienzos del siglo XVI definen de manera más precisa la configuración espacial de la localidad. Los tres grandes distritos (*Axpuru* y *Ondexar*, ambas citas de 1577, y *Okillo*), aunque continúan siendo las referencias físicas principales, devienen en zonas de menor superficie que estructuran con mayor detalle el espacio. En este sentido, se han documentado los topónimos *Mendieta* (el alto donde se sitúa el actual cementerio), *Ballonti* (topónimo muy antiguo, se ha recogido como *río*, *viña*, *camino*, *paso a nivel*, *huerta* y *here-*

dad), *Aranaga* (pequeño valle situado en la mies de Ondezaga), *Azeta* (entre las numerosas subentradas se recoge como *barrio*, *camino real*, *poza*, *viña* y *fielato*), *Galindo Riba* (zona entre Repélega y Sestao), *Dovalio* (identificaba una zona cercana a Portugalete por encima de *La Ribera*) y *La Vega de San Nicolás* (esta subentrada de 1577 informa sobre el amarre de barcos en aguas del Ibaizabal).

Acabado el tiempo de la Guerra de Bandos, los señores feudales fueron perdiendo paulatinamente sus niveles de poder en beneficio de una nueva clase emergente formada por mercaderes, militares, navegantes, armadores y empleados públicos de alto rango. Desde el primer cuarto de este siglo los nuevos grupos sociales, enriquecidos al albur del comercio, procedían a legalizar sus títulos, pertenencias y fuentes de ingresos (molinos, ferrerías, heredades, barcos, etc.) bajo la figura jurídica del *mayorazgo*. Los mayorazgos disponían de ciertas prebendas legales que establecían una sencilla fórmula para su fundación y un especial tratamiento impositivo, favores que se mantuvieron en vigor hasta finales del siglo XIX. Esta nueva dinámica social y económica provocó el desarrollo de una arquitectura basada en los antiguos torreones de guerra. Los nuevos burgueses emprendieron la construcción de su propia casa-torre como símbolo de estatus social, las cuales se convirtieron en referente principal del mayorazgo. Las nuevas torres mantenían en buena medida las características básicas de las construidas para la guerra, si bien se añadieron elementos novedosos para su adecuación a las nuevas necesidades socioeconómicas. En Sestao se fundó el mayorazgo de *Rebonza* a comienzos de siglo. Los mayorazgos de *Salazar-Galindo* (1543), y *Ugarte* (1577) también tenían en el concejo numerosas propiedades.

Diego de Rebonza estableció mayorazgo en el lugar del mismo nombre y allí poseía una casa-torre y un molino (entradas de 1632), así como heredades (1637) y viñas (1682) en *Albiz*, *Las Returas*, *Mendieta* y *Aranaga*. El *mayorazgo de Salazar-Galindo* fue erigido por Pedro de Salazar y Elvira Diez de Uribarri. En el lugar de la ribera fronterizo con Trapagaran y muy cerca de la *Ermita de Nuestra Señora de la Piedad* se levantaban la casa-torre (registro de 1634), los molinos (1632), y la ferrería (1662). Las numerosas entradas asociadas al lugar dan constancia de la significación de esta zona de Sestao en su devenir histórico.

El mayorazgo de Ugarte lo establecieron Juan de Ugarte y Teresa Gómez de Martiartu y Butrón, vecinos de Portugalete. Este registro, de un memorial de propiedades fechado en 1577, aporta información sobre las casas y torreones que poseía este mayorazgo portugalujo en el concejo de Sestao: "*Ademas de la dicha casa torre principal tenemos en el lugar de Sesto (...) que es en el camino de Portugalete a Sesto, una torrezeta pequeña*".

Sus posesiones comprendían heredades, viñedos, bosques y huertas que se extendían por las zonas de *Axpuru*, *Escandal*, *La Ribera*, *La Peña*, *Dovalio* y *Ondezaga*.

El mayorazgo de La Pedriza, datado en una entrada de 1633, cierra el círculo aunque no se constate fecha concreta de su fundación. Fue propiedad de Martín de la Pedriza y se extendía entre Sestao y Portugalete. En Sestao levantó su casa-torre (*La casa-torre de La Pedriza*, 1633), y poseía hacienda y huerta (1657).

Los numerosos registros asociados a los puertos de Galindo, Causo y Ugarte parecen indicadores de este tiempo de incipiente bonanza económica. En las riberas del Galindo, en el escaso terreno que va desde su desembocadura hasta la zona de Ugarte, se acomodaron

estas tres estructuras portuarias propiciadas por el intenso tráfico marítimo y mercantil. El historiador sestaoarra Víctor Arroyo dice que fueron los cargaderos de la Jurisdicción de los Tres Concejos. Javier Ybarra sitúa en la Edad Media los orígenes del puerto de Galindo, y atribuye su construcción a los Señores de Ayala. La entrada de este topónimo está fechada en 1582. Con respecto al puerto de *Ugarte*, el historiador M. Ciriqiaín lo describe en su obra *Puertos Marítimos Vascongados*, y señala su datación en unas escrituras del año 1040 pertenecientes al rey Gartzia III de Navarra: “Hubo otro puerto, además del de Portugalete, el de Uhart, en el concejo de San Salvador del Valle. Este Uhart o Ugarte, que dió nombre a la vega, ya aparece citado en escrituras de 1040. Por el río Galindo le subía abundante agua de las mareas y allí se cargaba, al abrigo de los piratas, el mineral de las veneras de Triano”.

Así mismo, el siguiente registro (*El ancladero de San Nicolás*, 1781) informa sobre la existencia de muelles y atracaderos en la *Isla de San Nicolás*, a orillas del Ibaizabal: “tres mil seiscientos y sesenta y ocho quintales de vena, (...) que la condujera desde los puertos de Galindo, Causo y Ugarte al ancladero de San Nicolas”.

Con todo ello, las antiguas sendas y pistas para carretas recorrían todavía entonces aquel Sestao rural del siglo XVII. Los topónimos asociados a heredades y arboledas proyectan la imagen de una aldea cuya actividad básica es la agricultura: *Igueral* (cita de 1669), *El Argomal* (situado en la mies de *Okillo*, se extendía hasta la playa), *El Argomal de Cavadura* (esta entrada de 1645 aporta información sobre un pleito de propiedad), *Gorostiaga* (*Lugar de acebos*), *La Campa* (1658), *La Sierra* (zona escarpada de monte entre Cueto y Galindo), *El Excasal* (Sitio poblado de zarzas 1660), *El Manzanal* (1636), *La Casa del Encinal* (1642) y *Heredad El Castaño* (1696). El registro *La Junquera de Allende* traza un arco de tiempo (1668-1920) que certifica la pervivencia durante casi tres siglos de este enorme juncal situado entre los puertos de Galindo, Causo y Ugarte. La entrada *El Majuelo*, fechada un siglo después (1773), documenta de modo evidente la enorme riqueza natural de Sestao y su significada presencia en la vida de la localidad: “Yo Manuel de Villar (...) doy fe de como abiendo pasado en compañía de Domingo de Sarria regidor actual de este Conzejo de Santa Maria de Sestao (...) al puesto y paraje del majuelo que se alla arriba de la fuente, he visto que se hallan plantados dos mil y zien arboles robles”; “Cargo (...) Veinte reales que costo el recavar el majuelo de arboles para ir trasplantando de los que se sacan para ir al Arbolar de Portopin”.

El catálogo de nombres que designan distintos lugares del concejo, compilados en documentos del siglo XVII, es uno de los hitos de esta onomástica, tanto por su amplitud como por su diversidad lexicográfica. Los registros dibujan una ordenación precisa del espacio, propia de las sociedades rurales. Entre ellos citamos *El Queto* (sitio alto y defendido), *Arbinaga* (correspondía a una zona entre Rebonza y San Nicolás), *San Pedro* (de esta entrada se derivan numerosas subentradas, y se asocian los registros *La Plaza de San Pedro* y *La Ermita de San Pedro*), *Albiz* (topónimo relacionado con la existencia de *fundis* o propiedades de influencia romana, como *Lemoiz*, *Urduliz*, *Fruiz*, etc.), *Urtetegi*, *Elguero* (del latín *filicaria*, helechal), *Urtubeko* (zona próxima a la *Piedra Panadera*), *Labariega* (lugar entre Rebonza y las playas del Ibaizabal, en la actualidad el topónimo perdura adaptado a la grafía castellana como *Calle La Bariega*), *Las Llanas* (registrado como viña en 1642), *Iturburu* (lugar situado en Repélega), *Jauregi* (sitio próximo a Salcedillo), *Yartu* (terreno de la zona de Azeta), *Arana* (paraje entre Ondezaga y Abatxolo), *Las Sernas*, *Borreaga* (lugar cercano a los molinos de Galindo), *Etxebarriaga* (zona situada

junto a la cuesta de *Galindo*), *El Callejo* (topónimo que designa una depresión natural del terreno), *Las Returas* (registrado como viña y heredades en 1632), *El Valladar* (terraplén o desmonte abierto sobre la calle del Sol), *La Alta de Arriba* (cita de 1667), *El Pedazo* (el lugar que hoy ocupa la casa del Escribano), y *El Alerón* (resalte del terreno).

Dos entradas asociadas y datadas en 1700 son los vértices del poliedro que completan este plano geográfico de Sestao. El registro *El Encino Corvo* "...hasta el Encino Corvo de la Cuesta de Sestao donde entonces se desembarcaba a la gente..." va asociado a este otro, *La Cuesta de Sestao*, "...y desde allí en derechura hasta el Encino Corvo de la Cuesta de Sestao..." Ambos proyectan una foto fija del espacio cercano al embarcadero de San Nicolás.

En lo concerniente a la diglosia euskera/castellano presente en la serie de nombres mencionados, fenómenos como la traducción de topónimos, la sustitución de nombres genéricos y las adaptaciones a la grafía propia del castellano son reflejo de la época en la que las dos lenguas estuvieron en contacto. Así mismo, la toponimia no vasca compilada en este trabajo es de un castellano propio de las Encartaciones.

HACIENDA DE GARRILLO (1813) (AMS.LCCS) “*por ciento sesenta y seis reales recibidos de J. A. de Ybarra en cuenta (...) de la contribución de la Hacienda que maneja de Garrillo*”; “*Yt. por ciento sesenta y seis reales y ciento y siete maravedies recibidos en cuenta de J. A. Ybarra por las tierras que maneja de Garrillo*”.

¹²⁴ www.Heraldrysinstitute.com/cognomi.

¹²⁵ www.Heraldrysinstitute.com/cognomi.

Gataturriaga

Antzinako lekua / Antiguo lugar

Ez dakigu non zegoen leku hau, baina bai sorogune bat zela, «otra heredad de tierra бага en el puesto que llaman Gataturriaga, que alinda con otra de Pedro de la Hera» (1645).

Gataturriaga euskal toponimo ilun hau konposatua da eta hasiera batean argi ikusten den osagai bakarra *-aga* leku atzizkia da. *Gataturri* hitz segmentuari dagokionez, litekeena da bere osagaiak *gata* eta *turri* izatea. Kasu honetan, pentsa liteke *gata* hitza *kata*-ren aldaera izatea, alegia, *katu* izenak hitz-elkarketan hartzen duen forma. Izan ere, kontuan hartu behar da euskaraz *katu* forma estandarra ez ezik *gatu* aldakia ere badagoela eta hitz-elkarketan dagokion forma *gata*- dela. Gainera, euskaraz hitz hasierako *k-* / *g-* alternantzia arrunta izan ohi da, *kanbara* / *ganbara*; *kanbio* / *ganbio* edo *katukume* / *gatumume* pareetan ikus daitekeenez. Beste zatia, *Turri* forma, *iturri* hitzaren desitxuratzeari izan liteke. Hitz honek, elkarketan, hasierako bokala gehien-gehienetan gordetzen badu ere (kasurako *Napariturri*, *Alperiturri*), batzuetan *i-* hori galdu egiten da, Aralarako *Lopeturri* iturriaren izenean bezala, *Lope* pertsona izenaz eta *iturri* substantiboz osaturik dagoena¹²⁶. Beraz, esan genezake, hipotesi gisa, *Gataturriaga* leku-izenaren esanahia 'katuaren iturria' izan litekeela.

No sabemos dónde estaba este lugar, pero sí que era un espacio agrícola, «otra heredad de tierra бага en el puesto que llaman Gataturriaga, que alinda con otra de Pedro de la Hera» (1645).

En el topónimo compuesto vasco *Gataturriaga* podemos apreciar en un principio un componente claro, el sufijo locativo *-aga*. Por lo que respecta a *gataturri*, sus componentes podrían ser *gata* y *turri*. En este supuesto, es posible que *gata* sea variante de *kata*, que es la forma en composición del sustantivo *katu* 'gato'. En efecto, en euskara además de la forma normativa *katu* también existe la variante *gatu* y la forma en composición que le corresponde es *gata*. Además en euskara la alternancia *k-* / *g-* en inicio de palabra no es extraña, como se puede ver en los dobles *kanbara* / *ganbara*; *kanbio* / *ganbio* o *katukume* / *gatumume*. Por lo que afecta al segmento *Turri*, podría ser una deformación de *iturri* 'fuente'. Aunque esta palabra en composición conserva la vocal inicial en la gran mayoría de los casos, (por ejemplo *Napariturri*, *Alperiturri*), a veces sí que se produce la pérdida de la vocal inicial *i*, como en el caso de *Lopeturri*, fuente de Aralar, cuyos componentes son el nombre de persona *Lope* y el sustantivo *iturri* ¹²⁷ que significa 'la fuente de Lope'. Por tanto, según lo expuesto y como hipótesis, el significado del topónimo *Gataturriaga* podría significar 'la fuente del gato'.

¹²⁶ Zaldúa, 2012: FLV 115, 314 or.

¹²⁷ Zaldúa, 2012: FLV 115, p. 314.

Dokumentazioa / Documentación

GATATURRIAGA (1645) (AHMP.At.F.K.30, zk.3) *“Remate de bienes raíces de Juan de la Cassa nueva. Lo primero la casa en el dicho lugar de Sestao (...) otra heredad de tierra baga en el puesto que llaman Gataturriaga, que alinda con otra de Pedro de la Hera”.*

Gorostiaga

Antzinako lekua / Antiguo lugar

Kontzejuko mendebaldean zegoen aurkintza hau, *Riba* izeneko alderdian, Portugalete herriko mugaren ondoan.

Gorostiaga euskal izen gardena da, *gorosti* (*Aquifolium*) zuhaitz-izenaz eta *-aga* leku atzizkiak osaturik. Beraz, esanahia ‘gorostia dagoen lekua’ edo ‘gorostia’ da, besterik gabe.

Este lugar estaba situado en la parte de *Riba*, frontera con *Portugalete*, al occidente del municipio.

El topónimo *Gorostiaga* es un diáfano nombre vasco compuesto de dos elementos, el fitónimo *gorosti* (*Aquifolium*), que quiere decir ‘acebo’, y el sufijo locativo *-aga*. Por tanto su significado es, ‘el lugar donde está el acebo’ o, simplemente ‘el acebo’.

Dokumentazioa / Documentación

GOROSTIAGA (1642) (AHPB.PN.Esp.Gregorio de Aranguren.P-s. 7077/4D) “*Una bina en do llaman Gorostiaga jurisdicion del Concexo de Sestao*”; **(1666)** (AHMP. At.F.K.20, zk.1) “*María de Durañona vende: (...) otra (llosa) en el puesto que llaman Gorostiaga*”; **(1669)** (BFA, sign: JCR 888/28) “*una biña en la llana de Gorostiaga*”.

Hernia, la

Antzinako lekua / Antiguo lugar

Okillo aldeko *Zerradilla* izeneko gunean zegoen leku hau, *el Valladar* lekua ondoan, alegia, herriaren beheko aldean eta Ibaizabalen aldirian.

Kontuan harturik *hernia* protuberantzia bat dela, hau da, bere muga normaletatik irteten den zerbait, litekeena da toponimo honek lurzoruaren erliebeari edo haren izaera aldapatsuari, agian goragune bati, erreferentzia egitea.

Gaztelaniazko *hernia* hitza latinezko *hernĭa* izenetik eratorria da. Leku-izen hau pluralean zein singularrean agertzen da.

Lugar situado en la zona de *Okillo*, en el punto conocido como *La Zerradilla*, junto al puesto del *Valladar*, es decir, en la parte baja norte del pueblo y en las cercanías del Ibaizabal.

Si tenemos en cuenta que una *hernia* es una protuberancia, es decir, algo que se sale de sus límites normales, podría ser que este topónimo hiciera referencia al relieve del terreno, a una zona con fuerte desnivel o, quizá, a un lugar elevado.

Hernia es una palabra castellana derivada del latín *hernĭa*. El topónimo aparece tanto en singular como en plural.

Dokumentazioa / Documentación

LA HERNIA (1714) (AHPB.PN.Esp.Pedro de Oyanzas.Sign: 7073/9B) “*Una viña en el puesto que llaman la Zerradilla que alinda con otra heredad en el puesto que llaman la Hernia*”; (1927) (BFA, sign: AHO 37/1) “*Hernia: Heredad*”.

Izenaren aldaerak / Variantes del nombre

LAS HERNIAS (1894) (RPB.T.10.FINKA Zk.451) “*Finca rústica; heredad sita en el Concejo de Sestao y término conocido por las Hernias*”.

Higueral

Antzinako lekua / Antiguo lugar

Portugalete herriko mugaren ondoko *Riba* izeneko alderdian zegoen leku hau, *Galindo*-ra zihoan bidetik hurbil.

Higueral substantibo kolektiboa *higuera* (*Ficaria*) zuhaitz izenetik eratorria da, *higo* hitzetik datorrena, eta latinezko *ficum* du sorburu. Izen honen euskarazko parekidea ‘pikudia’ da. Leku -izen hau erdal artikulurik gabe agertzen da.

Lugar situado en la zona de *Riba*, junto al límite con Portugalete, y cercano al camino que iba a *Galindo*.

Higueral es un sustantivo colectivo derivado del nombre de árbol *higuera* (*Ficaria*), procedente del término *higo*, del latín *ficum*, y su significado es claro, ‘sitio poblado de higueras’. Su equivalente en euskara es la palabra ‘pikudia’. El topónimo se cita sin el artículo castellano.

Dokumentazioa / Documentación

IGUERAL (1669) (BFA, sign: JCR 888/28) “*Item otra eredad mañanal en Ygueral, pegante a otra media cassa (de Riba) en el camino que ba a Galindo*”.

Ibaizabal

Ibaia / Río

Nahiz eta ur-ibilgu honen jatorrizko izena Ibaizabal izan, XIX. mendean, asmakizun kultista zela medio, ibai honi *Nervión* izenez deitzen hasi zitzaion, hartarako arrazoi historikoak argudiatuz, G. Bañales eta M. Gorrotxategi idazleek dioten bezala: «La denominación de Nervión (...) es un invento de los diccionarios geográficos del siglo XIX, que (...) prefirieron denominarlo Nervión por razones historicistas, relacionando este nombre con el emperador romano Marco Coeccio Nerva y la tribu celta de los Nervios»¹²⁸.



Ibaizabalen mapa / Mapa del Ibaizabal

¹²⁸ Bañales eta Gorrotxategi, 2007: 136 or.

Gainera iritzi horrek gaur arte irau du. Izan ere, S. Segura Munguia¹²⁹ irakaslearen arabera, K. a. II. mendeko Ptolomeo historialari greziarrak egindako Hispaniako hirien nomenklator batean aipu hau agertzen da: «Autrigonum: Nervae fluvii ostia», itzulita esan nahi duena *Autrigonena: Nerva ibaiko portua*, S. Segurak *Nervión* ibaiarekin identifikatzen duena.

Hala ere, *Ibaizabal* izenaren jatortasuna aitortzen duten lekukotzak egon badaude. Esaterako, XVII. mende amaieran Gabriel de Henao jesuita espainiarrak aipamen batzuk egin zituen arazo honetaz: «La Villa de Portugalete, a dos leguas de Bilbao y donde el rio Nerva tiene boca al Oceano mismo (...) dicho en vascuence Ibayzabal». Eta zera gehitzen du: «Ybaizabal nombre que dan al rio de Bilbao»¹³⁰. Ildo honetan, XIX. mendean Euskal Herrian barrena bidaiari ibili zen Wilhelm von Humboldt filologo alemaniarrak ere honako hau idatzi zuen: «En el camino de Bilbao a Sommorostro (sic) no se puede olvidar el Desierto. Esa pequeña península que forma el Ibaizabal»¹³¹.

Bestalde, *Ibaizabal* euskal hidronimo gardenaren osagaiak bi dira: *ibai* izena eta *zabal* izenondoa. Hala ere, gure dokumentazioan *La Ría*, *La Ría de Bilbao* eta *El Río Nervión* izendapenak baino ez dira agertzen eta erabilpenari dagokionez, gaur egun Sestaon erabiltzen diren izendapenak *La Ría* eta *El Nervión* dira. Bertako euskaldunen artean, aldiz, *Nerbioi* da gehien entzuten den izena, nahiz eta azken urteotan *Ibaizabal* jatorrizkoa ere ibiltzen hasia den.

A pesar de que el nombre original de este curso de agua es Ibaizabal, en el siglo XIX se comenzó a denominar a este río como *Nervión*, aduciendo para ello justificaciones de tipo histórico, como explican los escritores G. Bañales y M. Gorrotxategi: «La denominación de Nervión (...) es un invento de los diccionarios geográficos del siglo XIX, que (...) prefirieron denominarlo Nervión por razones historicistas, relacionando este nombre con el emperador romano Marco Coeccio Nerva y la tribu celta de los Nervios»¹³².

Además, esta argumentación ha llegado hasta la actualidad, pues, según el profesor S. Segura Munguia¹³³, en un nomenclátor de las ciudades Hispania que hizo el historiador griego Ptolomeo en el siglo II a. C. aparece la siguiente mención, «Autrigonum: Nervae fluvii ostia», que traducido quiere decir *De los Autrigones: el puerto del río Nerva*, que Segura identifica con el río *Nervión*.

Sin embargo, también hay testimonios que reconocen que el nombre original del río es Ibaizabal. Por ejemplo, el jesuita español Gabriel de Henao hace varias menciones sobre este asunto: «La Villa de Portugalete, a dos leguas de Bilbao y donde el rio Nerva tiene boca al

¹²⁹ Segura, 1997: 72 eta 73 or.

¹³⁰ Henao, 1689: 203, 205, 272, 281, 286, 306, 307, 312, 376 eta 394 or.

¹³¹ Humboldt, 1999: 173 eta 181 or.

¹³² Bañales y Gorrotxategi, 2007: p. 136.

¹³³ Segura, 1997: pp. 72 y 73.

Oceano mismo (...) dicho en vascuence Ibayzabal». Y añade: «Ybaizabal nombre que dan al río de Bilbao»¹³⁴. Asimismo, en el siglo XIX, el filólogo alemán Wilhelm von Humboldt, que estuvo viajando por Euskal Herria, escribía: «En el camino de Bilbao a Sommorostro (sic) no se puede olvidar el Desierto. Esa pequeña península que forma el Ibaizabal»¹³⁵.

Por lo que se refiere al hidrónimo, Ibaizabal es un diáfano compuesto vasco de dos elementos, el sustantivo *ibai*, que quiere decir 'río', y el adjetivo *zabal* 'ancho'. No obstante, actualmente en Sestao las denominaciones más utilizadas son *La Ría* y, en menor medida, *El Nervión*, y entre los vascoparlantes del pueblo la forma que más se oye es *Nerbioi*, aunque en los últimos años también ha comenzado a usarse el nombre original Ibaizabal.

Dokumentazioa / Documentación

LA RÍA (1764) (BFA, sign: AJO 1566/2) “El terreno que se halla mirando al lugar de Sestao mirando a la Ría se llama las Canteras”; (1889) (AMS.LAS 4) “Solicitan permiso para sacar la piedra de la cantera de la Sierra, en la barrera cerca de la ría”; (1910) (AMS.LAS 18) “circular encaminada a evitar el contrabando en la ría”.

LA RÍA DE BILBAO (1905) (AMS.LAS 14) “para aprovechar el agua de la Ría de Bilbao”; (1913) (AMS.LAS 19) “desde la nueva fábrica en la margen izquierda del Ballonti, afluente del Galindo, hasta la ría de Bilbao o sea El Nervión”.

EL RÍO NERVIÓN (1864) (RPB.T.1.FINKA Zk.2) “La (casa) nombrada de Arminaga (...) Confina por el norte con el expresado camino, al sur al Río Galindo, por el este con el Río Nervión”; (1893) (BFA, sign: AGK-1050) “proyecto de Puente rodado para el cruce de las dos orillas del río Nervión”; (1923) (BFA, sign: FOMENTO.K.638.Esp.11) “confluencia del Nervión con los ríos Galindo y Cadagua”.

¹³⁴ Henao, 1689: pp. 203, 205, 272, 281, 286, 306, 307, 312, 376 y 394.

¹³⁵ Humboldt, 1999: pp. 173 y 181.

Ibarra

Antzinako nekazaritza-gunea / Antigua zona agrícola.

Leku hau *Ballonti* eta *Galindo* ibaien artean zegoen kokaturik, alegia, herriaren hegoaldean. Garai batean nekazaritza-gune garrantzitsu hau *Hiru Kontzeju* (Sestao, Santurtzi eta Trapagaran) izeneko udal erakundearen jabetza izan zen.

Aurkintza hau *La Vega de Ybarra* (1697) izendapen tautologikoaz ere ezaguna zen (*vega* eta *ibarra* hitzek esanahi berbera baitute) eta bertako lugintza jarduerak XIX. mendetik zehar jarraitu zuen, izan ere, denbora hartan soroeta honi *Heredades de Ybarra* (1835) izena ematen zitzaion. Halaber, alderdi honetan *Errepelega-Riba-Ibarra* alderditik igarotzen zen erreka bat egon zen, *Arroyo Ybarra* izeneko.

Ibarra euskal toponimo garbia da eta bere osagaiak bi dira, *ibar* izena eta *-a* artikulua.

Se trata de una zona situada al sur del municipio, comprendida entre los ríos *Ballonti* y *Galindo*. En su tiempo fue un importante espacio agrícola perteneciente a los *Tres Concejos* (Sestao, Santurtzi y Trapagaran).

El lugar también fue conocido con la denominación tautológica de *La Vega de Ybarra* (1697) (pues las palabras *vega* e *ibarra* tienen el mismo significado) y conservó su carácter agrícola durante todo el siglo XIX. Así, al hortal que en aquel tiempo existía en este sitio se le conocía con la denominación de *Heredades de Ybarra* (1835). Asimismo, hubo un pequeño curso de agua, llamado *Arroyo Ybarra*, que discurría por la zona de *Repelega-Riba-Ibarra*.

Ibarra es un claro topónimo vasco formado por el sustantivo *ibar* más el artículo *-a* y su significado es 'la vega'.

Dokumentazioa / Documentación

YBARRA (1667) (AHMP.At.F.K.29, zk.17) “*otra heredad en los montes de Ybarra que alinda con otra en la cuesta de Galindo*”; (1704) (AHMP.At.F.K.22, zk.5) “*Memorial de Antonia de Nocedal, viuda de Juan de Mesperuza, casada al presente con Pedro Agustín de Echevarri, vezinos del Conzejo de Santa María de Sestao: (...) en el puesto de Ybarra quatro aces*”; (1764) (BFA, sign: AJO 1566/2) “*Las Vegas de Ybarra son pertenecientes a vecinos de los tres concejos*”; (1835) (AHPB.PN.Esp.Clemente Urioste.Sign: 2314) “*Otra heredad en la Mies de Ondejaga que confina con las de Ybarra*”.

Iberia, la

Kalea / Calle

Kale honen sorrera XIX. mendean hasitako kontzejuaren industrializazio-prozesuarekin estu-estu lotuta dago, izan ere, izena *Fundición de Hojalata, Tubos y Baños Galvanizados La Iberia* fabrikarenetik datorkio, hain zuzen. 1890. urtean fundatutako enpresa hau Ibaizabal ondoko paduretan kokaturik egon zen.

Industriagintzak eragindako populazioaren hazkundera zela kausa, 1894. urtean Udalak kale berri bat egitea deliberatu zuen, Ibaizabal aldameneko herriaren beheko partea (*Venta del Gallo*) eta goikoa (*Balmasedako Kondea*-ren plaza) lotuko zituena. Hala ere, kale hau behin baino gehiagotan dokumentatzen da auzo bezala izendatua, batez ere beheko zonaldea. Alde horretan, Ibaizabal aurrean eta tailerretatik hurbil, etxe-multzo tinkoago bat zegoen, «las casas pequeñas del final de la calle Iberia» (1909) deituak, nolabaiteko biztanlegune bat osatzen zuena. Kale honen izen zaharra *La Estrada vieja* zen, «una instancia pidiendo certificación de propiedad de un terreno situado en la Estrada Vieja, hoy La Iberia» (1892).

Esan bezala, karrikaren beheko partea industrialdearen ondo-ondoan zegoen eta meatzaritzak ere bere lekunea izan zuen bertan. Izan ere, XIX. mende bukaera eta XX.aren hasiera artean honako meatoki hauek izan ziren alderdion: *Mina Berta* (1892), *Mina Blandia* (1892), eta *Mina la Iberia* (1921).

Gainera, kale-aldapa¹³⁶ luze honetan denboran zehar egondako hainbat etxeren izenak ere eduki baditugu, hala nola, *Caserío Ochoa* (1834) baserria eta *La Casa de Cortadi*¹³⁷, *La Casa Vieja* (1905), eta *La Casa de Paca* (1934) izeneko etxeak, besteak beste.

La creación de esta calle está relacionada directamente con el proceso de industrialización del concejo iniciado en el siglo XIX. Por ejemplo, su nombre proviene del de la empresa llamada *Fundición de Hojalata, Tubos y Baños Galvanizados La Iberia*, creada en 1890 e instalada en las marismas del Ibaizabal.

Debido al fuerte aumento de población provocado por la actividad industrial, en el año 1894 el Ayuntamiento decidió abrir una nueva calle que uniera la parte baja del pueblo situada junto al Ibaizabal (*La Venta del Gallo*) y la alta (*Plaza Conde Balmaseda*). Sin embargo, alguna vez esta vía aparece denominada como barrio, sobre todo cuando se refiere a la zona baja de la misma, seguramente porque aquí, frente al Ibaizabal y cerca de los talleres, había un grupo de casas más compacto, que formaban un modesto núcleo de población citado en la documentación como «las casas pequeñas del final de la calle Iberia» (1909). El nombre antiguo de esta calle era *La Estrada vieja*, «una instancia pidiendo certificación de propiedad de un terreno situado en la Estrada Vieja, hoy La Iberia» (1892).

¹³⁶ Gago, 1996: I, 207-208 eta 473 or.

¹³⁷ Gago, 1996: II, 278 or. (argazkia).



La Iberia kalea eta AHV fabrika / Calle La Iberia y la fábrica de Altos Hornos de Vizcaya

Como se ha dicho, la parte baja de esta zona estaba junto a la zona industrial y, como en otros lugares del pueblo, la minería también tuvo su espacio en este lugar. Así, entre el final del siglo XIX y comienzos del XX, se documentan las explotaciones *Mina Berta* (1892), *Mina Blandia* (1892) y *Mina La Iberia* (1921).

Por otro lado, entre los edificios que estuvieron ubicadas en esta larga calle-cuesta¹³⁸ a lo largo del tiempo figuran el *Caserío Ochoa* (1834) y las casas denominadas *Casa de Cortadi*¹³⁹, *La Casa Vieja* (1905) y *La Casa de Paca* (1934).

¹³⁸ Gago, 1996: I, pp. 207-208 y 473.

¹³⁹ Gago, 1996: II, p. 278 (foto).



Iberia kalea / Calle La Iberia

Dokumentazioa / Documentación

LA IBERIA (1889) (AMS.LAS 4); (1890) (BFA, sign: B.y P.K.1348.Esp.100 eta 128) “el Alcalde solicita se le facilite el cilindro para apisonar un camino en la Calle de la Iberia de esta jurisdicción”; (1909) (AMS.LAS 16) “El Sr. Orbea manifiesta la falta de condiciones higiénicas de las casa pequeñas del final de la calle Iberia”; (1920) (AMS.LAS 23) “los establecimiento comerciales de la parte baja de la calle de la Iberia”; (1940) (AMS.LAS 34) “El Sr. Eguía señala la existencia de escombros y basura en la Plazoleta de la Iberia”.

Ihartu

Antzinako lekua / Antiguo lugar

Aurkintza hau *Azeta* aldean zegoen, Portugalete ondoko mugan, alegia, kontzejuko mendebaldean, eta gaurko Bilbo-Santurtzi errepidetik hurbil. Iparraldetik Ibaizabal zuen mugakide eta hegoaldeetik *Abatxolo* auzoa.

La Mier de Yartu (1645) izendatutako nekazaritza-gune honetan soroak eta mahastiak lantzen ziren batik bat, besteak beste, *La Heredad Yartu* (1764) eta *La Viña de Yartu* (1764) izeneko lursailak. Halaber, bertan egon zen *El Callejo de Yartu*, agian orga-estrata bat, hitz honek Enkarterri eskualdeko gazteleraz ‘gurdibidea, itxia eta paretan artekoa’ esan nahi baitu.

Gainera, herriko hondartza izandakoaren gainean eta fabriketatik hurbil zegoen leku honetako laborantza-jarduerak XX. mendea ondo sartu arte iraun zuen. Adibide gisan *La Campa Yartu* (1924) landa-finka eta *La Huerta de la Heredad Yartu* ortua aipa daitezke, besteak beste, «necesitamos ampliar el hueco de la huerta de la heredad Yartu, sita en la entrada de Sestao, junto al cambio de Aceta» (1934).

Ihartu izena, izatez, aditz-partizipio bat da, *ihar* ‘zimel, lehor’ adjektiboaz eta *-tu* aditz atzizkiak osaturik dagoena¹⁴⁰, eta mendebaldeko euskarari dagokion aldakia *igartu* da, bokalarteko *-g-* galdu ondoren *iartu* / *yartu* bilakatzen dena. Batzuetan, gaztelaniaren eraginaz, hitzaren amaierako *-u* bokala *-o* bihurtu ohi da, honela *Yarto* aldaera sortzen dela.

Paraje situado en la zona de *Azeta*, en la linde con Portugalete, al occidente del municipio y cerca de la actual carretera Bilbo-Santurtzi. Por el norte limitaba con el Ibaizabal y por el sur con el barrio de *Abatxolo*.

Fue éste un espacio agrícola, también documentado como la *Mier de Yartu* (1645), donde se trabajaban huertas y viñedos, como la llamada *Heredad Yartu* (1764) y la *Viña de Yartu* (1764). Igualmente, aquí se encontraba el nombrado *Callejo de Yartu*, quizá un camino carretil, pues en el castellano de las *Encartaciones* esta palabra también significa ‘vía que transitan los carros, cerrada y encajonada entre paredes’.

Además, la actividad agrícola en esta zona, situada encima de la que fue la *Playa de Sestao* y muy cerca de las fábricas, se prolongó hasta bien entrado el siglo XX; como ejemplo se pueden citar la finca rural titulada *Campa Yartu* (1924) y la *Huerta de la Heredad de Yartu*, «necesitamos ampliar el hueco de la huerta de la heredad Yartu, sita en la entrada de Sestao, junto al cambio de Aceta» (1934).

El topónimo vasco *Ihartu* es un participio verbal formado por el adjetivo *ihar*, que quiere decir ‘marchito’ ‘seco’, y el sufijo verbal *-tu*¹⁴¹, y la variante que corresponde al euskara occi-

¹⁴⁰ Mitxelena, 2001: 306; 100 or. eta 561; 153 or.

¹⁴¹ Mitxelena, 2001: 306, p. 100 y 561, p. 153.

dental es *igartu*, que tras perder la consonante intervocálica *-g-* se convierte en *iartu* / *yartu*. A menudo, por influencia del castellano, la vocal final *-u* tiende a convertirse en *-o*, surgiendo así la variante *Yarto*. El significado de esta palabra en castellano es ‘marchitado’, ‘secado’.



Goitik behera; Abatxoloko auzoa, Azetako etxe ilunak, eta Galdamesko dartsena
De arriba abajo; el barrio de Abatxolo, las casas oscuras de Azeta y la dársena de Galdames

Dokumentazioa / Documentación

YARTU (1645) (AHMP.At.F.K.30, zk.3) “Item la mitad de otra heredad en la mier de Yartu, que linda con otra de Pedro de la Hera, mayor en dias”; (1764) (BFA, sign: AJO 1566/2) “La Viña y Sierra de Yartu”; (1820) (AHPB.PN.Esp.Clemente de Urioste. Sign: 2301) “Pedro de Echabarria y Maria del Casal vecinos del Concejo de Santa Maria de Sestao entregamos (...) a (...) nuestro hijo, una heredad de Pan Sembrar notoria (...) en (el) sitio titulado Yartu, parte abajo del Pozo de Abacholo”; (1900) (RPB.T.12.FINKA Zk.561) “Terreno destinado a hortalizas en el punto de Aceta, sitio llamado Yartu (...) término de Sestao”; (1934) (BFA, sign: SESTAO 214/124) “Que necesitamos ampliar el hueco de la huerta de la heredad Yartu, sita en la entrada de Sestao, junto al cambio de Aceta”.

Izenaren aldaerak / Variantes del nombre

YARTO (1728) (AHMP.At.E.K.11, zk.54) “Tasacion de los bienes de Antonio de Larrazabal y Maria de la Hera, vecinos del Concejo de Sestao (...) En el puesto de Yarto otra heredad”; “Otra heredad en el Callejo de Yarto”, (1924) (BFA, sign: AHO 19/1) “Yarto: Cultivo”; (1940) (RPB.T.29.FINKA Zk.402) “Casa en el punto de Yarto del Concejo de Sestao”.

Intzarraga

Antzinako lekua / Antiguo lugar

Laborantza-leku txiki hau *Rebonza* alde zabalean kokaturik zegoen.

Soro-leku honetan *La LLosa de Ynzarraga* (1714) deitutako esparru zerratua izan zen, zeren gaztelaniazko *llosa* hitzak horixe adierazten baitu, ‘laborantza-eremu itxia’ (ik. *Llosillas, Las*). Halaber, *La Heredad Yzarraga* (1810) izendatutako soroa ere bertan egon zen.

Euskal toponimo honen osagaiak bi dira, *intzar* izena, *intxaur* (*Juglans regia*) estandarren aldaera, eta lekua adierazten duen *-aga* atzizkia, eta, beraz, *Intzarraga* hitzak esan nahi du ‘intxaurrondo dagoen lekua’ edo ‘intxaurrondo’. Hitzaren jatorriari buruz, litekeena da *Intzarraga* hitza *intsaurraga* batetik eratorria izatea. Izan ere, Bizkai aldean arrunta izan ohi da *ts > tz* bilakaera herri hizkeran eta, ondorioz, *intsaurraga* hitza *intzaurraga* ebakitzen da. Halaber, mendebaldeko euskalkietan ohikoa den *-au- > -o-* diptongoaren murrizketa ere ikus dezakegu hitz honen bilakaeran, alegia, *Intzaurraga > Intzarraga*, gaztelaniazko grafiaz, *Inzarraga*, izan ere, *tz* euskal digrafoa *z* bezala transkribitu ohi da hizkuntza horretan.

Se trataba de un pequeño lugar de labor que estaba situado en la zona de *Rebonza*.

En este hortal estuvo el cerrado llamado *Llosa de Ynzarraga* (1714), pues el significado de la palabra castellana *llosa* es, precisamente, ‘terreno labranfío cercado’ (v. *Llosillas, Las*). Asimismo, la denominada *Heredad Yzarraga* (1810) también se encontraba en este lugar.

El topónimo vasco *Intzarraga* está formado por el nombre de árbol *intzar* ‘nogal’ (*Juglans regia*), variante de la forma estándar *intxaur*, y el sufijo locativo *-aga* y, por tanto, su significado es ‘el lugar donde está el nogal’ o ‘el nogal’, sin más. Es posible que *Intzarraga* proceda de la variante *intsaurraga*, pues en gran parte de Bizkaia es común la evolución *ts > tz* y, en consecuencia, *intsaurraga* suele pronunciarse *intzarraga*. Asimismo, en esta palabra también se da la reducción del diptongo *-au- > -o-*, habitual en las variedades occidentales del euskara, es decir, *intsaurraga > intzarraga*, con grafía castellana *Inzarraga*, pues el dígrafo vasco *tz* suele transcribirse como *z* en esta lengua.

Dokumentazioa / Documentación

INÇARRAGA (1642) (AHPB.PN.Esp.Gregorio de Aranguren.P-s.7077/4D) “*Una heredad de tierra baga en do llaman Inçarraga que alinda con otra heredad de tierra baga en do llaman Rebonça*”.

YZARRAGA (1810) (AHPB.PN.Esp.Clemente de Urioste.Sign: 2293) “*la heredad de Manuel de Urioste llamada Yzarraga*”.

YNZARRAGA (1714) (AHPB.PN.Esp.Pedro de Oyanzas.Sign: 7073/9-B) “*Un pedazo de tierra en el puesto de la mier de Ondezaga y dos pedacitos en la llosa de Ynzarraga*”.

Iraban

Trapagarango lekua / Lugar de Trapagaran

Leku hau Trapagaran kontzejuko *Salcedillo* auzoan zegoen, Sestaoko hegoaldeko mugan. Hala ere, garai hartan *Salcedillo* (*Elguero* eta *Riba* bezala) Andra Maria parrokia sestaoarraren barrutiko partea zen elizaz (ik. *Salcedillo*).

Iraban euskal toponimoaren osagaiak bi dira: *ira* ‘garoa’ izena eta *eban* aditza, *ebaki* estandarren mendebaldeko aldaera, eta bere esanahia ‘ira ebakitzen den lekua’ da. Oñati herrian badugu izen honen aldaki bat, *Ireban*¹⁴².

Este paraje perteneciente al concejo de Trapagaran estaba situado en el barrio de *Salcedillo*, en el límite sur de Sestao, aunque en aquel tiempo *Salcedillo* (como *Elguero* y *Riba*), formaba parte de la jurisdicción de la parroquia sestaoarra de Santa María (v. *Salcedillo*).

Iraban es un topónimo vasco compuesto del fitónimo *ira* ‘helecho’ y del verbo *eban* ‘cortar’, variante occidental del normativo *ebaki*, y su significado es ‘lugar donde se corta el helecho’. En Oñati (Gipuzkoa) también aparece este nombre, con la forma *Ireban*¹⁴³.

Dokumentazioa / Documentación

IRABAN (1764) (BFA, sign: AJO 1566/2) “*El sitio de Jauregui como el de Iraban se hallan en el Varrío de Salcedillo*”; (1784) (AHMP.At.F.K.20, zk.18) “*una heredad en el puesto de Iraban*”.

YRABAN (1830) (AHPB.PN.Esp.Clemente de Urioste.Sign: 2310) “*Una heredad de tierra labrante en el parage titulado Yraban termino del barrio de Salcedillo*”.

¹⁴² Mujika, 1989: XVIII, 199 or.

¹⁴³ Mujika, 1989: XVIII, p. 199.

Iturburu

Antzinako lekua / Antiguo lugar

Riba eta *Errepelega* artean kokaturiko lekua, zehazki *San Cristóbal de Yturburu* izeneko ermita zaharraren ondoan; bertako iturritik sortutako errekaak *Ballonti* ibaira isurtzen zituen bere urak. Gaurko *Riba* eta *Errepelega* auzoak Portugalete hiribildukoak diren arren, garai batean Santurtzikoak ere izan ziren eta *Riba* alderdiko parte bat behintzat Sestao kontzejukoa zen. Gainera, elizaz Andra Maria parrokia sestaoarraren barrutian zegoen *Riba* auzoa (ik. *Riba*).

Iturburu euskal toponimo garden-gardena da eta bi osagai ditu: *itur* izena, *iturri* substantiboaren hitz-elkarketarako aldaera, eta *buru* hitza, ‘jatorri’ edo ‘hasiera’ ere adieraz dezakeena.

Lugar situado entre los barrios de *Riba* y *Repelega*, exactamente junto a la vieja ermita de *San Cristóbal de Yturburu*, de donde fluía un manantial formando un pequeño regato que desaguaba en el río *Ballonti*. Aunque actualmente ambos barrios son portugalujos, antiguamente pertenecieron a Santurtzi y al menos una parte de *Riba* fue del concejo de Sestao. Asimismo, eclesiásticamente el barrio de *Riba* estaba dentro de la jurisdicción de la parroquia sestaoarra de Santa María (v. *Riba*).

El transparente topónimo vasco *Iturburu* está formado por la unión de los nombres *itur* ‘fuente’, variante de *iturri* en composición, y la palabra *buru*, que también tiene entre sus significados el de ‘origen’ o ‘comienzo’. Su significado en castellano es ‘manantial’.

Dokumentazioa / Documentación

ITURBURU (1696) (AHMP.At.K.6, zk.28) “Otra heredad con su viña en el punto de Iturburu y otra en el punto de Ybarra”; (1704) (AHMP.At.F.K. 22, zk.5) “Primeramente ypotecamos una biña (...) sita en el lugar que llaman Iturburu, del lugar de Riva”; “Ypotecamos una viña sita en el puesto de Iturburu”.

Jauregi

Trapagarango lekua / Lugar de Trapagaran.

Leku hau ere Trapagaran herriko *Salcedillo* auzoan zegoen, eta hau garai hartan elizaz Sestaoko Andra Maria parrokiaren barrutikoa zen (ik. *Salcedillo*).

Euskal Herri osoan barrena hedaturiko toponimo honek bi osagai ditu, *jaur* forma, *jaun* izenaren hitz-elkarketarako aldaera, eta *-(t)egi* atzizkia, eta bere esanahia da 'jaunaren tokia' edo 'jaunaren etxea'. Halaber, kontuan har bedi Euskal Herriaren mendebaldeko ahoskera *yauregi* izaten dela, agiriek adierazi bezala, «Casas de Yauregui» (1617). Hala ere, mende eta erdi pasatuta *yauregi* ez da ebakera bakarra, *jauregi* ere ahoskatzen baita, dokumentazioak esplizituki azaltzen duenez: «Casas de Jauregui o Yauregui» (1764).

Este sitio estaba en el concejo de Trapagaran, en el barrio de *Salcedillo*, que en aquel tiempo pertenecía eclesiásticamente a la jurisdicción de la parroquia de Santa María de Sestao (v. *Salcedillo*).

El topónimo *Jauregi* es un nombre muy común extendido por todo Euskal Herria compuesto de dos elementos, *jaur*, variante en composición del sustantivo *jaun*, que quiere decir 'señor', y el sufijo *-(t)egi*, que expresa 'lugar' o 'casa', siendo su significado en castellano 'palacio'. Hay que tener en cuenta que en la parte occidental de Euskal Herria la pronunciación de este nombre suele ser *yauregi*, tal y como aparece en los papeles, «Casas de Yauregui» (1617). Sin embargo, siglo y medio después *yauregi* no es la única dicción, pues también se pronuncia *jauregi*, como explícitamente señala la documentación: «Casas de Jauregui o Yauregui» (1764).

Dokumentazioa / Documentación

YAUREGUI (1617) (AHMP.At.F.K.50, zk.1) "*en los mojones que confinan con las cassas de Yauregui y lugar de Repelega*"; **(1764)** (BFA, sign: AJO 1566/2) "*Casas de Jauregui o Yauregui*"; "*los confines de Jauregui o Yauregui*".

JAUREGUI (1690) (BFA, sign: AJO 1571/1) "*habiendo llegado río abajo a una heredad de la Vega llamada de Ybarra y confines de Jauregui...*"; "*el mojon puesto en el estremo de una punta que hace la bajada de la Sierra de Pando en los confines de Jauregui...*"; **(1728)** (AHMP.At.F.K.39, zk.28) "*Varrío de Jauregui o Salcedillo*"; **(1764)** (BFA, sign: AJO 1566/2) "*El nombre de Jauregui se le daría en aquel tiempo a alguna heredad de las que se hallaren inmediatas al Varrío de Repelega*".

Kapellasolo

Antzinako lekua / Antiguo lugar

Riba izeneko lekutik hurbil zegoen gune hau, kontzejuaren mendebaldean, Portugalete ondoko mugaldean eta herri honetara zihoan bidetik ez urrun. Iparraldetik *Albiz* auzoa zuen mugakide eta hegoaldetik *Ondezaga* nekazaritza-gunea.

XVI. mendean *Ugarte* izeneko maiorazko portugaletetarrak bazituen zenbait ondasun mugako soroeta honetan, familia honen jabetzen memorialean azaltzen den bezala: «Dos heredades de pan sembrar en Capellasolo» (1577).

Gaur egun desagertutako euskal toponimo honek bi osagai ditu, *Kapella*, pertsona-izena edo ezizena izan litekeena, eta *solo* hitza, *soro* estandarraren mendebaldeko aldaera. Hortaz, bere esanahia da ‘Kapella izeneko norbaiten soroa’. Halaber, Oñati (Gipuzkoa) herrian leku-izen honen aldaera bat dokumentatzen da, *Kapelasoro*¹⁴⁴, bertako euskalkiaren ezaugarriak erakusten dituen, alegia, *-l-* kontsonanteak bere horretan dirau, Enkarterri aldeko euskal toponimian ohikoa den *-l-* > *-ll-* (*Galarreta, Zabala* > *Gallarta, Zaballa*) aldakuntza egin gabe, eta bestalde, *solo* hitzaren ordeaz *soro* agertzen da.

Este sitio estaba al oeste del concejo, junto al barrio de *Riba*, no lejos del camino que iba a Portugalete. Por el norte limitaba con el barrio de *Albiz* y por el sur con la mier llamada de *Ondezaga*.

En el siglo XVI el mayorazgo *Ugarte* de Portugalete tuvo algunas posesiones en este puesto fronterizo, tal y como se explica en el memorial de posesiones de esta familia: «Dos heredades de pan sembrar en Capellasolo» (1577).

Este topónimo vasco, hoy desaparecido, está compuesto del nombre o sobrenombre de persona *Kapella* y de la palabra *solo* ‘huerta, heredad’, variante occidental del estándar *soro*, y su significado es ‘la heredad de alguien llamado Kapella’. En Oñati (Gipuzkoa) hay una variante de este nombre, *Kapelasoro*¹⁴⁵, cuyas características dialectales son el mantenimiento de *-l-* sin transformarse en *-ll-*, al contrario de lo que suele ocurrir en la toponimia encartada (*Galarreta, Zabala* > *Gallarta, Zaballa*), y el uso de la palabra *soro* en lugar de *solo*.

Dokumentazioa / Documentación

CAPELLASOLO (1577) (AHMP.P-s.1, zk.36) “*Dos heredades de pan sembrar en Capellasolo, hacia el lugar de Riba, bajo el camino que va al rio Ondezaga; “Otra heredad en Capellasolo”*”.

¹⁴⁴ Mujika: 1989, XVIII, 211 or.

¹⁴⁵ Mujika: 1989, XVIII, p. 211.

Kasko, el

Herriburutza / Capitalidad del pueblo

Kontzejuaren goiko aldean kokaturiko leku hau herriburua da aspalditik. Iparraldetik, itsasora begira, *Aizpuru* laborantza-gunea du mugakide, hegoaldetik *Galindo* aldea, ekialdetik *San Pedro* eta mendebaldetik *Las Llanas* lekua.

Antzina leku hau mahastiz beteriko nekazaritza-gune bat izan zen, «las actuales Camporras, el Casco y las laderas de Galindo eran viñedos»¹⁴⁶, hura baitzen garai hartan herrian ekoizten zen produkturik garrantzitsuen. Halaber, bazegoen iturburu bat, *La Fuente de Sestao* (1645) izenaz ezaguna, dorretxearen ondoan zegoena, gaurko musika-kioskoa dagoen tokian¹⁴⁷, eta bere ondoan *Los Albergues de la Fuente* (1769). *Albergue* hitza *alberque* izenaren aldaera da eta berau *alberca* substantiboarena eta 'uharka' esan nahi du.

Era berean, herriko lehenengo janari denda ere, *La Abacería* (1761) deitua, aurkintza honetan jarri zuten. Eta urte gutxi batzuk geroago bigarren *Taberna-Abacería* (1768) altxatu zuten bertan, *La Huerta* izeneko lekuan hain zuzen, hargatik XX. mendera arte etxe honi *La Casa de la Huerta* esaten zitzaion¹⁴⁸. Halaber, kontzejuko lehen udaletxea, *La Casa Consistorial*, aldi berean eskola ere zena, hemen eraiki zuten 1823. urtean.

XIX. mende hasieran, kontzejuaren erdigunea zen alderdi hau, desagertutako dorretxeaz eta hainbat basetxe sakabanatuz osaturik zegoen. 1825. urtean herrian ziren 58 baserrietako 43 hemen zeuden.

Hala ere, XIX. mendearen azken herenean hasitako industrializazioarekin herriburutza kontzejuaren beheko aldera aldatu zen, alegia, Bilbo-Santurtzi errepidera. Izan ere, alderdi honetan, Barakaldoko mugatik Portugaleterainokoa, kokatuta baitzeuden enpresa handiak eta beraiekin batera sortutako biztanlegune berriak, kasurako, *San Frantzisko*, *Aurrera*, *Rivas*, *Txabarri*, *La Iberia*... , baita bizimodu kaletarrak eskatzen dituen zerbitzuak ere bertan egon ziren. Alabaina, XX. mendeko 50-60ko hamarkadetan inguru industrial honen hirigintza-degradazioa hain zen nabarmena non prozesuak alderantzizko bidea hartu baitzuen eta gaur egun kontzejuaren herriburutza *Kasko* aldean dago ostera ere. Bertan daude gaur egun Udaletxea, 1880. urtean eraikia, eta, halaber, administrazio eta merkataritza-gune gehienak eta herriko enparantza, *Kasko Plaza*.

Halaber, leku honetan, dorretxearen inguruan, bazegoen *Los Cuatro Cantones* deitzen zen bidegurutzea eta bertan lau bide batzen ziren: *Urbina* auzora jotzen

¹⁴⁶ Mugica eta Negro, 1984: 48 or.

¹⁴⁷ Gago, 1996: I, 404 eta 408 or.

¹⁴⁸ Gago, 1996: II, 43 eta 45 or.

zuenan, *Galindo* alderdiraino iristen zena, *Abatxolo* lekutik pasatuta *Portugalete* herrira zihoana eta *Aizpuru* nekazaritzan barrena *Benedicta* eta *Portugalete* aldera heltzen zena¹⁴⁹.



Kasko plazaren irudi zaharra, musika kioskoa eta dorretxea / Imagen antigua de la plaza del Kasko, quiosco de música y casa torre

Gorago esana dugunez, hainbat baserriren kokagunea izan da toki hau, besteak beste: *La Casa Nueva* (1702) *La Casa Mayor* (1835), baita XX. mendera arte iraun zuten *Caserío Torrontegui* (1750)¹⁵⁰, *Caserío Casco*, *Caserío Castaños*, *Caserío Santa Rosa* eta *Caserío de Villar y Villate* izenekoak ere. Halaber, *La Casa de Basurto* (1932) etxea leku honetan egon zen.

Este lugar situado en la parte alta del pueblo ostenta la capitalidad del concejo desde antiguo. Sus límites son por el norte, mirando a la mar, la antigua mies de *Aizpuru*, por el sur la zona de *Galindo*, por el este el lugar de *San Pedro* y por el oeste el puesto llamado *Las Llanas*.

Antiguamente fue ésta una zona agrícola dedicada al cultivo de viñedos principalmente, «las actuales Camporras, el Casco y las laderas de *Galindo* eran viñedos»¹⁵¹, el cultivo más importante del concejo antaño. También existió un manantial llamado *la Fuente de Sestao* (1645), junto a la casa torre, en el lugar que hoy ocupa el quiosco de música¹⁵², y junto a

¹⁴⁹ Gago; 1995: 139 or.

¹⁵⁰ Gago; 1996: I, 127 or. (grafikoa)

¹⁵¹ Mugica y Negro; 1984: p. 48.

¹⁵² Gago; 1996: I, pp. 404 y 408.

ella estaban los llamados *Albergues de la Fuente* (1769). La palabra *albergue* es variante de *alberque* y ésta del sustantivo *alberca*.

Asimismo, la primera tienda de comestibles que hubo en el pueblo, llamada *La Abacería* (1761), estuvo situada en este lugar. Y unos pocos años más tarde se construyó aquí otra *taberna-abacería* (1768) en el lugar conocido como *La Huerta*, por lo que a este edificio se le conocía con el nombre de *La Casa de la Huerta*¹⁵³. También se construyó en esta zona, cerca de *San Pedro*, en el año 1823 el primer ayuntamiento del concejo o *Casa Consistorial*, que servía al mismo tiempo como escuela.

A comienzos del siglo XIX este lugar, centro del pueblo, estaba formado por la casa torre y unas cuantas casas de labranza dispersas. Así, de los 58 caseríos que había en el año 1825 en el concejo 43 estaban situados en la zona del *Kasko*.



Kasko plaza gaur egun / La plaza del Kasko actualmente

Sin embargo, con el desarrollo industrial iniciado en el último tercio del siglo XIX la capitalidad del concejo se trasladó a la parte baja del mismo, es decir, a la zona de la carretera Bilbao-Santurtzi, pues en el tramo comprendido entre el límite de Barakaldo y la linde con Portugalete estaban situadas las grandes empresas y los nuevos núcleos de población con ellas surgidos, como *San Francisco*, *Aurrera*, *Rivas*, *Txabarri*, *La Iberia* ..., y, asimismo, los servicios que el modo de vida urbano reclama. Pero, en la década de los años 50-60 del siglo XX,

¹⁵³ Gago, 1996: II, pp. 43 y 45.

cuando la degradación de este entorno industrial se hizo evidente, el proceso tomó el camino contrario y actualmente la capital del concejo es otra vez el *Kasko*, donde se encuentran tanto el actual Ayuntamiento construido en 1880 como la mayoría de los servicios administrativos y comerciales e, igualmente, la *Plaza del Kasko*, delante del Ayuntamiento, que es *la plaza del pueblo*.

Hubo en este paraje, junto a la casa torre, un cruce de caminos llamado *Los Cuatro Cantones*, donde se juntaban cuatro vías: el que iba a *Urbinağa*, el que se dirigía a *Galindo*, el que pasando por *Abatxolo* llegaba a Portugalete y el que desde *Aizpuru* se dirigía a *La Benedicta* y a Portugalete¹⁵⁴.

Como hemos dicho, la mayoría de los caseríos del pueblo estuvieron situados en este sitio, entre ellos, *La Casa Nueva* (1702) *La Casa Mayor* (1835) y, asimismo, los denominados *Caserío Torrontegui* (1750)¹⁵⁵, *Caserío Casco*, *Caserío Castaños*, *Caserío Santa Rosa* y *Caserío de Villar y Villate*, que se mantuvieron hasta el siglo XX. También la llamada *Casa de Basurto* (1932) estuvo situada en esta zona.

Dokumentazioa / Documentación

EL CASCO (1792) (AMS.LCCS) “*mil quatrocientos y cinquenta reales recibidos procedentes del vino de las tavernas de Galindo, Beurco y el Casco*”; (1825) (BFA, sign: CPII) “*Barrio Casco*”; (1879) (AMS.LAS 4) “*los colonos del Casco*”; (1891) (AMS.LAS 5) “*La Plaza del Casco*”; (1910) (RPB.T.15.FINKA Zk.651) “*Terreno en el sitio denominado el Pedazo, barrio donde llaman Casco antiguo o Casa consistorial, término de Sestao*”; (1923) (BFA, sign: AHO 13/1) “*El Casco: Huerto*”; (1927) (BFA, sign: AHO 37/1) “*El Casco: Huertas*”.

¹⁵⁴ Gago, 1995: p. 139.

¹⁵⁵ Gago, 1996: I, p. 127 (gráfico)

Koteron

Antzinako lekua / Antiguo lugar

Sorogune hau *Ondezaga* izeneko laborantzaren sarreran zegoen, *Albiz* auzotik ez urrun.

Koteron Penintsulako iparraldean oso hedaturik dagoen hitza da, ustez **kottaro* batetik eratorria, eta bere jatorria **kotto* latinaurreko forma izango litzateke (ik. *Cueto* eta *Kotorro*). Tradizionalki artikulurik gabe erabili izan bada ere, dokumentu berrienetan gaztelaniazko artikuluz horniturik agertzen da. Hitz honen esanahia ‘muino txikia’ izan daiteke. Halaber, izen hau Nafarroa aldean ere agertzen da, eta han ere antzeko esanahiarekin, ‘altua’¹⁵⁶.

Se trata de un pequeño hortal situado a la entrada de la mies de de *Ondezaga*, no lejos del barrio de *Albiz*.

Koteron es una palabra muy extendida por el norte de la Península, al parecer derivada de **cóttaro*, y cuyo origen estaría en la forma prelatina **cotto* (v. *Cueto* y *Kotorro*). Aunque tradicionalmente se ha escrito sin artículo, en los documentos más recientes aparece provisto del determinante castellano. El significado de esta palabra podría ser el de ‘colina pequeña’. Asimismo, esta palabra también se registra en la zona de Navarra con un significado muy parecido como es el de ‘alto’¹⁵⁷.

Dokumentazioa / Documentación

COTERÓN (1734) (BFA, sign: JCR 333/4) “*Una heredad en el término de Coteron*”; (1768) (AHMP.At.E.K.6, zk.7).

“*Lazaro de Mendoza: una heredad en el puesto que llaman de Coteron y mies de Ondejaga*”; (1864) (RPB.T.1.FINKA Zk.55) “*Una heredad en el sitio de Coteron, término de Santa María de Sestao*”; (1928) (RPB.T.24.FINKA Zk.1039) “*Rústica, heredad en el sitio conocido por Coterón, en la entrada a la mies de Ondegeda, término de Sestao*”.

EL COTERÓN (1933) (AMS.LAS 29) “*autorizar (...) construir una chavola (...) en terrenos denominados el Coterón*”.

¹⁵⁶ Echevarría, 1999: 42-43 or.

¹⁵⁷ Echevarría, 1999: pp. 42-43.

Kotorro, el

Antzinako lekua / Antiguo lugar

Cueto eta *Rebonza* artean zegoen soroarte hau eta bere mugakideak ziren *Okillo* izeneko laborantza iparraldetik eta *La Sierra* lekua hegoaldeetik.

Laborantza-esparru honetan egon ziren kokaturik *La Heredad del Cotorro* (1864) soroa, *La Cerrada del Contorro* (1865) barrendegia eta *la Campa del Cotorro* (1869) izeneko landa, besteak beste.

Kotorro hitzaren osagaiak bi dira, bata *Koto*, **kotto* latinaurreko formatik eratorria, eta bestea *-ro* mespretxuzko atzizkia, latinaurrekoa hau ere¹⁵⁸. Esanahiari dagokionez, hitz honi hainbat adiera egotzi zaizkio, ‘gailurra’, ‘mendixka’ edo ‘amildegi bateko hegala’ besteak beste. Bestalde, autore batzuen iritziz *Kotorro* euskarazko *kotor* ‘harkaitz’ izenarekin erlazionaturik legoke¹⁵⁹.

Halaber, Enkarterri aldeko Karrantza herrian hain zuzen, *kotorro* izenaren aldaerak diren *Cotorrio* edo *Cotorrío* ere egon badaude¹⁶⁰. Alabaina, eskualde honetan ez ezik Euskal Herriko beste lekuren batean ere dokumentatzen da toponimo hau, esaterako Ikaztegieta herrian (Gipuzkoa), euskal testuinguru batean, *Kotorro* baserri izena dugu, baita *Kotorrogaztainadi* eta *Kotorroazpia* (1849) forma konposatuak ere¹⁶¹. Azkenik, toponimo hau erdal artikuluz horniturik zein hura gabe agertzen da.

Este lugar hortal estaba situado entre *Cueto* y *Rebonza* y sus límites eran por el norte la mies de *Okillo* y por el sur el lugar llamado *La Sierra*.

En este pequeño espacio agrícola estuvieron ubicadas la *Heredad del Cotorro* (1864), el cercado llamado *La Cerrada del Contorro* (1865) y la titulada *Campa del Cotorro* (1869).

Este topónimo está compuesta del nombre *koto*, derivado de la forma prelatina **cotto*, y el sufijo prelatino despectivo *-ro*¹⁶², también prelatino. Por lo que se refiere al significado, a esta palabra se le han adjudicado varias acepciones, entre ellas ‘otero’, ‘altozano’ o, también, ‘ladera de un barranco. Además, al parecer de algunos, el nombre *Kotorro* podría estar relacionado con el nombre vasco *kotor* ‘peña’¹⁶³.

Asimismo, en el otro extremo de las Encartaciones, en Karrantza, también se documentan las variantes *Cotorrio* o *Cotorrío*¹⁶⁴. Y fuera de esta comarca, este topónimo también aparece

¹⁵⁸ Lapesa, 1942: 44 or.

¹⁵⁹ Hubschmid, 1960-1967: ELH I, 40 or.

¹⁶⁰ Echevarría, 1999: 43 or.

¹⁶¹ Mujika, 1989: XV, 213 eta 214 or.

¹⁶² Lapesa, 1942: p. 44.

¹⁶³ Hubschmid, 1960-1967: ELH I, p. 40.

¹⁶⁴ Echevarría, 1999: p. 43.

en alguna otra zona de Euskal Herria, por ejemplo en Ikaztegieta (Gipuzkoa), zona plenamente euskaldun, donde tenemos *Kotorro* (caserío) y los compuestos *Kotorrogaztainadi* y *Kotorro-azpia* (1849)¹⁶⁵. Por último, apuntar que el nombre aparece tanto con el artículo masculino castellano como sin él.

Dokumentazioa / Documentación

COTORRO (1864) (RPB.T.1.FINKA Zk.54) “*Una heredad en el sitio de Cotorro*”.

EL COTORRO (1835) (AHPB.PN.Esp.Clemente de Urioste.Sign: 2314) “*Otra heredad Vajo el Cotorro en la misma Mies de Oquillo*”; **(1864)** (RPB.T.1.FINKA Zk.25) “*Una heredad conocida con el nombre del Cotorro, término de Santa María de Sestao (...) confina por el sur con camino bajada al Desierto*”; **(1925)** (RPB.T.21.FINKA Zk.810) “*Campa que antes fue heredad (...) en el punto llamado Mies de Oquillo, al noroeste de la Cerradura del Cotorro*”; **(1932)** (RPB.T.27.FINKA Zk.1178) “*heredad campa en el Cotorro frente al depósito de Aguas, término municipal de Sestao*”.

Izenaren aldaerak / Variantes del nombre

EL CONTORRO (1865) (RPB.T.1.FINKA Zk.87) “*Una heredad de pan sembrar radicante en Sestao y punto de la Mies de Oquillo al noroeste de la Cerrada del Contorro*”.

EL COTORRIO (1924) (BFA, sign: AHO 19/1) “*Cotorrio: Heredad*”.

¹⁶⁵ Mujika, 1989: XV, pp. 213 y 214.

Labariega

Antzinako lekua eta auzoa. Gaurko kalea /Antiguo lugar y barrio. Actual calle

Okillo izeneko laborantzan egon zen leku hau, kontzejuaren beheko aldean, *Rebonza* eta *Txabarri* arteko magalean hain zuzen. Herriaren iparraldean kokatutako toki honek *Venta del Gallo* alderdia zuen mugakide mendebaldetik eta *El Patronato* izeneko ikastetxe desagertua ekialdetik. Antzina ia Ibaizabal aldeko paduretara ino iristen zen eta industrializazio garaian bertan ipinitako *AHV* faktoria zuen aurrean. Prozesu honekin batera herriaren urbanizazioa ere martxan jarri zen eta egun Bilbo-Santurtzi errepidean dagoen *Txabarri* kalea *Labariega* alderdikoak izandako lurretan ireki zuten: «casa sita en el punto de la Bariega, hoy Chávarri» (1884). Gaur kale honen atzeko partean dagoen kaleka baizik ez da.

Eremu zabal hau soroz eta mahastiz beteriko nekazaritza-gune bat izan zen XX. mendera arte. Izan ere, bertan egon ziren, besteak beste, *Heredad Lavariaga* (1635), *Viña la Bariega*, «Otro terreno viña llamado la Bariega» (1883), eta *Huerta Bariega* (1925) izendatutako lursailak.

Esana dugun moduan, herriaren industrializazioak biztanleriaren hazkunde ikaragarria ere ekarri zuen eta ondorioz leku hau, Bilbo-Santurtzi errepidearen ondoko alderdi osoa bezala, laster populatu zen. Hori dela eta, 1922ko dokumentazioan auzo bezala agertzen da: *El Barrio de Labariega*.

Izenaren jatorriari dagokion aldetik, litekeena da, beste kasu batzuetan bezala, hitz-hasierako *O-* bokalaren aferesia edo galera gertatu izana, jatorrizko izen osoa **Olabarriaga* izaki. Adibidez, Sopuerta (Bizkaia) herriko *Labarrieta* eta *Labarri* (Araba) leku-izenek ere *O-* bokala galdu dute, jatorrizko izenak *Olabarrieta* eta *Olabarri* direla, hurrenez hurren¹⁶⁶. Gainera, *O-* erorita, erdal hitzunen artean hitzaren hasierako *La-* silaba gaztelaniaren artikuluaekin nahasteko joera dago eta berau kendutakoan *Bariega* moduko forma sortu zen. Egun izendapen ofiziala *Labariega* da.

Beraz, esandakoaren arabera, *Olabarriaga* toponimoak hiru osagai ditu, *Ola* izena, *barri* adjektiboa eta *-aga* leku-atzizkia, eta bere esanahia ‘ola berria dagoen lekua’ edo ‘ola berria’.

Paraje situado en la mies llamada de *Okillo*, en la ladera entre *Rebonza* y la calle *Txabarri*. Situado al norte del concejo, sus límites eran por el oeste el lugar denominado *La Venta del Gallo* y por el este el desaparecido colegio *El Patronato*. Antiguamente llegaría casi hasta las marismas del Ibaizabal y más tarde, durante la industrialización, tuvo enfrente la factoría de *AHV*. A la par con este proceso también se puso en marcha la urbanización del pueblo y cuando se abrió la actual calle de *Txabarri*, situada en la carretera Bilbao-Santurtzi, se hizo en terrenos que habían pertenecido al lugar de *Labariega*: «casa sita en el punto de la Bariega, hoy Chávarri» (1884). Actualmente es una pequeña calle en la trasera de *Txabarri*.

¹⁶⁶ Mujika, 2008: I, 223 or.

Desde antiguo y hasta el siglo XX fue éste un puesto agrícola donde predominaban heredades y viñedos. Allí estuvieron entre otros los terrenos titulados, *Heredad Lavariaga* (1635), *Viña la Bariega*, «Otro terreno viña llamado la Bariega» (1883), y *Huerta Bariega* (1925).

Como ya hemos dicho, la industrialización del municipio supuso asimismo un espectacular crecimiento de la población y este lugar, como toda la zona situada junto a la carretera Bilbao-Santurtzi, se pobló rápidamente. Así, en la documentación de 1922 ya aparece citado como *Barrio de Labariega*.

Este nombre, como en otros tantos, ha sufrido probablemente la aféresis o pérdida de la vocal inicial *O-*, siendo el nombre completo **Olabariaga*. Es el caso de *Labarrieta*, en Sopuerta (Bizkaia) y del topónimo *Labarri* (Araba), cuyas formas originales son *Olabarieta* y *Olabari*, respectivamente¹⁶⁷. Además, tras perder la *o-*, entre hablantes castellanos se tiende a confundir la sílaba inicial de la palabra, *La-*, con el artículo castellano, surgiendo así variantes como *Bariega*. Hoy la denominación oficial es *Labariega*.

Así pues, el topónimo *Olabariaga* está compuesto del nombre *Ola* 'ferrería', el adjetivo *barri* 'nuevo' y el sufijo locativo *-aga* y su significado es, por tanto, 'el lugar donde está la ferrería nueva' o 'la ferrería nueva', sin más.

Dokumentazioa / Documentación

LAVARIAGA (1635) (BFA, sign: JCR 1202/16); **(1635)** (BFA, sign: JCR 1202/16) "*otra heredad que llaman Lavariaga*".

LABARIEGA (1815) (AHPB.PN.Esp.Clemente de Urioste.Sign: 2296) "*doy en arrendamiento a Andres de la Flor vecino de Sestao dos heredades de tierra labrante y sierra (...) la una llamada la Rotura de Rebonza y la otra en el sitio de Labariega jurisdicción del propio concejo*"; **(1922)** (RPB.T.18.FINKA Zk.243) "*Urbana, dos casas en el Barrio de Labariega, término de Sestao*".

LA BARIEGA (1865) (RPB.T.1.FINKA Zk.84) "*heredad de pan sembrar radicante en Sestao y punto denominado Mies de Oquillo, reconocido por la Bariega*"; **(1913)** (RPB.T.16.FINKA Zk.681 eta 682) "*lote de terreno sito en el punto de la Bariega, término de Sestao, que linda al oeste con terreno de la fundación católica de Escuelas y Patronato de Obreros de Bilbao*"; **(1932)** (RPB.T.28.FINKA Zk.243.Kop.) "*Dos casas en el barrio de la Bariega, del Concejo de Sestao*"; **(1940)** (RPB.T.30.FINKA Zk.1242 eta 1243) "*trozo de terreno en la Bariega, término de Sestao*".

LABARREGA (1883) (RPB.T.3.FINKA Zk.243) "*Un terreno situado en el sitio que llaman Labarrega, término de Sestao*".

BARIEGA (1889) (RPB.T.6.FINKA Zk.249) "*Finca urbana sita en el término del Concejo de Sestao llamada Bariega*"; **(1929)** (BFA, sign: AHO 19/1) "*Bariega: Huerto. Terreno*".

¹⁶⁷ Mujika, 2088: I, p. 223.

Larretategi

Desagertutako oinetxea / Casa solariega desaparecida

Etxe honi buruzko lehenengo datuak Bizkaiko Batzar Nagusietako artxiboan erregistratu ziren 1696an, Tomás de Otalorruchi Del Alisal Echevarri Lartategui sestaoarrak jarritako bizkaitartasun eta kaparetasun-eskaera batean¹⁶⁸. Halaber, dokumentu honetan bertan beste oinetxe sestaoar bat ere aipatzen da, *del Alisal* izenekoa. Bi etxondo hauek familiaz loturik zeuden beren seme-alabak ziren Fernando del Alisal eta María de Larretategui elkarrekin ezkondu zirela. Senar-emazte hauen alaba, María del Alisal y Larretategui, *Okondo* (Araba) haraneko Otaola Urruchi-Echavarri etxondoko Francisco de Otaola Urruchi y Echevarri-rekin esposatu zen eta haien semea gorago aipatutako Tomás de Otalorruchi del Alisal eskatzailea izan zen.

1831. urtean, Madrilén bizi zen Pedro Otaola Urruchi-k jarritako bizkaitartasun aitortza-auzia zela kausa, berriro aipatzen dira sestaoar oinetxe hauek, eta baita Okondokoak ere. Agiri honen sarrera gisa, auzi-jartzailearen familiaren aipu genealogiko txiki hau agertzen da, zera dioena: «En el Valle de Oquendo había casas solares de Otaola Urruchi y de Echábarri, como en el Concejo de Santa María de Sestao las había del Alisal y Larretategui»¹⁶⁹.

Larretategi euskal toponimoa da eta bere osagaiak dira, *larre* izena, *-eta-* leku-ugaritasunezko atzizkia eta *-tegi* leku atzizkia eta kasu honetan esanahia ‘larreak dauden lekua’ edo ‘bazkalekua’ izango litzateke. Baina litekeena da *Larreta* abizena izatea, orduan *-tegi* atzizkiak ‘etxea’ adieraziko luke eta *Larretategi* izenak ‘Larreta familiaren etxea’ adieraziko luke. *Lartategi* aldaerari dagokionez, esan behar da *-e-* bokalaren sinkoparen kausa azentua dela, aurreko bokalaren galera eragin dezakeena, alegia: *Larretátegi* > *Larr(e)tátegi* > *Lartátegi*.

Los primeros datos sobre la casa *Larretategui* se registraron en el archivo de las Juntas Generales de Bizkaia en el año 1696, en una solicitud de reconocimiento de vizcainía e hidalguía presentada por el sestaoarra Tomás de Otalorruchi del Alisal Echevarri Lartategui¹⁷⁰. Asimismo, en este documento también aparece citada otra casa solariega de Sestao llamada *del Alisal*. Estas dos casas estaban unidas familiarmente pues sus hijos Fernando del Alisal y María de Larretategui formaban matrimonio, cuya hija se llamó María del Alisal y Larretategui. Esta mujer casó con Francisco de Otaola Urruchi y Echevarri, del solar alavés de Otaola Urruchi-Echavarri en el valle de *Okondo* y tuvieron por hijo al solicitante citado más arriba Tomás de Otalorruchi del Alisal.

En 1831, en un pleito sobre reconocimiento de vizcainía que pone Pedro de Otaola Urruchi, vecino de Madrid, se vuelven a citar estas dos casa solariegas sestaoarras, así como

¹⁶⁸ Carrandi, 1958: 1913; 587 or.

¹⁶⁹ Basanta, 1927: 326 or. eta hurrengoak.

¹⁷⁰ Carrandi, 1958: 1913, p. 587.

las de *Okondo*. En este documento, a modo de entrada, se hace una pequeña reseña de la genealogía del peticionario, que dice así: «En el Valle de Oquendo había casas solares de Otaola Urruchi y de Echábarri, como en el Concejo de Santa María de Sestao las había del Alisal y Larretategui»¹⁷¹.

El nombre *Larretategui* está compuesto por el sustantivo *larre* 'prado', el sufijo locativo-abundancial *-eta-* y el sufijo *-tegi*, que expresa 'lugar', y, por tanto, su significado sería 'lugar de prados o pastizal'. Pero cabe la posibilidad de que *Larreta* sea un apellido, en este caso *-tegi* podría tener el valor de 'casa' y *Larretategi* significaría 'la casa de la familia Larreta'. Por lo que atañe a la variante *Lartategui*, seguramente la síncopa de *-e-* se deba al acento, que puede provocar la pérdida de la vocal pretónica: *Larretátegi* > *Larr(e)tátegi* > *Lartátegi*.

Dokumentazioa / Documentación

CASA SOLARIEGA LARRETATEGUI (1831) "*había casas solares en el Concejo de Santa María de Sestao (...) del Alisal y Larretategui*".

Izenaren aldaerak / Variantes del nombre

CASA SOLARIEGA LARTATEGUI (1696) (BFA, sign: GENEALOGÍAS Err.Zk.22.Gen.398)

¹⁷¹ Basanta, 1927: p. 326 y ss.

Lero, el

Antzinako lekua / Antiguo lugar

Ez dakigu non zegoen kokaturik leku hau, soilik laborantza-gune txiki bat zela eta, kontzejuko toki askotan bezala, hemen ere *llosa* bat zegoela, alegia, nekazaritza-gune itxi bat.

Gaur egungo gaztelanian oso gutxi erabiltzen den *lero* hitza *lera* femenino kolektibotik eratorria da eta bere jatorria latinezko *glarĕa* izena da. Bestalde, forma *ll-*dunak, *llero*, *llera*, adibidez, Kantauri alderdiko dialektalismotzat jotzen dira. *Lero* hitzaren euskal baliokidea ‘harritza’ edo ‘kaskailuak dauden lekua’ izan liteke.

No sabemos dónde estaba este lugar, solamente que era un pequeño puesto agrícola y que, como en otros muchos sitios del concejo, había una *llosa*, es decir, un terreno de labranza cerrado.

Lero es una palabra castellana prácticamente en desuso, derivada del nombre colectivo femenino *lera* y cuyo origen está en la voz latina *glarĕa*. Por otra parte, las formas con *ll* inicial, como *llero*, *llera*, se consideran un dialectalismo de la zona cantábrica. El significado de esta palabra es ‘cantizal’ o ‘cascajal’.

Dokumentazioa / Documentación

EL LERO (1660) (AHMP.At.F.K.29, zk.17) “*Inventario de bienes de Pedro de Uriarte (...) otra tierra baga do llaman el Lero*”; **(1666)** (AHMP.At. F.K.20, zk.1) “*Maria de Durañona vende: (...) otra (llosa) en el puesto llamado el lero*”; **(1712)** (AHPB.PN.Sign: 7073/7-B) “*declaro que en dicha memoria la dicha mi muger mande a Thomas de Sarria mi hijo una heredad de tierra baga en el puesto de lero de dicho Conzejo*”.

Izenaren aldaerak / Variantes del nombre

EL LLERO(1728) (AHMP.At.E.K.11, zk.54) “*Inventario y tasacion de los bienes de Antonio de Larrazabal y Maria de la Hera, vecinos del Concejo de Sestao: (...) Otra heredad en el puesto del Llero*”.

Lezama

Desagertutako baserria / Caserío desaparecido

Baserri hau 1660. urtean aipatzen da lehenengoz gure dokumentazioan eta 150 urte geroago berriro agertzen da, 1813ko udal Kontu Liburuan, hain zuzen. Agiri honetan kontzejuko zenbait lagunek bere ondasunengatik ordaindu behar zituzten zergak erregistraturik daude. Halaber, dokumentuan baserri batzuen izenak ere agertzen dira, *hacienda* izenarekin, besteak beste, *Lezama* izeneko hau. Hala ere, dokumentuak ez dio non zegoen kokaturik.

Lezama izenaren osagaiak bi dira: *leza* forma eta *-ama* atzizkia. Azken honetaz Mitxelena dio *-ama* atzizki indoeuroparrarekin erlazionaturik dagoela eta *Arama*, *Beizama*, *Ulzama*, *Zegama*... izenetan agertzen den bera dela¹⁷². L. M^a Mujikaren iritziz, berriz, *Leza* euskarazko *leza* ‘osin’ hitza bera da eta *-ama* osagaia, aldiz, atzizki zelta arkaiko bat¹⁷³.

Este caserío se cita por primera vez en nuestra documentación en el año 1660 y siglo y medio más tarde vuelve a aparecer en el Libro de Cuentas del concejo del año 1813. En este documento aparecen los impuestos que ciertos vecinos del concejo tenían que pagar por sus haciendas y también se citan los nombres de algunos caseríos, aquí denominados *haciendas*, como ésta de *Lezama*. Sin embargo no se cita dónde estaban situadas dichas propiedades rurales.

Los componentes de la palabra *Lezama* son dos: la forma *leza* y el sufijo *-ama*. Sobre este último Mitxelena dice que está relacionado con el sufijo indoeuropeo *-ama*, que aparece en nombres de población como *Arama*, *Beizama*, *Ulzama* o *Zegama*¹⁷⁴. L. M^a Mujika, por su parte, opina que *Leza* es la palabra eusquérica *leza* ‘sima’ y *-ama* un sufijo celta arcaico¹⁷⁵.

Dokumentazioa / Documentación

CASERÍA DE LEZAMA (1660) (BFA, sign: JCR 888/28) “*nuestra caseria clamada de Lecama*”; (1669) (BFA, sign: JCR 888/28) “*Cassa y caseria llamadas de Lezama*”.

CASA HACIENDA DE LEZAMA (1813) (AMS.LCCS) “*ciento setenta y cinco reales recibidos por la Casa y hacienda de Lezama*”.

¹⁷² Mitxelena, 2001: 39; 44 or.

¹⁷³ Mujika, 2088: VIII, 82 or.

¹⁷⁴ Mitxelena, 2001: 39, p. 44.

¹⁷⁵ Mujika, 2088: VIII, p. 82.

Longar

Antzinako lekua / Antiguo lugar

Dokumentaziotik ondoriozta daitekeenez, gaurko *Venta del Gallo* izeneko alderdiaren eta Ibaizabalen arteko eremuan zegoen leku hau, alegia, kontzejuaren beheko aldean. Inguru honetan *Las Heredades de la Casa de Longar* (1835) deitutako soroak egon ziren eta, halaber, pentsatzekoa da *La Casa de Longar* (1830) etxea ere bertan egongo zela, hala ere dokumentazioak ez du esplizituki adierazten.

Longar gaztelarazko hitza *luengo* adjektiboaren sinonimoa da eta latinezko *lōngus* du sorburu. Beharbada, lursail edo soro baten tamainarekin lotuta egon zitekeen edo, agian, jabearen abizenarekin. Hitz honen euskarazko parekoa 'luzea' da. Toponimoa erdal artikuluekin zein hura gabe agertzen da.

Como se puede deducir de los datos de la documentación, este lugar estuvo localizado en la zona comprendida entre la actual *Venta del Gallo* y la rivera del Ibaizabal, en la parte baja del municipio. Asimismo, en este entorno estuvieron las llamadas *Heredades de la Casa de Longar* (1835), y es de suponer que la llamada *Casa de Longar* (1830) también estaría en el mismo sitio, sin embargo la documentación no lo explicita.

Longar es una palabra castellana sinónimo de *luengo* y que tiene su origen en el adjetivo latino *lōngus*. Puede que este nombre estuviera relacionado con el tamaño de algún terreno o heredad o, quizá, con el apellido del dueño. El equivalente eusquerico de esta palabra es 'luzea'. El topónimo aparece con y sin el artículo castellano.

Dokumentazioa / Documentación

LONGAR (1794) (AHPB.PN.Esp.Clemente de Urioste.Sign: 2281) "*hipotecar todos los frutos de maiz que estan pendientes en las heredades (...) tituladas el Longar, el Balladar y las dos de la Pedriza*"; (1830) (AHPB.PN.Esp.Clemente de Urioste.Sign: 2310) "*Propiedad de La Casa de Longar*"; (1835) (AHPB.PN.Esp.Clemente de Urioste. Sign: 2314) "*la Mies de Oquillo y puesto que llaman el Valladar (...) confinando con heredades de la Casa de Longar*"; "*heredad en Aspuru teniendo sus linderos (...) con heredades de la Casa de Longar y con la Rivera*"; (1865) (RPB.T.1.FINCA N° 90) "*Un huerto arriba de la fuente (de la Rivera) llamado el Longar*; (1899) (RPB.T.12.FINKA zk 529) "*un huerto radicante parte arriba de la Fuente (de la Rivera) en el punto llamado Longar,*"; (1929) (BFAB, sign: AHO 48/1) "*Longar: Heredad*".

Loredo

Desagertutako baserria / Caserío desaparecido

1813. urteko udal Kontu Liburuan herriko zenbait lagunek bere ondasunengatik ordaindu behar zituzten zergak erregistraturik daude. Bertan baserri batzuen izenak ere agertzen dira, esaterako, *La Casa Hacienda de Loredo* izeneko hau. Hala ere, dokumentuak ez dio non zegoen kokaturik.

Gaztelaniazko *Loredo* hitza *lauredal* izenaren sinonimoa da eta latinezko *lauretum* du sorburu. Hitz honen euskarazko baliokidea ‘ereinozdi’ hitza izan liteke, alegia, ‘ereinotz edo erramuak dauden lekua’.

En el libro de cuentas del Concejo de Sestao del año 1813 están registrados los impuestos que algunos vecinos tenían que pagar por sus bienes. En el mismo, también aparecen los nombres de varios caseríos, aquí denominados *haciendas*, entre ellas la llamada *Casa Hacienda de Loredo*. No se cita donde estaba situado este caserío.

La voz castellana *Loredo* es sinónimo de *lauredal* y procede de la palabra latina *lauretum*, que significa ‘lugar poblado de laureles’.



Sestaoko baserri desagertua / Caserío desaparecido de Sestao

Dokumentazioa / Documentación

LOREDO (1813) (AMS.LCCS) “*doscientos seis reales recibidos de Ramon de Allende de La Casa y hacienda de Loredo*”.

Llanas, las

Lekua / Lugar

Herriaren goiko aldean dagoen leku hau Andra Maria elizaren eta gaurko hilerriaren arteko zabalgune bat da, izenak berak adierazten duenez, eta herrigunea den *Kasko* lekutik oso hurbil dago. Antzina hemendik pasatzen zen bideari *Avenida del Cementerio* deitzen zioten, gaur egun *Las Llanas Zumardia* du izena eta Portugalete herriko mugaraino iristen da. Mahastiak eta soloak nagusi ziren leku hau gaur egun erabat urbanizaturik dago.

Toponimo deskribatzailea da hau, dagoen lekuaren orografiari erreferentzia egiten baitio. *Llana* adjektiboa latinezko *plana* hitzetik eratorria da eta, gaztelaniaz ohikoa zenez, latinezko *pl-* hasierako kontsonante taldea *ll-* bilakatu zen, alegia, *plana(m)* > *llana*. *Las Llanas* izenaren euskarazko parekoak ‘zabaleta’ edo ‘zelaieta’ hitzak izan daitezke.



Las Llanas Zumardia kalearen ikuspegia / Vista general de la Avenida de Las Llanas

Se trata de un lugar situado en la parte alta del concejo y, como su nombre explica, es una planicie situada entre la iglesia de Santa María y el actual cementerio, muy cerca del *Kasko*, el centro del pueblo. Antiguamente al camino que pasaba por aquí se le llamaba *Avenida del Cementerio*, hoy en día denominado *Avenida de Las Llanas* y que llega hasta el límite con Portugalete. Esta zona, antaño llena de heredades y viñedos, está actualmente totalmente urbanizada.



Las Llanas zumardia / Alameda Las Llanas

En este caso estamos ante un topónimo de carácter descriptivo, pues hace referencia a la orografía del terreno en que está ubicado. La palabra castellana *llana* es derivada del latín *plana* que en su paso al castellano convierte el grupo consonántico inicial *pl-* en *ll-*: *Plana(m)* > *llana*.

Dokumentazioa / Documentación

LAS LLANAS (1642) (AHPB.PN.Esp.Gregorio Aranguren.P-s.7077/4D) “Una bina blanca en do llaman las Llanas que alinda con otras de Catalina de Elguero”; (1734) (BFA, sign: JCR 333/4) “En las Llanas de aquel Conzejo 20 haces”; (1835) (AHPB. PN.Esp.Clemente de Urioste.Sign: 2314) “Una cerrada en el puesto de Las Llanas”; (1898) (AMS.LAS 7) “punto denominado las Llanas”; (1923) (BFA, sign: AHO 13/1) “Las Llanas: Heredad”.

Llosillas, las

Antzinako laborantza lekua / Antiguo lugar de labranza

Laborantza-gune txiki bat izan zen hau, *Rebonza* aldean kokaturik zegoena. Antzina leku honetan izen bereko soro bat izan zen, «otra heredad llamada las llosillas» (1669).

Llosillas gaztelerazko hitza *llosaren* txikigarria da eta latinezko *clausa* du jatorri. Hitz honek aldakuntza batzuk jasan zituen latinetik gaztelerara pasatzean: alde batetik, latinezko *cl-* hasierako kontsonante taldea *ll-* bilakatu zen eta, beste aldetik, *-au-* jatorrizko diptongoa murriztu eta *-o-* bihurtu zen, alegia, *clausa(m)* > *llosa* > *llosa*. Izenak 'laborantza-eremu itxia' esan nahi du euskaraz eta, antza, Asturias, Burgos, Kantabria eta Bizkaia aldean erabiltzen da batik bat. Azkenik, itxitasun kontzeptu horrekin jarraituz, *llosa* hitzaren aldaera palatalizatugabea den *losa* substantiboak 'pilota-kantxa' esan nahi omen zuen Bilbo hirian¹⁷⁶.

Se trataba de un pequeño centro agrícola situado en la zona de *Rebonza*, es decir, al norte del municipio. En este lugar existió antaño una heredad del mismo nombre, «otra heredad llamada las llosillas» (1669).

Llosillas es diminutivo de *llosa* y ésta derivada del latín *clausa*. En su paso del latín al castellano esta palabra experimentó la siguiente evolución: el grupo consonántico inicial latino *pl-* se transformó en *ll-* y, además, el diptongo original *-au-* se redujo convirtiéndose en *-o-* en español, es decir, *Clausa(m)* > *llosa* > *llosa*. Este vocablo se usa sobre todo en Asturias, Burgos, Cantabria y Bizkaia y su significado es 'terreno labrantío cerrado'. Abundando en esta idea de *espacio cerrado*, la variante no palatalizada de esta palabra, *losa*, tenía en Bilbao el valor de 'cancha de pelota'¹⁷⁷.

Dokumentazioa / Documentación

LAS LLOSILLAS (1617) (BFA, sign: JCR 888/28) "*en el lugar de Rebonça llamado las Llosillas*"; **(1659)** (BFA, sign: JCR 888/28) "*en el lugar que llaman las Llosillas*"; **(1682-1689)** (AHMP.At.E.K.6, zk.5) "*Propiedades de Miguel de Ugarte en el Concejo de Sestao: (...) otra (heredad) donde llaman las llosillas*"; **(1669)** (BFA, sign: JCR 888/28) "*otra heredad llamada las llosillas*"

¹⁷⁶ Arriaga, 2001: 95 or.

¹⁷⁷ Arriaga, 2001: p. 95.

Marisketa

Antzinako lekua / Antiguo lugar

Lugintzagune txiki hau *Aizpuru* izeneko laborantzaren azpian kokaturik izan zen¹⁷⁸, alegia herriaren beheko aldean, *Ibaizabal* ondoko alderdian eta Portugalete herriko mugatik ez urrun.

Leku-izen honen jatorriari dagokionez, badago hitz-talde indoeuropar bat, *marisca*, *maresk*, *marask* eta *merisk* formez osaturik, ‘leku zingiratsua’ adierazten dutenak¹⁷⁹. Hau honela dela, *Marisketa* izenaren osakuntza *marisk* gehi *-eta*, leku-ugaritasunezko euskal atzizkia, izan liteke. Kasu honetan esanahia, ‘padurez beteriko lekua’ edo ‘padura’ izango zen. Hala ere, *-eta* erdal atzizki txikigarria ere izan liteke, orduan esangurak beste ñabardura bat hartuko luke eta ‘zingira edo padura txikia’ izango litzateke.

Pequeña vega situada en la parte baja de la mies llamada de *Aizpuru*¹⁸⁰, en la parte baja del concejo y cerca de la rivera del *Ibaizabal* y de la linde con Portugalete.

Por lo que se refiere al origen del topónimo, existe un grupo de palabras indoeuropeo, compuesto de formas como *marisca*, *maresk*, *marask* y *merisk*, relacionadas con el valor ‘lugar pantanoso’¹⁸¹. Así pues, podría ser que *Marisketa* estuviera formada por *marisk* y el sufijo vasco *-eta*, que expresa ‘lugar o abundancia’. En este caso el significado sería ‘lugar abundante en pantanos o marismas’ o, también, ‘el pantano, la marisma’. Sin embargo, también hay que tener en cuenta que *-eta* podría ser el sufijo diminutivo castellano, entonces el significado, que no variaría mucho, sería ‘pantano o marisma pequeña’.

Dokumentazioa / Documentación

MARISQUETA (1806) (AMS.LAS 1) “*una heredad cerrada en el sitio de Marisqueta, de este Concejo, parte havajo de la Casa que llaman nueva de Francisco de la Puente*”.

¹⁷⁸ Gago, 1996: I, 183 or.

¹⁷⁹ Oroz, 1971: FLV 96, 317 or.

¹⁸⁰ Gago, 1996: I, p. 183.

¹⁸¹ Oroz, 1971: FLV 96, p. 317.

Markonzaga

Auzoa / Barrio

Aurkintza hau herriko hegoaldean kokaturik dago eta antzina bere hedapena gaurkoa baino handiagoa zen, batez ere mendebaldetik. Izan ere, bere mugakideak ziren iparraldetik eta mendebaldetik *Ondezaga* laborantza lekua, ekialdetik *Aranaga* izeneko lekua eta hegoaldetik *Ballonti* erreka. Gaurko *Markonzaga* auzoak, berriz, *San Pedro* izeneko lekua eta *Bilbo-Muskiz* trenbidearen arteko eremua okupatzen du iparralde-hegoalde ardatzean, *Galindora* doan aldapan beherako ezker aldeko magalean, hain zuzen.

Kontzejuko nekazaritza-gune garrantzitsua izan zen leku honetan, *La Vega de Marconzaga* (1702) izeneko. Alor hau *Ibarzaharra* (*La Vega Vieja*) deitutako aurkintzako lurretan egon zen eta hargatik, lantzean behin, alderdi honek *Vega Vieja o de Marconzaga* izendapena ere hartzen zuen dokumentazioan. Izan ere, bertan izan ziren *La Cerrada de Marconzaga* (1743) izendatu esparrua eta *La Rotura de Marconzaga* (1830) deitutako lursaila (ik. *Roturas, Las*), besteak beste. Egun, eremu hau *Babcock Wilcox* enpresaren instalazioek okupatzen dute gehienbat.

Bestalde, izen honetako baserri bat ere izan zen, *Caserío Marconzaga* (1850), 1931. urtera arte behintzat zutik iraun zuena. Era berean, XX. mendean zehar, *La Casa del Farolero* deitutako etxe bat egon zen alderdion eta gaur egun *Casa Buenavista* (1926) izeneko etxea eta *Casa Arrindanea* (1930) etxebizitza dira goitik behera urbanizatutako auzo honetan.

Markonzaga euskal toponomioaren bi osagaiak dira *Markonza* ustezko pertsona-izena eta *-aga* leku atzizkia, pertsona izenekin ere ager daitekeena. Beraz, esanahia ‘Markonza izeneko norbaiten etxea edo lekua’ izan liteke. Gainera, antroponimoari dagokionez, esan behar da Portugalen *Margonza* bat dokumentatzen dela eta, batzuen aburuz, izen latinaurreko eusko-hispaniarra izan litekeela¹⁸². Bestalde, gure dokumentazioan *Malconza* eta *Marconza* aldaerak ere agertzen dira, *-aga* atzizkiaren galera edo murrizketarekin, herri-euskaraz sarri gertatu ohi den fenomeno.

Esta zona, situada al sur del concejo, era antiguamente más extensa que en la actualidad, sobre todo por su parte occidental. Así, sus límites eran por el norte y oeste con la mies de *Ondezaga*, por el oeste el lugar llamado *Aranaga* y por el sur el arroyo *Ballonti*. Hoy en día, el barrio de *Markonzaga* ocupa el espacio comprendido entre el lugar de *San Pedro*, al norte, y la vía del ferrocarril Bilbao-Muskiz al sur, a mano izquierda de la bajada a *Galindo*.

Fue este lugar un importante centro agrícola del concejo conocido con el nombre de *Vega de Marconzaga* (1702), situada en terrenos de la *La Vega Vieja* (*Ibarzaharra*) por lo que también se le denomina en la documentación como *Vega Vieja o de Marconzaga* (1864). Así, por ejemplo, en este sitio estuvieron los terrenos llamados *La Cerrada de Marconzaga*

¹⁸² Hubschmid, 1960-1967: ELH I, 455 or.

(1743) y *La Rotura de Marconzaga* (1830) (ik. *Roturas, Las*). Actualmente en este lugar están ubicadas las instalaciones de la empresa *Babcock Wilcox*.

Por otra parte, en este paraje estuvo situado el *Caserío Marconzaga* (1850), que en el año 1931 aún se mantenía en pie. Asimismo, durante parte buena parte del siglo pasado existió en este sitio la que se conoció como *La Casa del Farolero* y actualmente se ubican en este barrio totalmente urbanizado la titulada *Casa Buenavista* (1926) y el edificio de viviendas *Casa Arrindanea* (1930).

Los componentes del topónimo vasco *Markonzaga* son dos: el posible antropónimo *Markonza* y el sufijo locativo *-aga*, que también puede acompañar a nombres de persona. Por tanto el significado sería ‘el lugar de alguien llamado Markonza’. Además, por lo que a este nombre de persona se refiere, hay que señalar que en Portugal se registra el nombre *Margonza*, considerado por algunos como prelatino vasco-hispano¹⁸³. Por otra parte, en la documentación también aparecen las variantes *Malconza* y *Marconza*, con pérdida o reducción del sufijo *-aga*, fenómeno este habitual en el habla popular vasca.

Dokumentazioa / Documentación

MARCONZAGA (1702) (AHMP.At.F.K.27, zk.89) “*En el Conzejo de Santa Maria de Sestao. Bienes y hacienda de Bartolome de Casares (...) la Vega de Marconzaga*”; (1769) (AMS.LCCS) “*Tres reales por componer el Chimbo y Comporta de la Vega de Marconzaga*”; (1850) (BEHA.SESTAO.BATAIOAK.Sign: 3123/002-00) “*el caserío llamado Marconzaga, término de este pueblo*”; (1865) (RPB.T.1.FINKA Zk.90) “*heredad de pan sembrar donde dicen Marconzaga limita por el norte con la zanja del Chimbo y por el sur con el río Galindo*”; (1909) (RPB.T.12.FINKA Zk.633-634) “*heredad situada en Marcónzaga, del Concejo de Sestao*”.

Izenaren aldaerak / Variantes del nombre

MARCONZA (1763) (AHMP.At.F.K.33, zk.10) “*En la vega de Marconza jurisdicción del Conzejo de Sestao*”; (1768) (AHMP.At.F.K34, zk.16) “*Demando: quarenta acres y medio de la vega de Marconza*”.

MARCONZOGA (1825) (BFA, sign CP.II) “*Barrio de Marconzoga*”.

PARCÓNZAGA (1902) (AMS.LAS 10) “*arreglo de los caminos que conducen a los barrios de Galindo, Parcónzaga y Gandarias*”.

MALCONZA (1914) (AMS.FOMENTO.OBRAS.At.2.P-s.39, zk.4) “*colocación de una vía portátil (...) en el camino vecinal de Malconza*”.

¹⁸³ Hubschmid, 1960-1967: ELH I, p. 455.

Mazo, el

Antzinako lekua / Antiguo lugar

Ondezaga izeneko laborantzan zegoen leku hau, herriko hegoalderantz. Iparraldetik *Albiz* zuen mugakide eta hegoaldeetik *Galindo*, eta mendebaldetik *Riba* lekua.

Gaztelaniazko *Mazo* hitza *maza* substantibotik eratorria da eta latin arrunteko **mattëa* izena du sorburu. Toponimian izen honen esanahia ‘goragune harritsu’ izaten da eta, izan ere, leku honi *La Alta del Mazo* ere esaten zitzaion.

Lugar situado en la mies de *Ondezaga*, al sur del concejo. Por el norte limitaba con la zona de *Albiz*, por el sur con *Galindo*, y por el oeste con el lugar de *Riba*.

El sustantivo castellano *Mazo* es derivado de *maza*, procedente del latín vulgar **mattëa*. En toponimia el significado de esta palabra suele ser ‘promontorio rocoso’, acepción que nos parece idónea pues a este lugar también se le llamaba *La Alta del Mazo*.

Dokumentazioa / Documentación

EL MAÇO (1617) (BFA, sign: JCR 888/28) “*otra heredad en el Maço*”; **(1634)** (BFA, sign: JCR 1202/16) “*Otra heredad en la Mier de Ondezaga que llaman el Maço*”; **(urtea: 1659)** (BFA, sign: JCR 888/28) “*en el Maço de Ondezaga*”; **(1665)** (AHMP. At.F.K.30, zk.13) “*En el Concejo de Sestao. Ana de Romaña; vienes (...) Item otra heredad en la mier de Ondezaga y puesto que dicen el maço*”.

EL MAZO (1702) (AHMP.At.F.K.27, zk.89) “*En el Conzejo de Santa Maria de Sestao. Bienes y hacienda de Bartolome de Casares (...) Item la heredad del puesto del Mazo*”; “*Incremento en el balor de la heredad llamada el mazo*”; **(1728)** (AHMP.At.E.K.11, zk.54) “*inventario y tasacion de los bienes de Antonio de Larrazabal y Maria de la Hera, vecinos del Concejo de Sestao: (...) La heredad que se alla en la alta del mazo, mies de Ondezaga*”; “*Concejo de Sestao: En el mismo puesto (...) en el Camino del Mazo una heredad*”; **(1779)** (AHMP.At.F.K.36, zk.20) “*Hipotecamos: otra heredad en la alta del Mazo, en dicho conzejo de Sestao*”.

Mello, del

Desagertutako oinetxea / Casa solariega desaparecida

Rebonza auzoan kokatutako *Mello* oinetxe sestaoarra *Casas Solariegas de Bizkaia* izeneko liburuan aipatzen da (data barik)¹⁸⁴. Hala ere, leinu honen jatorria Santurtzi kontzejuan omen dago, *Mello* auzoan hain zuzen, bertan izen honetako etxe bat errotuta baitzegoen. Izan ere, etxondo horretako Diego del Mello santurtziarra eta Maria de Rebonza sestaoarra ezkondu egin ziren eta haien semea Cristóbal del Mello y Rebonza izan zen, Sestao herrian jaioa. Gizon honek, 1667. urtean *Orden de Santiago* izeneko erlijio-erakundeko Zalduna zenak,¹⁸⁵ Mellotarren etxondoa eraiki zuen Sestaon XVIII. mende hasieran, gerora, XIX.ean, *Caserío Rebonza y Mello* bilakatu zena¹⁸⁶ eta Errepublika garaian bota zutena.

Gaztelaniazko *Mello* hitza *maíllo* (edo *maguillo*) izenetik eratorria omen da. Batzuen iritziz hitz honen jatorria zalantzazkoa da. Hala ere, R. Lapesa espainiar linguistaren aburuz latinezko *mālus* ‘sagarrondo’ da haren sorburua. Ildo honetan, *María Moliner* hiztegiak ere ‘sagarmin’ esanahia ematen dio *Mello* hitzari.

Bestalde, Iñigo Rementeriak dioenez, *Mello* abizena jatorri sestaoarrekoa da¹⁸⁷.

Esta casa solar sestaoarra del linaje de los *Mello*, situada en el barrio de *Rebonza*, aparece citada en el libro *Casas Solariegas de Bizkaia* (sin fecha)¹⁸⁸. Sin embargo, parece ser que el origen de esta parentela está en el concejo de Santurtzi, donde radicó una casa de este nombre. Así pues, el santurtziarra y miembro de este linaje Diego del Mello casó con la sestaoarra María de Rebonza y tuvieron por hijo a Cristóbal del Mello y Rebonza, nacido en Sestao. Este hombre, que en el año 1667 era Caballero de la Orden de Santiago,¹⁸⁹ mandó construir la casa solar de los Mello a comienzos del siglo XVIII, la cual se convertiría en el XIX en el *Caserío Rebonza y Mello*¹⁹⁰, derribado en tiempos de la II República.

Mello es palabra castellana, derivada de *maíllo* (o *maguillo*) y aunque de origen incierto para algunos, para el lingüista español R. Lapesa no cabe duda de que se trata de un derivado de latín *mālus* ‘manzano’. En esta línea, en el diccionario *María Moliner* también se le da el significado de ‘manzano silvestre’.

El autor Iñigo Rementeria señala el apellido *Mello* como de origen sestaoarra¹⁹¹.

¹⁸⁴ Kerexeta, 1987: 318 or.

¹⁸⁵ A. y A. García Carraffa, 1919-1968: LV, 30 or.

¹⁸⁶ Ramos, 1997: 271 or.

¹⁸⁷ Rementeria, 2010: 116 eta 292 or.

¹⁸⁸ Kerexeta, 1987: p. 318.

¹⁸⁹ A. y A. García Carraffa, 1919-1968: LV, p. 30

¹⁹⁰ Ramos, 1997: p. 271

¹⁹¹ Rementeria, 2010: pp. 116 y 292.

Mendebal

Antzinako lekua eta gaurko kalea / Antiguo lugar y actual calle

San Pedro plazaren ondoan zegoen leku hau, hots, herriaren goiko aldean. Hala ere, gaur egun *Mendebal* izena *Kasko* aldean dagoen kale txiki batena da.

Leku honetan *Mendebal*¹⁹² deitutako baserri bat izan zen, beharbada, izenaren aldaera zaharra. Hala ere, litekeena da, J. M^a Sasiak dion bezala¹⁹³, jatorrizko forma **Mendibar* izatea, herri etimologiaz *Vendabal* bilakatua, hots, *mendibar* > *mendebal* > *mendebal*, eta honetatik *vendabal* aterako litzateke.

Este lugar estaba situado junto a la plaza de *San Pedro*, esto es, en la parte alta del pueblo. Sin embargo, actualmente *Mendebal* es el nombre de una callejuela situada en el *Kasko*.

En este lugar existió un caserío llamado *Mendebal*¹⁹⁴, probablemente la variante antigua del nombre. Pero, como dice J. M^a Sasia¹⁹⁵, podría ser que la forma original del topónimo fuera *Mendibar*, convertida en *Vendabal* por etimología popular, es decir, **mendibar* > *mendebal* > *mendebal*, y de aquí *vendabal*.

Dokumentazioa / Documentación

MENDEBAL (1816) (AMS.LAS 1) “*una denuncia cursada por Damaso de Zuazo de un guerto contiguo a la casa llamada de la Talalla que se halla al mediodía y poco de Mendebal correspondiente a este Concejo*”.

Izenaren aldaerak / Variantes del nombre

EL BENDAVAL (1761) (BFA, sign:AJO 1567/016) “*Por la parte del Bendaval*”.

EL VENDAVAL (1806) (AHPB.PN.Esp.Clemente de Urioste.Sign: 2291) “*por el Vendabal, con el camino que conduce a la Fuente y Rivera*”; (1827) (BFA, sign: JCR 3272/2) “*Por la parte del Vendabal*”.

¹⁹² Gago, 1996: I, 132 or. (argazkia). Arroyo, 1998: 30 or. (argazkia).

¹⁹³ Sasia, 2000. *EUSKERA*, 47. zk, 571 or.

¹⁹⁴ Gago, 1996: I, p. 132 [foto]. Arroyo, 1988: p. 30 [foto].

¹⁹⁵ Sasia, 2000: *EUSKERA*, nº 47, p. 571.

Mendieta

Lekua / Lugar

Goragune hau gaurko hilerriak okupatzen duen eremuan dago, kontzejuko goiko aldean, eta Portugalete herriko mugatik hurbil. Mendebaldetik *Abatxolo* auzoa du mugakide, hegoaldeetik *Ondezaga* aldeko laborantza-gunea, ekialdetik *Albiz* auzoa eta iparraldetik *Las Llanas* izeneko zumardia.

Leku hau zaintzarako eta defentsarako gunea izan zen aspaldi, izan ere, 1793. urtearen inguruan *El Fortín* izeneko gotorleku txikia eraiki baitzuten. Bertatik zelatatu egiten zuten «...toda la parte de la Ría perteneciente a la jurisdicción de Sestao»¹⁹⁶. Karlistaldietako kroniketan ere aipatu egiten da leku hau, hemen Portugaleten kokatutako etsaiei erasotzeko bateriak jarri baitzituzten. Halaber, bolborategi bat zegoen leku honetan *El Polvorín* (1875) izenaz ezagutu zena.

Bestalde, nekazaritzan aritutako gunea ere izan zen hau eta bertan *La Heredad Mendieta* (1632) izeneko soroa egon zen. Eta askoz beranduago, alderdi honen eta *Albiz* auzoaren artean kokatutako harrobi bat ustiatuko zen: «Cargo: (...) por el importe de la piedra que saco en el Alto de Mendieta trescientos sesenta y ocho reales» (1866).

Euskal toponimo argi honek bi osagai ditu: bata *mendi* hitza eta bestea *-eta* toki-ugaritasunezko atzizkia eta, lekuaren arabera, bere esanahia da, 'leku menditsua, gaina' edo 'mendia'. Izan ere, alderdi honi *La Alta* edo *El Alto de Mendieta* esaten zitzaion.

Se trata de un promontorio situado en el solar que hoy ocupa el cementerio, en la parte alta del pueblo, cerca de la frontera con Portugalete. Sus límites son por el oeste el barrio de *Abatxolo*, por el sur la mies de *Ondezaga*, por el este el barrio de *Albiz* y por el norte la *Alameda de Las Llanas*.

Fue éste un lugar de vigilancia y defensa, donde en el año 1793 edificaron un pequeño fuerte llamado *El Fortín*, desde el que se podía observar «...toda la parte de la Ría perteneciente a la jurisdicción de Sestao»¹⁹⁷. También en las crónicas sobre las carlistadas se cita este altozano, pues aquí se colocaron unas baterías con las que hostigar al enemigo situado en la vecina Portugalete. Asimismo, hubo un edificio para almacenar explosivos conocido como *El Polvorín* (1875).

Por otra parte, antaño fue un puesto agrícola, donde estuvo *La Heredad Mendieta* (1632), y mucho más tarde se explotaría entre este sitio y el barrio de *Albiz* una cantera: «Cargo: (...) por el importe de la piedra que saco en el Alto de Mendieta trescientos sesenta y ocho reales» (1866).

El conocido topónimo y apellido vasco *Mendieta* está compuesto del sustantivo *mendi* 'monte' y del sufijo *-eta*, que expresa 'lugar' o 'abundancia', y su significado es 'lugar de

¹⁹⁶ Gago, 1996: I, 43, 72, 105, 155 eta 186 or.

¹⁹⁷ Gago, 1996: I, pp. 43, 72, 105, 155 y 186.

montes' o, simplemente, 'el monte, el alto'. Y precisamente a este lugar también se le denominaba *La Alta* o *El Alto de Mendieta*.

Dokumentazioa / Documentación

MENDIETA(1577) (AHMP.P-s.1, zk.36) “*Ytem otra heredad (...) en el lugar de Mendieta azia la parte de Galindo*”; **(1636)** (BFA, sign: JCR 1202/16) “*otra heredad de pan sembrar en la Mier de Aspuro do dizen Mendieta*”; **(1788)** (AHMP. t.F.K.24, zk.1) “*Concurso y división de bienes (...) por Antonio y Josepha de Larrazabal: (...) Otra heredad de la parte de halla del puesto de Hazeta, debajo del que llaman Mendieta termino y jurisdizion del Conzejo de Santa María de Sestao*”; **(1866)** (AMS.ACTAS DE PLENOS) “*Cargo: (...) por el importe de la piedra que saco en el Alto de Mendieta trescientos sesenta y ocho reales*”; **(1931)** (BFA, sign: AHO 58/1) “*Mendieta: Heredad*”; **(1940)** (AMS. LAS 34) “*construcción de una chavola en terreno situado en la parte llamada el Alto de Mendieta*”.



Mendietako eskola zaharra / Antigua escuela de Mendieta

Mendoza

Desagertutako oinetxea / Casa solariega desaparecida

Etxalde sestaoar honi buruzko lehenengo datuak Bizkaiko Batzar Nagusietako artxiboan erregistratu ziren 1793. urtean, bizkaitartasun eta kaparetasun-eskaera batean¹⁹⁸ eta eskatzailea zen Francisco Antonio de Antoniano Santortun Esla Mendoza, Portugaleten jaioa.

Oinetxe hau non kokaturik zegoen segurtasun osoz ezin esan bada ere, litekeena da 1787. urtean *Abatxolo* aldean dokumentatzen den *Mendoza* izeneko baserria eta etxe hau eraikin bera izatea.

Izen honen jatorriari eta esanahiari dagokien aldetik, Mitxelena ustez *Mendoza* euskal izen konposatua da eta haren osagaiak *mendi* izena, *(h)otz* adjektiboa eta *-a* artikulua dira, bere esanahia ‘mendi hotza’ delarik¹⁹⁹. Hala ere, berrikiago, P. Salaberri Zaratiegi irakasleak bere desadostasuna agertu du iritzi honekin, arrazoi morfologikoa dela kausa.

Hizkuntzalari honek argudiatzen du *mendi* hitzak toponimian ez duela azkeneko *-i* galtzen bere atzetik adjektibo bat daramanean, alegia, *Mendizabal*, *Mendizorrotza*, *Mendigorria*, etab. Beraz, *Mendoza* ezin denez *mendi* eta *(h)otza* osagaien batuketaren ondorioa izan, Salaberrik antroponimiara jotzen du izenaren jatorria argitzearren. Bere ustez, *Mendozaren* sorburuan bi elementu daude: *Ventuitius* izen latindarra eta *-ana* atzizkia, ‘jabetza’ adierazten zuena eta *villa* izeneko biztanlegune bati erreferentzia egin ohi ziona²⁰⁰. Beraz, elkartze honen emaitza **(villa) ventuitiana* da eta *Mendoza* bihurtu arteko bere bilakaera hauxe izan zitekeen: **Bentuitiana* > **Bentutjana* (sabaikarien disimilazioaz) > **Bentotjana* (ustezko *u* bokal laburra ireki eta *o* bihurtu) > **Bentotzana* (*tj* > *tz* txistukaritzeaz, toponimoa euskaraz sartu baino lehenago gertatu fenomeno) > **Mendotzâa* (pausu honetan *â* bokalak sudurkaritasuna asimilatu egiten du, sudurkari osteko leherkari gorra ahostun egiten da eta bokalen arteko *-n-* kontsonantea galtzen da) > **Mendotza* (sudurkaritasunaren galeraz eta *-âa* > *-a* murrizketaz) > *Mendoza* (azkengoz, ustezko *-tz-* *-z-* bihurtzen da gaztelaniaren eraginaz)²⁰¹. Hortaz, azaldutakoaren arabera, *Mendoza*, izenaren jatorrizko esanahia ‘Ventuitius izeneko norbaiten jabetza’ izan zitekeen.

Los primeros datos sobre esta casa solariega sestaoarra se registraron en el Archivo de las Juntas Generales de Bizkaia, en el año 1793, en una solicitud de vizcainía e

¹⁹⁸ Carrandi, 1958: 150 or.

¹⁹⁹ Mitxelena, 2001: 438; 128 or. eta 512; 144 or.

²⁰⁰ Caro; 1990; 90 eta 91 or.

²⁰¹ Salaberri, 2012. FLV 115, 323 eta 324 or.

hidalguía²⁰², donde el solicitante era Francisco Antonio de Antoniano Santortun Esla Mendoza, nacido en Portugaleta.

Aunque no se pueda afirmar con toda seguridad dónde estaba situada el solar de los *Mendoza*, creemos que el caserío del mismo nombre que se registra en el año 1787 en la zona de *Abatxolo* y esta casa solariega son el mismo edificio.

En lo referente al origen y significado de este nombre, en opinión de Mitxelena *Mendoza* está compuesto del sustantivo *mendi*, que quiere decir ‘monte’, el adjetivo (*h*)otz ‘frío’ y el artículo *-a*, es decir, ‘el monte frío’²⁰³. Sin embargo, recientemente el profesor P. Salaberri Zaratiegi ha mostrado su desacuerdo con esta opinión por motivo de tipo morfológico.

Este lingüista argumenta que, dado que el sustantivo *mendi* en toponimia no pierde la *-i* cuando lleva detrás un adjetivo, *Mendi-zabal*, *Mendi-zorrotza*, *Mendi-gorria*, etc., *Mendoza* no puede ser consecuencia de la unión de *mendi* y (*h*)otza y propone la vía antroponímica para aclarar el origen de este topónimo. Así, en su opinión, *Mendoza* tiene como base dos elementos: uno el nombre latino *Ventutius* y el otro el sufijo *-ana*, que expresaba ‘propiedad’ y solía hacer referencia a un núcleo rural de población denominado *villa*²⁰⁴. El resultado de esta composición es **(villa) ventutiana*, forma que hasta convertirse en *Mendoza* sufre la siguiente evolución, *ventutiana* > **Bentutjana* (por disimilación de palatales) > **Bentotjana* (con apertura de *u* en *o*) > **Bentotzana* (con asibilación *tj* > *tz* ocurrida antes de la entrada del topónimo en euskara) > **Mendotzaa* (con asimilación de nasalidad, sonorización de la oclusiva sorda y pérdida de nasal intervocálica *-n-*) > **Mendotza* (con reducción *-aa* > *-a*) > *Mendoza* (con el paso del supuesto *-tz-* a *-z-*, por castellanización del topónimo)²⁰⁵. Así pues, podríamos decir que el significado de *Mendoza*, según se ha descrito, sería ‘la (villa) propiedad de alguien llamado Ventutius’.

Dokumentazioa / Documentación

CASA SOLARIEGA MENDOZA(1793) (BFA, sign: GENEALOGÍAS.Err. Zk.134.Gen.1595).

²⁰² Carrandi, 1958: p. 150.

²⁰³ Mitxelena, 2001: 438, p. 128 y 512, p. 144.

²⁰⁴ Caro, 1990; pp. 90 y 91.

²⁰⁵ Salaberri, 2012. FLV, 115, pp. 323 y 324.

Okillo

Antzinako nekazaritza-gunea eta auzoa. Gaurko kalea / Antigua zona agrícola y barrio. Actual calle

Kontzejuaren ipar-magalean kokaturiko nekazaritza-gune zabal hau herriaren goiko aldetik beheko aldera zihotan. Hegoaldetik *Rebonza* eta ia *Kaskoa* lekuen arteko eremua hartzen zuen eta iparraldetik *Labariega* tokitik *Venta del Gallo* izenekoraino luzatzen zen (gaurko Bilbo-Santurtzi errepidetik zehar hain zuzen), alderdi honetatik Ibaizabal ondoko hondartzetaraino iristen zela.

XVII-XVIII. mendeetan kontzejua hiru nekazaritza eremu nagusitan banaturik zegoen, gaztelaniazko *mier* / *mies* izenaz izendatzen zirenak, *Okillo*, *Aizpuru* eta *Ondezaga*. *Mier* hitzak ‘uzta’ esan nahi badu ere, *Enkarterri* aldean duen esangura ‘laborantza-eremu zerratua’ izaten da, *Cerradura de Oquillo* (1782) eta *Barrera de Oquillo* (1812) esapideek aditzera ematen dutenez (ik. *Aizpuru*).

Lugintza-leku honetan egondako lursailak ziren, besteak beste, *Heredad La Zerradilla* (1714) izenekoak, *Heredad de las Ánimas* (1835) sorogunea eta *Heredad Los Carrasquillos* (1864) deitua, hauek guztiak *Venta del Gallo* eta *Labariega* dermioen artean. Baita *La Huerta Vieja* (1868) ortua, *Heredad la Mayor* (1872) eta *Heredad la Chiquita* (1877) soroak ere.

Herriaren hirigintza prozesuarekin alderdi zabal hau eraikinez betetzen hasi zen, batez ere Bilbo-Santurtzi errepidearen ondoko gunea, bertan langileentzako etxe ugari egin baitziren, eta 1895. urterako lekua *Barrio de Oquillo* izendapenez agertzen da dokumentazioan. Halaber, 1928 eta 1931. urteen arteko kontzejuko hiri-antolamenduko Plan Orokorrean pentsatuta zegoen *Okillo* (baita *Cueto* eta *Albiz* ere) herriko zabalguneeetako bat izango zela, langileentzako etxe-eskasiari aurre egiteko asmoz.

Auzo honetan egon zen XX. mende erdira arte *El Callejón de la Bomba* kaleska, honela deitua bertan bere barruan ur-bomba bat zuen erakin bat zelako. Halaber, *La Casa de Baños* (1920) udal bainuetxea, *La Casa Nueva del Francés* (1931) eta *Villa Primitiva* (1937) izenekoak ere hemen izan ziren. Gaur *Villa Consuelo* (1939) deitutako etxeak bertan dirau. Hala ere, egun *Okillo* kale txiki bat baino ez da.

Erdal jatorrizko izena dela dirudi eta bere osagaiak bi izan litezke, *auca*, jatorri zeltako hitza, ‘landetxea, baserria’ esan nahi omen duena, eta gaztelaniazko *-illo* atzizki txikigarria. Esate baterako, Gernika aldean (Bizkaia) *Oka* leku-izena dugu, *auca* hitzaren monoportongaziotik eratorria izango litzatekeena²⁰⁶.

Este importante núcleo agrícola situado en la ladera norte del concejo iba desde la parte alta del pueblo a la zona baja. Por el sur comprendía la zona que va de *Rebonza hasta*

²⁰⁶ Galmes de Fuentes, 2000: 27 or.

casi el Kasko, y por el norte iba desde el lugar de *Labariega* a la *Venta del Gallo*, por la actual carretera Bilbo-Santurtzi, llegando por este parte hasta las playas que formaba el Ibaizabal.

Durante los siglos XVI-XVIII el espacio agrícola del concejo estaba dividido en tres grandes zonas llamadas *mier* o *mies*, *Okillo*, *Aizpuru* y *Ondezaga*, y aunque la palabra castellana *mier* significa ‘cosecha’ o ‘acción de cosechar’, en las Encartaciones tiene la acepción de ‘espacio agrícola cerrado’ como indican las expresiones *La Cerradura de Oquillo* (1782) y *La Barrera de Oquillo* (1812) (v. *Aizpuru*).

En esta mies estuvieron los cultivos llamados, *Heredad La Zerradilla* (1714), *Heredad de Las Ánimas* (1835) y *Heredad Los Carrasquillos* (1864), todos ellos situados en la zona baja del pueblo, en la zona de *La Venta del Gallo-Labariega*. Asimismo, también estuvieron aquí *La Huerta Vieja* (1868), la llamada *Heredad la Mayor* (1872) y *Heredad la Chiquita* (1877).

Con la urbanización del municipio esta amplia zona comenzó a llenarse de edificios, sobre todo la parte situada junto a la carretera Bilbo-Santurtzi, lugar donde se construyeron gran cantidad de viviendas obreras, y para el año 1895 el lugar aparece ya denominado como *Barrio de Oquillo*. Además, en el Plan General de ordenación urbana de los años 1928 y 1931 *Okillo* (junto a *Cueto* y *Albiz*) estaba contemplado como uno de los ensanches del pueblo, que diera solución al problema de la falta de viviendas para los trabajadores.

Aquí estuvo hasta mediados del siglo pasado el *Callejón de la Bomba*, así llamado porque en él había un edificio que albergaba en su interior una bomba de agua. Asimismo, la *Casa de Baños* y las tituladas *Casa Nueva del Francés* (1931) y *Villa Primitiva* (1937) también estuvieron ubicadas en esta zona. Y a día de hoy aún permanece en este zona la denominada casa *Villa Consuelo* (1939). Actualmente *Okillo* solo es una pequeña calle del concejo.

Sobre el origen del topónimo *Okillo*, podría tener como componentes la palabra *auca*, de origen celta y que querría decir ‘casa rural, cortijo’, y el sufijo diminutivo castellano *-illo*. Así, el nombre de lugar *Oka*, en la zona de Gernika (Bizkaia) sería el derivado monotongado de la palabra *auca*²⁰⁷.

Dokumentazioa / Documentación

OQUILLO (1665-68) (AHMP.At.F.K.30, zk.13) “*En el Concejo de Sestao. Ana de Romaña; vienes (...) una heredad de pan sembrar do dicen Oquillo*”; (1782) (AMS.LCCS) “*Cargo (...) cinco días (...) en retirar la pared de la Zerradura de Oquillo*”; (1895) (BEHA. SESTAO.BATAIOAK.Sign: 3135/001/00) “*Serapio (...) Nació en el barrio de Oquillo, número diez*”; (1932) (RPB.T.28.FINKA Zk. 802) “*Heredad sita en el término de Oquillo, término municipal de Sestao*”.

²⁰⁷ Galmes de Fuentes, 2000: p. 27.



Gaurko Okillo kalea / Actual calle de Okillo

Izenaren aldaerak / Variantes del nombre

HOQUILLO (1645) (AHMP.At.F.K.30, zk.3) “*Memoria de bienes de Pedro de Alaxo y Marisantos de Bartolome, su mujer (y otros) del Conzejo de Santa Maria de Sestao (...) otra heredad de tierra baga en do dizen hoquillo*”.

OQUILLU (1717) (AHMP.At.F.K.31, zk.11) “*en el puesto de Oquillu, jurisdizion del dicho Conzejo de Sestao*”; (1828) (BFA, sign: ESTADÍSTICAS TERRITORIALES. Err.Zk.4.P-s.2) “*Divisiones del territorio del pueblo llamadas Secciones: Oquillu, Ortubeico, Bega de Uhagon, Harbinaga...*”.

EL OQUILLO (1913) (AMS.LAS 19) “*parcela de propiedad privada en Vista Alegre y en el punto conocido por el Oquillo*”.

URQUILLO (1922) (RPB.T.20.FINKA Zk.759) “*Faja de terreno en Sestao, en la mies de Urquillo y sitio del Argomal*”.

EL OJILLO (1923) (BFA, sign: SESTAO 196/9) “*dos propiedades radicantes en este término municipal, sitas en el punto del Ojillo, conocidas por la Chiquita y la Mayor*”; (1925) (BFA, sign: AHV 671/15) “*Una heredad sita en el punto del Ojillo, término del concejo de Sestao*”.

Ondexar

Antzinako nekazaritza-gunea / Antigua zona agrícola

Leku hau soro-sail bat izan zen eta *La Mier de Ondexar* (1577) izena ere hartzen zuen. Hala ere, ez dakigu non egon zen kokaturik.

Gure iritziz, *Ondexar* leku-izena hurrengo sarrerako *Ondezaga* formarekin erlazonaturik dago eta, halaber, bi toponimo hauek *ondeza* hitza dute oinarritzat, gaztelania zaharreko *fondeza* ‘sakontasun’ substantibotik eratorria dena. Beraz, *Ondexar* leku-izenaren osagaiak bi izango lirateke: bata *ondexa* hitza eta *-ar* amaiera. Kontuan harturik *ondexa* hitzak erdal plurala ere ametitzen duela (kasurako, *ondexas de la Vega Nueva*), era berean pentsa genezake *-ar* atzizkia ‘ugaritasuna’ edo ‘zerbait dagoen lekua’ adierazten duen gaztelerazko *-al* atzizki kolektiboaren aldaera dela (*pinar / pinal, espinal / espinar* bezala). Izan ere gazteleraz bada *hondonal* ‘sakosta’ esan nahi duen substantibo bat. Beraz, ustezko honetan *Ondexar* hitzak ‘sakonune edo sakonera’ adieraz lezake.

Hala ere, beste alde batetik, euskal bidetik hain zuzen, litekeena da *Ondexar* hitzaren osagaiak **ondexa* eta *za(h)ar* izatea eta haplologia-kasu bat gertatu izana, alegia, bokal berak dituzten silaba biren murrizketa, hau da, **Ondeza za(h)ar > *ondexa-sar > ondexar*. Kasu honetan esanahia, noski, ‘ondexa zaharra’ izango litzateke.

Fue una zona de heredades, que también recibía el nombre de *Mier de Ondexar* (1577). Sin embargo no sabemos dónde estaba situado este lugar.

SIMÓN DROGAS(1903) (AMS.SESIONES SUBSIDIARIAS) “*El Sr. Sanz indica hallarse en muy malas condiciones higiénicas el sótano de la casa llamada de Simón Drogas*”;(1918) (BFA, sign: SESTAO 195/128) “*Por último, se apunta la conveniencia de aislar la tubería general de la tubería de desagüe de la antigua tejería de Simón Drogas*”; (1922) (BFA, sign: SESTAO 208/15) “*El que suscribe solicita permiso para prolongar 4 metros una chavola existente en el Barrio de Simón Drogas*”; (1938) (AMS.LAS 32) “*se vuelve a insistir en las reiteradas infracciones respecto de la obligación del pago de Arbitrios Municipales se cometen en el llamado Puente de Simondrogas, de la vía del ff.cc.*”.

Tallada, la

Antzinako lekua / Antiguo lugar

Ez dakigu zehaztasun osoz leku honen kokapena zein izan zen. Hala ere, dokumentazioaren arabera, beharbada *Okillo* izeneko laborantzako aldirietan egon zitekeen, «una heredad sita y notoria en el propio concejo (...) que pega al camino que desde el sitio llamado la Tallada se dirige por la mies de Oquillo» (1806).

Gaztelaniazko *Tallada* hitza *tallar* aditzaren partizipio femeninoa da, latin arrunteko *taleare* ‘ebaki’ aditzetik eratorria. Bere esanahia, haitz edo arroka bati buruz esanda, ‘bertikalki ebakia eta horma moduko bat egiten duena’ da.

No sabemos con seguridad dónde pudo estar ubicado este lugar. Sin embargo, a juzgar por la información ofrecida por la documentación, es posible que estuviera en las cercanías de la mies de *Okillo*, «una heredad sita y notoria en el propio concejo (...) que pega al camino que desde el sitio llamado la Tallada se dirige por la mies de Oquillo» (1806).

La palabra castellana *Tallada* es el participio femenino del verbo *tallar*, derivado del latín vulgar *taleare* que quiere decir ‘cortar’. Su significado es, referido a una roca o una peña, ‘cortada verticalmente y que forma como una pared’.

Dokumentazioa / Documentación

LA TALLADA (1806) (AHPB.PN.Esp.Clemente de Urioste.Sign: 2291) “*una heredad sita y notoria en el propio concejo (...) que pega al camino que desde el sitio llamado la Tallada se dirige por la mies de Oquillo*”.

Txabarri

Kalea / Calle

Herriaren industrializatzearekin sortutako kale hau kontzejuko iparraldean dago, Bilbo-Santurtzi errepidearen ertz-ertzean, eta industrialdearen ondoan. Mendebaldetik Portugalete udaleko mugaraino iristen da eta ekialdetik *Rivas* kalearekin batzen da *Labariega* alderdian. Víctor Chávarri Salazar enpresari eta politikoa izan zenari dedikatua dago.

Enpresa handiak ezarri zirenean, haietatik hurbil hainbat eta hainbat etxe eraiki ziren kanpotar langileentzat eta, kinka honetan, Udalak etxebizitza berrion ingurua urbanizatu behar izan zuen, herriko lehenengo kaleak irekiz, *Rivas* eta *Txabarri*. Izan ere, 1900. urteko kontzejuko populaziorik gehiena *Txabarri* eta *Rivas* kaleetan eta *Urbina* auzoan kontzentratzen zen.

Kale honetan, *Venta del Gallo* eta *Azeta* lekuen arteko zatian hain zuzen, 1795. urtean eraikia omen zen *Caserío Quindós* izeneko baserria egon zen, XX. mendera arte zutik iraun zuena. Baita etxe mordo bat ere, besteak beste, *La Casa de Tablas* (1882), *Casa Ellacuría*, *La Casa Grande*, *La Casa de Lopategui* (1915), *Las Casas de Vildosola* (1918) deiturikoak, *Casa de Flaño* (1926), *Casa Miramar* (1927) eta *La Casa del Ingeniero*.

Halaber, *La Fuente de la Salud* (1906) izeneko iturria ere alderdi honetan egon zen, *El Patronato* izeneko ikastetxe desagertuaren atzean.

Txabarri euskal abizena *Etxabarri*-tik eratorria da. Hasierako *E-* bokalaren galera nahiko hedaturik dago Enkarterri aldeko toponimian. Hainbat testuingurutan, *E-* hori *Etxabarri* izenaren aurretik doan erdarazko *de* preposizioaren bokalarekin nahastu egiten da eta, modu honetan, *de Etxabarri* esatetik *de' Txabarri* esatera pasatzen da. Gero, *de* kendutakoan, *Txabarri* geratzen da.

Esta calle surgida con la industrialización está situada al norte del concejo, en el mismo borde de la carretera Bilbao-Santurtzi. Por el oeste llega hasta la misma linde con Portugalete y por el este limita con la calle de *Rivas* a la altura del lugar de *Labariega*. Está dedicada al que fue empresario y político Víctor Chávarri Salazar.

Cuando se instalaron las grandes empresa en el pueblo, se edificaron cerca de ellas numerosas casas para los trabajadores foráneos. Con la creación de estas viviendas el Ayuntamiento se vió obligado a urbanizar la zona, surgiendo las primeras calles del concejo, *Rivas* y *Txabarri*. De hecho, hacia el año 1900 la mayor parte de la población sestaoarra se concentraba en la zona que forman las calles de *Txabarri* y *Rivas* y el barrio de *Urbina*.



Txabarri kalea / Calle Chávarri

En esta calle, entre *La Venta del Gallo* y *Azeta*, se encontraba el llamado *Caserío Quindós*, construido probablemente hacia 1795 y que permaneció en pie hasta el siglo XX. Asimismo, aquí estuvieron ubicadas los edificios conocidos como *La Casa de Tablas* (1882), *Casa Ellacuría*, *La Casa Grande*, *La Casa de Lopategui* (1915), las denominadas *Casas de Vildosola* (1918), *La Casa de Flaño* (1926), *Casa Miramar* (1927) y *La Casa del Ingeniero*.

También existió en esta zona la llamada *Fuente de la Salud* (1906), que estuvo situada detrás del desaparecido colegio *El Patronato*.

Txabarri es un nombre vasco derivado de *Etxabarri*. La pérdida de *E* inicial en esta palabra está bastante extendida en la toponimia de las *Encartaciones*. En muchos casos esta *E* suele confundirse con la de la preposición castellana *de* cuando ésta va delante del nombre *Etxabarri*, así, de decir *de Etxabarri* se pasa a pronunciar *de Txabarri*. Luego, al retirar la preposición la forma resultante es *Txabarri*.

Dokumentazioa / Documentación

CHÁVARRI (1884) (RPB.T.4.FINKA Zk.267) “*Urbana casa sita en el punto de la Bariega, hoy Chávarri*”; (1897) (BEHA.SEStAO.BATAIOAK.Sign: 3135/002/00) “*Teofilo es hijo legítimo. Nació en la Calle de Chavarri, número treinta y uno*”; (1920) (AMS.LAS 23) “*terrenos en la parte zaguera de la calle de Chávarri, cercanos a la Casa de Lopategui*”; (1924) (BFA, sign: AHO 19/1) “*Chavarri: Heredad*”.

Txinbo, el

Antzinako auzoa / Antiguo barrio

Auzo hau *Urbina* eta *Desertu* artean zegoen, azken leku honetako hondartzatik hurbil. Herriaren ipar-ekialdean kokaturiko leku honek Ibaizabal zuen mugakide mendebalde eta iparraldetik eta hegoaldeetik, aldiz, *Urbina* auzoa eta *Galindo* ibaia.

Kontzejuko beste leku batzuetan legez, hemen ere bazegoen ubide-sistema bat ortuei ura egiteko, baita ureztapen-putzu bat ere, *txinboa* deitzen zutena eta alderdiari izena eman ziona. 1867. urtean inguru honetako etxe multzoa auzo bezala dokumentatzen da: «los barrios Arbinaga y el Chimbo».

Gainera, aurkintza honetan, *Desertuko* paduren eta hondartzaren ondoan²⁶⁶, *La Casa del Chimbo* izeneko etxea izan zen, 1732. urtean fraide karmeldarrek eraikitakoa. Halaber, *Caserío El Chimbo* (1922) deitutako baserria ere auzo honetan egon zen.

Txinbo euskal izenak duen esanahia da ‘ureztatzeko ur-biltegia’.

Este barrio estaba entre *Urbina* y el *Desierto*, cerca de la playa de este lugar. Situado al noreste del pueblo, limitaba por el oeste y el norte con el Ibaizabal y por el sur con el barrio de *Urbina* y el río *Galindo*.



Txinbo baserria / Caserío del Txinbo

²⁶⁶ Gago, 1996: I, 462 or. (grafikoa).

Como en otros sitios del concejo, también aquí hubo un sistema de canales para hacer llegar el agua a las huertas y, también, un depósito de agua para el riego, el *Txinbo*, de donde le viene el nombre al lugar. Para el año 1867 el grupo de casas ubicadas en este entorno ya aparece documentado como barrio: «los barrios Arbinaga y el Chimbo».

En esta zona, junto a las marismas y playa del *Desierto*²⁶⁷, existió la llamada *Casa del Chimbo*, construida en 1732 por los frailes carmelitas. También estuvo situado en este barrio el conocido como *Caserío El Chimbo* (1922).

Txinbo es una palabra vasca que significa 'depósito de agua para el riego'.

Dokumentazioa / Documentación

EL CHIMBO (1770) (AMS.LCCS) “*Treinta y quatro reales gastados en el repaso del Chimbo de la Bega que da acia el molino de Arbinaga*”; (1867) (BFA, sign: ARO 2767/3) “*los barrios Arbinaga y el Chimbo*”; (1873) (AMS.ACTAS DE PLENOS) “*se nombra comisionado por el barrio de Veurcu, Arbinaga, Chimbo y Desierto a José María Oruesagasti*”; (1923) (RPB.T.20.FINKA Zk.257) “*casa en el Barrio de Urbinaga del Concejo de Sestao, sitio conocido por el Chimbo*”; (1925) (BFA, sign: AHO 25/1) “*Chimbo: Término*”.

EL CHINVO (1806) (AMS.LAS 1); (1906) (BFA, sign: AQO 121/484) “*Un incendio en la casa (...) titulada el Chinvo*”.

²⁶⁷ Gago, 1996: I, p. 462 (gráfico).

Urbina

Antzinako auzoa / Antiguo barrio

Alderdi hau herriko ekialdean dago, *San Nikolas* penintsula txikiaren ondoan eta Barakaldetik hurbil. Hegoaldetik *Galindo* ibaia du mugakide eta Ibaizabal iparraldetik. Mendebaldetik, Bilbo-Santurtzi errepidetik jarraituz, *Rivas* kalea du mugakide.

Kontzejuaren landa-garaian auzo honetan *La Vega de Urbina* (1787) deitzen zuten laborantza-gunea izan zen, XX. mende hasiera arte dokumentatzen zen dermioa. Halaber, *Ibarberria* izendatu alderdi paduratsua ondoan, *El Juncal de Urbina* (1864) izeneko ihitza egon zen.

Bestalde, alderdia industria-gune garrantzitsua izan zen antzinatik, meatzaritzarekin erlacionatutako dermioak erakusten dutenez, *las Venas de Urbina* (1830) meatokia, *El Depósito de Urbina* (1839) indusketa-gunea, baita *Mina Cesárea* (1882) izenaz erregistratutako meatzea ere. XIX. mende erdira arte, erauzitako mea *La Canal de Urbina* izeneko ubidetik zehar garraiatzen zen Ibaizabalen egondako *Puerto de Urbina* izeneko kargalekuraino. Garai hartan mineralen garraio gintzan aritutako hiru portu izan ziren Ibaizabalen ibilguan: *Bilbo*, *Urbina* eta *Asuakoak*, azkena errearen eskumaldean. Haietan garrantzitsuena *Bilboko* izan arren, *Urbina*koa ere ez zen gutxiagokoa, izan ere, 1832. urtean bere moiletan Bilbokoetan beste karga-kopuru mugitu zen²⁶⁸. Ez dakigu noiz desagertu zen zamatze-toki hau baina 1839. urtean jardunean jarraitzen zuen.

XIX. mende amaiera eta XX.aren hasiera arteko industrializazio-aldian hirigunea kontzejuaren beheko partera aldatu zen, hots, Ibaizabalen paraleloan doan Bilbo-Santurtzi errepide aldera. Izan ere, *Urbina-Txabarri-Rivas* alderdian, fabriken inguruan, makina bat etxe eraiki ziren eta *Urbina*, langile-auzo jendetsua bihurtu zen. Bizimodu kaletarrak eskatzen dituen zerbitzuak ere zonalde honetan jarri ziren: adibidez, epaitegia, kartzela (XIX. mende bukaera arte parrokiaren zegoena), eskolak, tren-geltokia, dendak, tabernak eta gainontzekoak.

Auzo honetan kokatutako etxeak ziren, besteak beste, *La Casa de Sagardi* (1881), *La Casa de Garay* (1881) eta *Casa Astondoa* (1889).

Urbina euskal leku-izenaren osagaiak bi dira: *Urbina* hitza eta *-aga* leku-atzizkia. Oraintsu arte pentsatu izan da gehienbat *Urbina* izena, ñabardurak ñabardura, *ur* hitzetik eratorria zela eta bere esanahia, besteak beste, ‘uren (ibaien) bilgunea’ izan litekeela.

Gaur egun, berriz, P. Salaberri Zaratiegi²⁶⁹ euskaltzainak antroponimia hartu du azalbidetzat eta, bere ustez, *Urbina* izenaren jatorrian bi elementu daude: *Urbinus*

²⁶⁸ Rilova, 2013, 78 or. (Internet)

²⁶⁹ Salaberri, 2012. FLV 115, 346 or.

antroponimioa eta *ana-* atzikia, ‘jabetza’ adierazten zuena eta, halaber, *villa* izeneko biztanlegune bati erreferentzia egin ohi ziona (ik. *Mendoza*). Elkartze honen emaitza *(*villa*) *urbinana* da eta euskaraz honako bilakaera hau izango zuen: *(*villa*) *urbinana* > **UrbiNáa* > **Urbinaa* > *Urbina*. Azpimarratzekoa da eboluzio honetan, euskaraz arrunta denez, bokalen arteko *-n-* kontsonantea galdu egiten dela, baina soilik bigarrena; *-N-*, berriz, mantendu egiten da *á* bokalak asimilatu sudurkaritasunak indartuta gertatzean.

Hortaz, *Urbina* leku-izenaren esanahia ‘*Urbinus* izeneko baten *villa* edo jabetza dagoen lekua’ izan liteke.

Lugar situado al este del pueblo, junto a la pequeña península de *San Nicolás* y no lejos de Barakaldo. Limita por el sur con el río *Galindo*, por el norte con el Ibaizabal y por el oeste, siguiendo la carretera Bilbao-Santurtzi, con la calle *Rivas*.

En la época rural del concejo existió en este barrio un espacio agrícola de cierta importancia denominado *La Vega de Horbinaga* (1787), que todavía se documentaba a principios del siglo XX, y, también, cerca de las marismas de la llamada *Vega Nueva*, el titulado *Juncal de Urminaga* (1864).

También fue una zona industrial desde antiguo, sobre todo relacionada con la actividad minera, como indican términos como *las Venas de Urbina* (1830), *El Depósito de Urbina* (1839), que era una zona de excavaciones, y la titulada *Mina Cesárea* (1882). El mineral se transportaba a través de *La Canal de Urbina* (1839) hasta los cargaderos del *Puerto de Urbina*, situado en el Ibaizabal. En aquella época existía tres puertos en el curso del Ibaizabal dedicados al transporte de minerales, el de *Bilbao*, el de *Urbina* y el situado en *Asua*, en la margen derecha de la ría. Aunque el más importante de ellos era el de *Bilbao*, el de *Urbina* no iba a la zaga en lo que al movimiento de material se refiere. De hecho, en el año 1832 en los muelles de este puerto sestaoarra se movió tanta cantidad de carga como en los de *Bilbao*²⁷⁰. No sabemos cuando desapareció este puerto pero en 1839 todavía continuaba en activo.

En el período de industrialización comprendido entre finales del siglo XIX y comienzos del XX, el centro del pueblo se desplazó a la parte baja, es decir, a la zona de la carretera Bilbao-Santurtzi donde se concentraban las fábricas y la mayoría de la población, y *Urbina* se convirtió en un populoso barrio obrero. Aquí se instalaron el Juzgado, la cárcel del pueblo (que hasta finales del XIX había estado en la parroquia), escuelas, estación de ferrocarril, tiendas, bares y demás servicios propios de un modo de vida urbano.

Igualmente, en este lugar estuvieron situadas las denominadas *Casa de Sagardi* (1881), *Casa de Garay* (1881) y *Casa Astondoa* (1889).

Urbina es un nombre vasco formado por la palabra *urbina* y el sufijo de lugar *-aga*. Hasta muy recientemente se ha considerado, con diferentes matices, que *Urbina* era un derivado de *ur* ‘agua’ y que su significado podía ser, entre otros, el de ‘(lugar) de confluencia de dos ríos’.

²⁷⁰ Rilova, 2013, p. 78. (Internet)

Sin embargo, actualmente el académico de Euskaltzaindia P. Salaberri Zaratiegi²⁷¹ opina que *Urbina* tiene origen antroponímico, basado en el nombre de persona *Urbinus* y el sufijo *-ana*, que expresaba ‘propiedad’ y solía hacer referencia a un núcleo rural de población denominado *villa* (v. *Mendoza*). El resultado de esta composición es (*villa*) *urbinana*, que en euskara habría tenido la siguiente transformación: **(villa) urbinana > *UrbiNâa > *Urbinâa > Urbina*. Hay que resaltar que en esta evolución la consonante intervocálica *-n-* se pierde, como es normal en euskara, pero en este caso solo la que va en segunda posición, pues la *-N-*, reforzada por la nasalidad asimilada por la vocal *â*, se mantiene.

En consecuencia, el significado del topónimo *Urbina* sería ‘el lugar donde está la propiedad o *villa* de alguien llamado *Urbinus*’.

Dokumentazioa / Documentación

URBINAGA (1769) (AMS.LCCS) “*Sesenta reales costaron las guardas y visitas del Zirujano donde se halla el cadaver de un Pobre que murio en Urbinaga*”; **(1773)** (AMS.LCCS) “*Cargo (...) Yt. Tres reales y medio a Sebastia de Castaños por cuidar de el Chinbo de Urbinaga*”; **(1830)** (BFA, sign: YBARRA 2098/5) “*Borrador para tener razón de las Benas de Urbinaga en el año 1830*”; **(1839)** (BFA, sign: MINAS 3) “*algunos vecinos del Concejo de Sestao sacan (mineral) de la canal del punto titulado Urbinaga y se introducen también en la Playa próxima al Desierto*”; **(1877)** (RPB.T.2.FINKA Zk.179) “*Una casa sita en el barrio de Urbinaga*”; **(1889)** (BFA, sign: ARO 169/19) “*el Horno de la Plaza de Urbinaga*”; **(1907)** (AMS.LAS 15) “*Informe (...) sobre la limpieza de la playa de Urbinaga*”; **(1931)** (BFA, sign: FOMENTO. Urtea 1931. Esp.246/31) “*autorización para la ejecución de las obras de la nueva estación de Urbinaga*”; **(1940)** (AMS.LAS 34) “*El Sr. Amiano se refiere a la trasera de las casas de la calle de Rivas que dan vista al andén de la estación de Urbínaga*”.

Izenaren aldaerak / Variantes del nombre

ORBINAGA (1744) (BFA, sign: JUNTAS DE AVELLANEDA.T.13, 2.Parte) “*y abiendo vuelto desde este paraje astta el sitio que llaman Orbinaga*”; **(1815)** (BFA, sign: JCR 66/30) “*En el sitio titulado Orbinaga, frente a las cercas del Desierto*”; **(1848)** (BEHA. SESTAO.HILDAKOAK.Sign: 3127/004/00) “*di sepultura a un cadaver al parecer ahogado que apareció en la orilla y junto al Camino de Orbinaga*”.

HORBINAGA (1787) (AHMP.At.F.K38, zk.5) “*Pedro de Salcedo vecino de Sestao (...) puse demanda a Pedro de Zuazo, vecino de dicho Concejo, por el importe de cincuenta y tres aces y medio de terreno que trabaja del común en la vega de Horbinaga*”; **(1799)** (AMS.

²⁷¹ Salaberri, 2012. FLV 115, p. 346.

LCCS) “Ytem mil ciento cincuenta y ocho reales que quedaban a beneficio del Concejo por balor de venas sacadas en horbinaga”; “cobranza de venas sacadas en horbinaga”.

ORVINAGA (1815) (BFA, sign: JCR 66/30) “En dicho sitio de Orvinaga”; “desde el sitio de Orvinaga”

URVINAGA (1831) (AMS.LAS 2).

URMINAGA (1864) (RPB.T.1.FINKA Zk.66) “Un terreno inculto titulado el Juncal sito en Urminaga, término de Santa Maria de Sestao”.

URVIÑAGA (1865) (RPB.T.1.FINKA Zk.86) “punto denominado Urviñaga”.



Urbinagako plaza desagertua / Antigua plaza de Urbinaga

Urkijo

Antzinako baserria / Antiguo caserío

1813. urteko udal Kontu Liburuan herriko zenbait lagunek bere ondasunengatik ordaindu behar zituzten zergak erregistraturik daude. Bertan baserri batzuen izenak ere agertzen dira, *hacienda* izendapenaz; besteak beste, *Urkijo* izeneko hau dago. Izena, segur aski, jabearen abizena da. Hala ere, dokumentuak ez dio non zegoen kokaturik.

Urkijo euskal izena *Urkizu*-ren aldaera da eta bi osagai ditu, *urki* (*Betulla*) zuhaitz izena eta ugaritasuna adierazten duen *-jo* atzizkia, *-zu* estandarraren aldaki belarizatua. Bere esanahia da ‘urki asko dagoen lekua’.

En el Libro de cuentas del Concejo del año 1813 están registrados los impuestos que algunos vecinos tenían que pagar por sus bienes. También aparecen los nombres de varios caseríos, aquí llamados *hacienda*, entre ellas la llamada *Hacienda de Urkijo*. El nombre, seguramente, será el apellido del dueño. No se cita donde estaba situado este caserío.

El nombre vasco *Urkijo*, es variante de *Urkizu* y tiene dos componentes, el nombre de árbol *urki* (*Betulla*), que quiere decir en euskara ‘abedul’, y el sufijo *-jo*, variante velarizada del estandar *-zu*, que expresa ‘abundancia’. Su significado es ‘lugar poblado de abedules’.

Dokumentazioa / Documentación

LA HACIENDA DE URQUIJO (1813) (AMS.LCCS) “*por trescientos setenta y cuatro reales recibidos de Maria de Mendoza por su parte de la Acienda de Urquijo*”.



Sestaoko Murua baserria / Caserío Murua de Sestao

Urtetegi

Antzinako auzoa / Antiguo barrio

Ez dakigu zehaztasun osoz non zegoen leku hau, baina dokumentaziotik ondorioztatu daitekeenez agian gaurko *Venta del Gallo* eta Ibaizabal arteko alderdian egon zitekeen, alegia, herriaren beheko aldean, hain zuzen, «(en el) puesto que llaman el Valladar (...) confinando con heredades de la Casa de Longar» (ik. *Longar, El*).

Antzina mahasgintzan jardundako lekua izan zen hau, bertan baitzen *La Viña Ortitegui* (1665) izeneko mahastia, baita *La Casa de Urtitegui* (1702) baserria ere. Eta han sortutako etxe multzoa auzo bezala dokumentaturik agertzen da jadanik 1762. urtean, «un horno pegante a la dicha casa con dos bodegas en el Barrio de Urtetegi».

Urtetegi toponimoa euskarazko hitz eratorria da eta hiru osagai ditu. Alde batetik, *ur* izena eta *-te* atzizkia ditugu, *urte* ‘uholdea’ hitza osatzen dutena, eta bestetik, *-tegi* ugaritasun eta leku atzizkia. Hortaz, *Urtetegi* leku-izenaren esangura ‘uholdeen tokia’ izan liteke.

Izenak aldaera fonetiko askotxo ditu, baina *Urtegui* aldakiaren kasuan, hain zuzen, badirudi *-tegi* eta *-egi* arteko zalantza dagoela, edo, beharbada, haplologia-kasu bat, hots, bokal berak dituzten silaba biren murrizketa: *-te-te-* > *-te-*, alegia, *Urtetegi* > *Urtegi*.

Azkenik, Iñigo Rementeria idazleak dioenez *Ortitegi* / *Ortitegui* (sic) abizena sestaoar jatorrikoa dela²⁷².

No sabemos con exactitud dónde se encontraba este barrio, pero por los datos que ofrece la documentación pudo haber estado junto al «puesto que llaman el Valladar (...) confinando con heredades de la Casa de Longar», es decir, en la zona comprendida entre la actual *Venta del Gallo* y la rivera del Ibaizabal, en la parte baja del municipio (v. *Longar, El*).

Antaño, en esta zona dedicada al cultivo de vides, estuvo la titulada *Viña Ortitegui* (1665), y, asimismo, el caserío llamado *La Casa de Urtitegui* (1702) con sus tierras. Ya para el año 1762 el grupo de casas formado en este lugar aparece citado en la documentación como *Barrio de Urtetegi*.

El topónimo *Urtetegi* es un nombre vasco que tiene tres componentes. Por una parte, el nombre *ur* ‘agua’ y el sufijo *-te*, que forman la palabra *urte*, cuyo significado es ‘inundación’, y, por la otra, el sufijo abundancial y de lugar *-tegi*. Por lo tanto el significado de *Urtetegi* sería ‘lugar de inundaciones’.

El nombre tiene muchas variantes fonéticas, pero en el caso de *Urtegui* parece que haya vacilación entre los sufijos *-tegi* y *-egi* o, quizá, un caso de haplología, es decir, la reducción de dos sílabas que tienen las mismas vocales a una: *-te-te-* > *-te-*, esto es, *Urtetegi* > *Urtegi*.

²⁷² Rementeria, 2010: 129 eta 292 or.

Digamos por último, que según el autor Iñigo Rementeria *Ortitegi / Ortitegui* (sic) es apellido de origen sestaoarra²⁷³.

Dokumentazioa / Documentación

URTETEGUI (1617) (BFA, sign: JCR 888/28) “*En el otro lugar de Sestao que arrima con casas del lugar de Urtetegui*”; (1762) (AHPB.PN.Esp.Matías de Villar.P-s.7056) “*un horno pegante a la dicha casa con dos bodegas en el Barrio de Urtetegui*”; (1835) (AHPB. PN.Esp. Clemente de Urioste.Sign: 2314) “*Un huerto donde titulan Urtetegui*”.

Izenaren aldaerak / Variantes del nombre

URTETIGUI (1645) (AHMP.At.F.K.30, zk.3) “*Memoria de bienes de Pedro de Alaxo y Marisantos de Bartolome, su mujer del Conzejo de Santa Maria de Sestao (...) en el lugar de Urtetigui, la casa en que bibia*”; (1702) (AHMP.At.F.K.27, zk.89) “*En el Conzejo de Santa Maria de Sestao. Bienes y hacienda de Bartolome de Casares (...) Item el guerto de la Casa del puesto de Urtetigui*”; (1806) (AHPB.PN.Esp.Clemente de Urioste.Sign: 2291) “*Un cuarto de casa en el sitio de Urtetigui de dicho concejo de Sestao*”.

ORTITEGUI (1659) (BFA, sign: JCR 1961/1); (1665-1668) (AHMP. At.F.K.30, zk.13) “*En el Concejo de Sestao. Ana de Romana; vienes (...) Item la biña que llaman Ortitegui*”; (1877) (RPB.T.2.FINKA Zk.178) “*Un pequeño huerto en el sitio de Ortitegui*”; (1923) (BFA, sign: AHO 13/1) “*Ortitegui: Huerta*”.

HURTETEGUI (1734) (BFA, sign: JCR 333/4) “*un huerto que llaman el término de Hurtetegui en el dicho Conzejo*”.

URTEGUI (1826) (BFA, sign: JCR 3272/2) “*la Casa de Urtegui*”; (1827) (BFA, sign: JCR 3272/2) “*Ytem otra casa con dos bodegas en el varrio de Urtegui*”.

URTITEGUI (1827) (BFA, sign: JCR 3272/2) “*Otra casa con bodega en el mismo varrio de Urtitegui*”.

ORTELEGUI (1889) (RPB.T.6.FINKA Zk.178) “*Un huerto al sitio de Ortelegui*”.

OTETIGUI (1905) (RPB.T.2.FINKA Zk.615) “*Rústica. Terreno huerta titulado el Longar sito en el punto llamado Otetigui del Concejo de Sestao*”; (1926) (BFA, sign: AHO 31/1) “*Otetigui: Heredad*”.

ORTETEGUI (1924) (BFA, sign: AHO 19/1) “*Ortetegui: Huerta*”; (1929) (BFA, sign: AHO 48/1) “*Ortetegui: Heredad*”.

ORTOTEGUI (1926) (RPB.T.22.FINKA Zk. 894 eta 895) “*Un terreno huerto en el sitio de Ortotegui, del Concejo de Sestao*”.

²⁷³ Rementeria, 2010: pp. 129 y 292.

Urtubeko

Antzinako lekua / Antiguo lugar

Herriko hegoaldean kokatuta zegoen gunea hau, seguruenik *San Pedro* eta *Markonzaga* artean, *Borreaga* izeneko lekuaren gainean. Mendebaldetik *Galindo* aldera doan jaitsieraren inguruan egongo zen eta ekialdetik *La Sierra* deitutako aldea zuen mugakide.

Urtubeko euskal toponimoaren osagaiak bi dira: alde batetik *urtu* hitza, *ortu* izenaren aldaera, (*Ortusaustegi* / *Urtusaustegi* edo *Ortu-ondoa* > *Urtundua*, bezala)²⁷⁴, eta beste aldetik, *-beko*, euskara estandarreko *-beheko* izenlagunaren aldakia. Beraz, *Urtubeko* leku-izenaren esanahia da, ‘ortuko beheko partea’.

Lugar ubicado al sur del municipio, seguramente entre *San Pedro* y *Markonzaga*, encima del lugar llamado *Borreaga*. Por el oeste limitaba con la bajada a *Galindo* y por el este con el paraje denominado *La Sierra*.

El topónimo vasco *Urtubeko* está compuesto de dos elementos: uno es el nombre *urtu*, alteración del normativo *ortu* y que quiere decir ‘huerto’ (como en *Ortusaustegi* / *Urtusaustegi* o *Ortu-ondoa* > *Urtundua*)²⁷⁵, y el otro el adjetivo *-beko*, variante del estándar *-beheko* ‘la parte baja’. Por lo tanto el significado del topónimo *Urtubeko* es ‘la parte baja del huerto’.

Dokumentazioa / Documentación

URTUBECO (1642) (AHPB.PN.Esp.Gregorio de Aranguren.P-s.7077/4D)
“*dos heredades en do llaman Urtubeco que alindan con la heredad de Martin de Riva, y la otra se ba hacia Baracaldo*”.

Izenaren aldaerak / Variantes del nombre

ORTEBUCO (1794) (AHPB.PN.Esp.Clemente de Urioste.Sign: 2281)
“*hipotecar todos los frutos de maiz que estan pendientes en las heredades tituladas el Longar, el Balladar y las dos de la Pedriza. Y otras dos en Ortebuco*”.

URTEBEURCO (1809) (AHPB.PN.Esp.Clemente de Urioste.Sign: 2293)
“*Una heredad en el sitio de Urtebeurco, parte arriba del camino de la piedra panadera*”.

ORTUBEICO (1828) (BFA, sign: ESTADÍSTICAS TERRITORIALES. Err. Zk.4.P-s. 2) “*Divisiones del territorio del pueblo (Sestao) llamadas Secciones:...Oquillu, Ortubeico, Bega de Uhagon, Harbinaga...*”.

²⁷⁴ Mitxelena, 2001: 503, 143 or.

²⁷⁵ Mitxelena, 2001: 503, p. 143.

Valladar, (el)

Antzinako lekua / Antiguo lugar

Herriko beste hainbeste leku bezala, mahasgintzan aritutako gunea izan zen hau. *Okillo* izeneko laborantzako beheko aldean egon zen, gutxi gorabehera *Venta del Gallo* eta *Labariega* lekuen artean, alegia, gaurko Bilbo-Santurtzi errepidearen inguruan. Iparraldetik Ibaizabalen ertzeraino iristen zen.

Valladar gaztelerazko hitza *valla* substantibotik eratorria da, eta *vallum* hitza du sorburu, ‘zuresia edo muraila’ esan nahi duena. Leku-izen honek ‘hesitutako lur-eremua’ esan nahi du euskaraz.

Como tantos otros del pueblo, fue este un lugar dedicado al cultivo de viñedos, situado en la parte baja de la mies de *Okillo*, seguramente entre los lugares de *La Venta del Gallo* y *Labariega*, cerca de la actual carretera Bilbao-Santurtzi. Por el norte confinaba con el Ibaizabal.

La palabra castellana *Valladar* es derivada del sustantivo *valla* y tiene como origen el vocablo latino *vallum*. Su significado es ‘lugar vallado’.

Dokumentazioa / Documentación

EL VALLADAR (1632) (BFA, sign: JCR 1202/16) “*en las viñas y heredades del Valladar*”; (1809) (AHPB.PN. Esp. Clemente de Urioste. Sign: 2293) “*Otra heredad en donde llaman el Valladar*”; (1872) (RPB.T.2.FINKA Zk.131) “*Una huerta sita en Sestao (...) confina al norte con camino llamado del Valladar*”; (1902) (RPB.T.12. FINKA Zk.605) “*Finca rústica. Terreno muerto en el punto conocido por el Valladar, término de Sestao*”; (1931) (AMS.LAS 28) “*Reconocidas las casas de nueva planta (...) en terrenos del Valladar*”.

BALLADAR (1632) (BFA, sign: JCR 1202/16) “*y dos viñas blancas do dicen Balladar*”; (1714) (AHPB.PN.Esp. Pedro de Oyanzas. Sign.7073 /9-B) “*Una viña y heredad en el puesto de Balladar*”; (1872) (RPB.T.2.FINKA Zk.140) “*Una heredad llamada Balladar, sita en Sestao (...)*”; (1889) (RPB.T.6.FINKA Zk.292) “*Finca urbana sita en el término de Balladar*”.

EL BALLADAR (1645) (AHMP.At.F.K.30, zk.3) “*Memoria de bienes de Pedro de Alaxo y Marisantos de Bartolome, su mujer del Conzejo de Santa Maria de Sestao (...)* otra bina do dizen el Balladar”; (1728) (AHMP.At.E.K.11, zk.54) “*inventario y tasación de los bienes de Antonio de Larrazabal y María de la Hera, vecinos del Conzejo de Sestao: (...) La bina del Balladar*”; (1806) (AHPB.PN.Esp. Clemente de Urioste. Sign.2291) “*Otra heredad en el sitio del Balladar*”.

VALLADAR (1633) (BFA, sign: JCR 1202/16) “*con las viñas de Valladar de las Returas y la Presa de Albiz*”; (1886) (RPB.T.5.FINKA Zk.313) “*Una casa sencilla donde dicen Oquillo y Valladar*”; (1922) (BFA, sign: AHO 7/1) “*Valladar: Heredades*”; (1939) (RPB.T.29. FINKA Zk.397) “*casa sita en el punto de Valladar*”.

Vega nueva, la

Antzinako nekazaritza-gunea / Antigua zona agrícola

Kontzejuko hegoaldean kokaturik zegoen nekazaritza-gune garrantzitsu hau. Iparraldetik *Rebonza* aldea zuen mugakide, hegoaldeetik Barakaldetik bereizten zuen *Galindo* ibaia, mendebaldetik *Vega Vieja* / *Ibarzaharra* eta ekialdetik *Simondrogas* auzoa.

XVIII. mendean zehar, Bilbo hiriko eta Ibaizabal inguruko merkataritzaren garapenari esker, biztanleriaren hazkunde handia izan omen zen Bizkaian, eta ondorioz nekazaritzarako lurren kopurua handiagotu behar izan zen. Izan ere, gertaera sozioekonomiko honekin lotuta, mendearen erdialdean kontzejua *Vega Nueva* (1744) izeneko lurra lanberritu eta laborantzarako egokitu zituen: «Es ahora cuando aparecen los arrendamientos de las tierras de la denominada Vega Nueva, para diferenciarla de la Vega Vieja»²⁷⁶.

Nekazaritza lekua izan arren, bere aldiria biztanlez betetzen hasi zen industrializazioak eragindako gainpopulazioaren ondorioz. Honela, 1892. urtean bazegoen *Calle Vega Nueva* deitzen zen kale bat eta 1899an *Barrio de la Vega Nueva* izendapena dokumentatzen da.

Halaber, izan zen *La Escarbilla* (1907) deitutako etxola gune paduratsu bat, *Galindo* eta *Ballonti* ibaien artean, «Autorización que pretende para construir una caseta en el punto de la Escarbilla en la Vega Nueva» (1907). Txabola hauek lantegi moduan, «una caseta (...) en La Escarbilla, (para) trabajar la carpintería» (1922), zein animalientzako korta bezala erabiltzen ziren, «permiso para construir una pocilga en la marisma de la escarbilla, en el Galindo» (1921). *Eskarbilla* izena, eta *eskarabilla* aldakia, mendebaldeko euskaraz erabilitako berba da eta duen esanahia 'errautsa, hautsa' edo 'sarra' da.

Ibarberria laborantza alderdi honetan, orobat, *Los Chopos* (1899) deitzen zuten lekua eta baserria izan ziren, baita *La Casa de Juan Antón* (1909), *La Casa de Urioste* (1909) eta *La Casa de Casado* (1924) deitutako etxeak ere.

Gaztelerazko *Vega* izena **vaica* 'ureztalur' latinaurreko hitzetik eratorria omen da eta bere sorburu **vai* forma izango litzateke, euskarazko *ibai* hitzarekin erlazionaturik egon litekeena²⁷⁷. Gaur egun industria-gunea den leku hau *Vega Nueva* / *Ibarberria* izendatzen da ofizialki.

Esta importante zona agrícola estaba situada al sur del concejo. Por el norte limitaba con el lugar de *Rebonza*, por el sur con el río *Galindo*, que la separaba de Barakaldo, por el oeste con la *Vega Vieja* y por el este con el barrio de *Simondrogas*.

²⁷⁶ Arroyo, 1987: 35 or.


²⁷⁷ Corominas, 1998: 599 or.

Durante el siglo XVIII, gracias al desarrollo de la actividad comercial que se dió en Bilbao y en la cuenca del Ibaizabal, se produjo un aumento considerable de la población en Bizkaia y, en consecuencia, hubo de habilitarse una cantidad mayor de tierras para la agricultura. Así, relacionado con esta situación socio-económica, a mediados de este siglo se roturaron los terrenos de la llamada *Vega Nueva* (1744), «Es ahora cuando aparecen los arrendamientos de las tierras de la denominada Vega Nueva, para diferenciarla de la Vega Vieja»²⁷⁸.

A pesar de su carácter agrícola, las zonas aledañas a este lugar comenzaron a poblarse rápidamente como consecuencia de la superpoblación que acarreó la industrialización. Así, para el año 1892 aparece la titulada *Calle Vega Nueva* y en 1899 el lugar es citado ya como *Barrio de la Vega Nueva*.

Asimismo, existió en este lugar un núcleo de chabolas llamado *La Escarbilla* (1907), situado en una zona marismeña entre los ríos *Galindo* y *Ballonti* «Autorización que pretende para construir una caseta en el punto de la Escarbilla en la Vega Nueva» (1907). Estas casetas se utilizaban tanto como talleres, «una caseta (...) en La Escarbilla, (para) trabajar la carpintería» (1922), como cuadras para el ganado, «permiso para construir una pocilga en la marisma de la escarbilla, en el Galindo» (1921). El sustantivo *Eskarbilla* es una palabra del euskara occidental que en castellano significa ‘escoria’.

En esta parte del pueblo estuvo el lugar titulado *Los Chopos* (1899) y el caserío del mismo nombre, al menos hasta 1927 y, entre otras, las llamadas *Casa de Juan Antón* (1909), *Casa de Urioste* (1909) y *Casa de Casado* (1924).



Ibarberria / Vega Nueva fabrica de cemento

²⁷⁸ Arroyo, 1987: p. 35.

Al parecer la palabra castellana *Vega* deriva del nombre prelatino **vaica* 'tierra regable' y origen estaría en la forma **vai*, relacionada con el eusquérico *ibai* 'río'²⁷⁹. Actualmente es una zona industrial, cuya denominación oficial es *Vega Nueva* / *Ibarberria*.

Dokumentazioa / Documentación

LA VEGA NUEVA (1744) (AHMP.At.F.K.33, zk.10) “*En la Vega nueba de dicho Conzejo de Sestao*”; (1769) (AMS.LCCS) “*Sesenta y un reales que costo el plantio de tamarines y cerrar los Portillos de la Vega nueba*”; (1781) (AHMP. At. F.K.36, zk.36) “*En la Barrera de la bega nueva harrimada a la casa del barco de Beurco, jurisdizion de este Conzejo de Santa Maria de Sestao*”; (1814) (AMS.LCCS) “*medio dia me ocupe en cerrar los Juncalillos de la Vega nueva por la parte de afuera*”; (1839) (AMS.LAS 2) “*Ondexas de la Vega nueba*”; (1892) (BEHA.SEStAO.BATAIOAK. Sign: 3133/002/00) “*José es hijo legítimo. Nació en la Calle de la Vega nueva*”; (1899) (AMS.LAS 8) “*Barrio de la Vega Nueva*”; (1906) (BFA, sign: AQO 121/307) “*en la bascula que hay en los talleres de la Vega Nueva*”; (1923) (BFA, sign: SEStAO 219/8) “*proyecto de prolongación del túnel viejo que está construido sobre la calle de la Vega Nueva, en las proximidades de la casa de Simon Drogas*”; (1933) (AMS.LAS 29) “*chavola (...) en la marisma de la Vega Nueva*”; (1939) (AMS.LAS 33) “*saneamiento de un camino vecinal en la Vega Nueva*”.

²⁷⁹ Corominas, 1998: p. 599.

Vega vieja, la


Antzinako nekazaritza-gunea / Antigua zona agrícola

Herriaren hegoaldeko muturrean dago lugintzan erabilitako leku hau, *Galindo* aldean. Bere mugakideak dira, iparraldetik *Markonzaga* aldea, ekialdetik *Ibarberria* eta *Galindo* ibaia, mendebaldetik Trapagaran kontzejua eta hegoaldetik Barakaldo elizatea.

Garai batean kontzejuko nekazaritza-gune garrantzitsuenetarikoa izandako dermio honen lehenengo datu dokumentala 1636. urtekoa da. Besteak beste, bertan egon zen *Heredad La Presa* izeneko soroa: «Una heredad llamada la presa en la Vega vieja» (1830). Leku honetako laborantza jardunak XX. mendeko hogeiko hamarkadara arte jarraitu zuen, «Rústica, siete heredades radicantes en el Concejo de Sestao, en el sitio de la Vega Vieja confinan (...) por el norte a dicho camino carretil que atraviesa la vega» (1927).

Denbora hartan, industriagintza modernoa aurkintza honetaraino iritsi zen. Izan ere, *Babcock Wilcox* enpresaren tailerrak bertan jarri ziren eta alderdia antzinako izaera galtzen hasi zen, industria-gune bihurtzen hasita. Egun, aipatu instalazioak ez ezik merkataritza-gune handi bat dago eremu honetan.

Este paraje que estuvo dedicado a la agricultura, está situado en el extremo sur del concejo, en la zona de *Galindo*. Sus límites son por el norte el lugar de *Markonzaga*, por el este *La Vega Nueva* y el río *Galindo*, por el oeste el concejo de Trapagaran y por el sur la anteiglesia de Barakaldo.



Ibarzaharra / Vega Vieja

Los primeros datos documentales de este zona dedicada a la agricultura son del año 1636. Por ejemplo, en este lugar estuvo, entre otras muchas, la denominada *Heredad La Presa*: «Una heredad llamada la presa en la Vega vieja» (1830). La actividad agraria continuó en este lugar hasta los años 20 del pasado siglo, «Rústica, siete heredades radicantes en el Concejo de Sestao, en el sitio de la Vega Vieja confinan (...) por el norte a dicho camino carretil que atraviesa la vega».

En aquella época, la industria moderna también llegó hasta este sitio. Así, en este punto se instalaron los talleres de la fábrica *Babcock Wilcox* y el lugar comenzó a perder su antigua condición agrícola y a convertirse en una zona industrial. Actualmente, además de estas instalaciones, ocupa este puesto un gran espacio comercial.

Dokumentazioa / Documentación

LA VEGA VIEJA (1636) (BFA, sign: JCR 1202/16); (1772) (AMS.LCCS) “cincuenta reales en bino por los vecinos el día que compusieron el camino de junto a la Vega bieja”; (1865) (RPB.T.1.FINKA Zk. 77 eta 83) “Otra heredad de pan sembrar que radica en Sestao y punto denominado Vega Vieja de Marconzaga”; (1920) (RPB.T.18.FINKA Zk.732) “viñedo sito en la Vega Vieja jurisdicción de Sestao”; (1922) (RPB.T.19.FINKA Zk.544 eta 749) “Rústica, en los términos municipales de Sestao y San Salvador del Valle que se denomina Fábrica de la Sociedad Española de Construcciones Babcock Wilcox (...) en las Vegas de Marconzaga y del Juncal de Sestao”; (1927) (RPB.T.23.FINKA Zk.985) “Rústica, siete heredades radicantes en el Concejo de Sestao, en el sitio de la Vega Vieja (...) confinan (...) por el sur con la ría navegable de Galindo, por el norte a dicho camino carretil que atraviesa la vega”.

Venta del Gallo, la

Lekua / Lugar

Egia esanda, jasotako dokumentazioan leku hau *El Gallo* eta *La Venta del Gallo* izendapenez agertzen da. Seguruenik jatorrizko izena *El Gallo* da, hala ere toponimo hau, egun, guztiz ezezaguna gertatzen da herrian. Bere ondorengoa den *La Venta del Gallo* leku-izenak, berriz, bizirik dirau, gaur kontzejuko leku ezagunenetarikoa delarik. Iparraldean dago kokaturik aurkintza hau, herriaren beheko aldean, Bilbo-Santurtzi errepidearen ondo-ondoan eta Ibaizabal aldean dagoen *ACB* enpresaren aurrean. Izenak adierazten duen arren, ez dokumentazioan ezta herri memorian ere ez dago inolako *benta* edo ostaturen arrastorik.

Industriagintza hasi zenean, enpresa handi batzuek zonalde honetan kokatu zituzten beren tailerrak, Ibaizabal aldean: besteak beste, *La Vizcaya* (1882), *La Iberia* (1890) eta, geroago, *Altos Hornos de Vizcaya* (1902). Halaber, leku honetan egon zen *La Cantera de la Venta del Gallo* (1884) deitutako harrobia ere. Orobat *Buenavista* izeneko lekua «...punto de Buenavista, barriada de la Venta del Gallo» (1865), eta *Casa Marcelino* (1884) izeneko etxea ere bertan egon ziren.

Gazteleraizko leku-izen honen osagaiak latinetik datoz: *Venta* izena *vēndīta* aditz-partizipiotik eratorria da, euskaraz ‘benta’ edo ‘ostatua’ esan nahi duena, eta *Gallo gallus* ‘oilarra’ hitzetik datorrena.

En realidad este lugar aparece nombrado en la documentación como *El Gallo* (1884) y *La Venta del Gallo*. Seguramente el término original es *El Gallo*, nombre absolutamente desconocido actualmente. Sin embargo, su continuador, *La Venta del Gallo*, sigue vivo y es uno de los sitios más populares del concejo, situado al norte del mismo, en la parte baja, y enfrente de la empresa *ACB*, sita a la orilla del Ibaizabal. Sin embargo, a pesar del nombre del lugar, ni en la documentación se cita ni en la memoria popular hay recuerdo alguno de una *venta* en este sitio.

Con la industrialización se situaron junto a esta zona, a la vera del Ibaizabal, las fábricas de *La Vizcaya* (1882), *La Iberia* (1890) y, posteriormente, *Altos Hornos de Vizcaya* (1902). También se explotó en este sitio la titulada *Cantera de la Venta del Gallo* (1884).

También estuvieron localizados en esta zona el lugar llamado *Buenavista*: «...punto de Buenavista, barriada de la Venta del Gallo» (1865), y la nombrada *Casa Marcelino* (1884).

Los componentes de este topónimo castellano proceden del latín: *Venta* es derivado del participio verbal *vēndīta*, y *Gallo*, del sustantivo *gallus*.

Dokumentazioa / Documentación

LA VENTA DEL GALLO (1883) (BFA, sign: AHV 11/20) “*desde la bajada del Camino de la Venta del Gallo al muelle de la Benedicta*”; (1886) (RPB.T.5.FINKA Zk.310)

“Una heredad (...) sita en la Venta del Gallo (...) limita por el este con la tejera del Sr. Castaños”; (1935) (RPB.T.29.FINKA Zk.758) “en el sitio conocido por la Venta del Gallo, punto de la Fuente”.



Venta del Galloko Hiru Kontzejuen plaza / Plaza de los Tres Concejos, en la Venta del Gallo

Vista alegre

Antzinako auzoa eta gaurko lekua / Antiguo barrio y actual lugar

Industriagintzarekin batera sortutako etxe multzo hau herriko goiko aldean dago, *Begoñako Andra Maria* elizaren aurrean. Iparraldetik antzinako *Okillo* lekua du mugakide, hegoaldetik *San Pedro*, mendebaldetik *Kaskoa* eta ekialdetik *Cueto*.

Esana dugunez, industrializazioak eragindako gainpopulazioak langileentzako etxe-eskasia ere ekarri zuen eta problema honi aurre egiteko hainbat eta hainbat etxe eraiki ziren kontzejuan, esaterako, leku honetan. Izan ere, dermio honi buruzko lehenengo sarrera 1892. urtekoa da eta kale bezala dokumentatzen da. Halarik ere, handik urte batera soilik auzo bezala agertzen da aipatuta: «Manuel es hijo legítimo. Nació en el Barrio de Vista Alegre, número treinta y cuatro» (1893).

Hona hemen alderdi honetan egondako etxe batzuen izenak: *La Casa de La Galana* (1893) eta *La Casa Andén* (1908), oraindik ere zutik jarraitzen dutenak, *Casa Antolín* (1909), *Villa Engracia* (1923), *Villa María de los Ángeles* (1926), *Villa Amparo* (1927), *Casa Argüeso* (1928), baita gaur egun bertan segitzen duen *Casa del Escribano* (1927) etxebizitza eraikina ere. Halaber, 1920ko hamarkadan eraikitako langileentzako etxe-talde bat ere badago *La Unión* izendatua; biztanle gune honetako etxe baten fatxadan inskripzio bat dago, zera dioena: *Sociedad Cooperativa Obrera de Casas Baratas La Unión, año 1923-1925*.



Vista Alegre; La Galana etxea / Casa La galana

Vista Alegre esapidearen euskarazko ordaina *Bista Eder* edo *Ikuste Alai* izan liteke.

Este lugar surgido a una con el proceso industrial está situado en la parte alta del pueblo, enfrente de la *Iglesia de Nuestra Señora de Begoña*. Por el norte limita con la antigua mies de *Okillo*, por el sur con *San Pedro*, por el oeste con el *Kasko* y por el este con *Cuevo*.

Como hemos apuntado más de una vez, la industrialización provocó la superpoblación del pueblo y la consiguiente escasez de viviendas. Para hacer frente a este problema se edificaron cantidad de casas en el concejo, por ejemplo, en este sitio. Así pues, su primer registro es del año 1892, donde aparece citado como calle, sin embargo solo un año más tarde ya se documenta como barrio: «Manuel es hijo legítimo. Nació en el Barrio de Vista Alegre, número treinta y cuatro» (1893).

He aquí los nombres de unas cuantas casas sitas en esta; *La Casa de La Galana* (1893), *La Casa Andén* (1908), que todavía permanecen en pie, *Casa Antolín* (1909), *Villa Engracia* (1923), *Villa María de los Ángeles* (1926), *Villa Amparo* (1927), *Casa Argüeso* (1928) y el edificio de viviendas llamado *La Casa del Escribano* (1927), que también perdura. Y también el grupo de viviendas obreras *La Unión*, que en la fachada de una de sus casas tiene una inscripción que dice así: *Sociedad Cooperativa Obrera de Casas Baratas La Unión, año 1923-1925*.

El equivalente eusquérico de la locución *Vista Alegre* podrían ser *Bista Eder* o *Ikuste Alai*.

Dokumentazioa / Documentación

VISTA ALEGRE (1892) (BEHA.SEESTAO.HILDAKOAK.Sign: 3138/001/00) “*En el Concejo de Sestao (...) C. U. falleció en la calle Vista Alegre, numero treinta*”; **(1893)** (BEHA.SEESTAO.BATIOAK.Sign: 3134/001/00) “*Manuel es hijo legítimo. Nació en el Barrio de Vista Alegre, número treinta y cuatro*”; **(1919)** (AMS.LAS 22) “*autorización para construir dos cortijos con destino a la guarda de aves de corral, el primero en la Campa de San Pedro y el segundo en la casa grande de Vidosola en Vista Alegre*”; **(1927)** (BFA, sign: SEESTAO 210/66) “*El que suscribe, vecino de la calle de Vista Alegre, casa del escribano, expone:*”; **(1929)** (RPB.T.25.FINKA Zk.1049) “*Terreno sito en la mies de Oquillo que ahora llaman Vista Alegre, término del Concejo de Sestao*”; **(1939)** (AMS.LAS 34) “*alcantarillado del barrio de Vista Alegre*”.

Vizcaya, la

Antzinako auzoa eta gaurko kalea / Antiguo barrio y actual calle

Auzo honen sorrera industrializazioarekin estu-estu lotuta dago, izan ere, bere izena *Sociedad Anónima Metalúrgica y Construcciones Vizcaya* fabrikarenetik dator. Modu laburtuan *La Vizcaya* esaten zioten enpresa hau 1882an fundatu zuten, Víctor Chávarri negozio gizon eta politikaria haren sortzailetako bat izan zela, eta Ibaizabal ondoko paduretan kokatua egon zen.

Auzo izan baino lehen kalea izan zen *La Vizcaya* (1887) eta *Venta del Gallo* izeneko lekutik *Urbinağa* auzoraino zihoan²⁸⁰, Santurtzi-Bilbo errepidean zehar. Hala ere, 1893. urteko *Padrón de las finca urbanas* delakoan *La Vizcaya* auzo bezala agertzen da, bere barnean hartzen zituela *Venta del Gallo* eta *Okilo* lekuak eta *La Iberia* (beheko aldea), *Sol* eta *Karrantza* kaleak²⁸¹. Halaber, aurkintza honetan *Casa Quintanilla* eta *Casa La Provisora* (1897) deitutako etxeak egon ziren.

Vizcaya hitzaren arauzko forma *Bizkaia* da. Izen honek bi osagai ditu: bata, *Bizkai* hitza ‘gailur’, ‘tontor’ esan nahi duena, eta bestea *-a* artikulua.

El surgimiento de ese barrio está íntimamente ligado al proceso de industrialización, pues su propio nombre procede del de la empresa *Sociedad Anónima Metalúrgica y Construcciones Vizcaya*, más conocida como *La Vizcaya*. Se fundó en 1882, instalándose en la zona de las marismas del Ibaizabal. El hombre de negocios y político Víctor Chávarri fue uno de sus creadores.

Antes de aparecer como barrio, *La Vizcaya* (1887) fue una calle que iba desde el lugar llamado *La Venta del Gallo* hasta el barrio de *Urbinağa*²⁸², por la carretera Santurtzi-Bilbao. Sin embargo, unos pocos años más tarde, en el *Padrón de finca urbanas* de 1893, *La Vizcaya* aparece ya como barrio, que comprendía las zonas de *La Venta del Gallo* y *Okillo* y las calles de *La Iberia* (parte baja), *Sol* y *Karrantza*²⁸³. En esta zona se encontraban situadas las denominadas *Casa Quintanilla* y *Casa La Provisora* (1897).

La palabra *Vizcaya* es la forma castellana de la eusquérica *Bizkaia*, formada por el sustantivo *bizkai*, relacionado con *bizkar*, y que quiere decir ‘cima’, ‘cumbre’, y el artículo *-a*.

²⁸⁰ Gago, 1996: I, 209 eta II, 470 or.

²⁸¹ González Portillo, 2001: 97 or.

²⁸² Gago, 1996: I, pp. 209 y ss. y II, p. 470.

²⁸³ González Portilla, 2001: p. 97.

Dokumentazioa / Documentación

LA VIZCAYA (1887-1888) (RPB.T.5.FINKA Zk. 319) “*Una finca urbana, solar (...) situado en el pago llamado del Argomal, hoy calle de Vizcaya*”; **(1889)** (AMS.LAS 4) “*Barrio de la Vizcaya*”; “*Escuelas de la Vizcaya*”; “*El puente de la Vizcaya*”; **(1900)** (BEHA.SESTAO.BATAIOAK.Sign: 3136/002/00) “*Felix es hijo legitimo. Nació en la Casa Cooperativa de la Vizcaya*”; **(1902)** (BFA, sign: AGK-103.Karp.6) “*Los intercruces de Desierto-Urbinaga y Urbinaga-La Vizcaya*”.

Zendexas, las

Antzinako lekua / Antiguo lugar

Ander Ros idazleak dioenez, izen hau oso hedaturik dago Bilbotik itsasorainoko alderdian eta, izan ere, *Cendeja* dermioa honako lekuotan agertzen dela diosku: Bilboko *Uribarri* auzoan, *Deustuan*, Barakaldo elizatean bi daude eta beste bat Muskiz herrian. Sestaori dagokionez, aldiz, izen hau singularrean ez ezik, *La Cendeja del Campillo* (1785), *Galindo* aldean kokatua, pluralean eta forma handigarrian ere agertzen zaigu, *Las Zendejas / Las Zendexas* (1747), *Los Cendejones* (1668), *Los Cendejones de Galindo* (1841), *Los Cendejones de Ondejaga* (1824) eta *La Mies de los Cendejones* (1743), azken hau egileak ere aipatua.

Antza denez, *cendeja* hitza euskarazko *zingira* izenarekin erlazionaturik legoke eta biak latin arrunteko **caeniċa* batetik letozke. Egilearen arabera, *cendeja* hitzaren *-ja* silaba ugaritasuna adierazten duen *-tza* euskal atzizkiaren belarizaziotik letorke. Izan ere, dio, XIX. mendean Bilbon dokumentatzen den *Sendessa* leku-izenaren *-ss-* digrafoa euskal *-tz-*ren ordaina litzateke. Beraz, *cendeja* hitza *zendetza* euskal formatik sortuko zatekeen, honako bilakaera hau izan eta gero, *zendetza* > *sendessa* / *sendessa* > *cendeja* / *sendeja*. Esanahiari dagokionez, hitz honek adiera bat baino izan ditzake eta, besteak beste, ‘padura, leku hezea’ edo ‘kanala’ bezalako esangurak eduki litzake²⁸⁴.

Nombre muy extendido por la zona comprendida entre Bilbao y la desembocadura del Ibaizabal, según afirma el autor Ander Ros, que cita ejemplos de este topónimo como la llamada *Cendeja de Uribarri*, barrio de Bilbao, la de *Deusto*, otras dos en la anteiglesia de Barakaldo y otra en Muskiz. En la toponimia de Sestao también aparece este término, tanto en singular, *La Cendeja del Campillo* (1785), sita en el lugar de *Galindo*, como en plural *Las Zendejas / Las Zendexas* (1747), e incluso en forma aumentativa, *Los Cendejones* (1668), *Los Cendejones de Galindo* (1841), *Los Cendejones de Ondejaga* (1824) y *La Mies de los Cendejones* (1743), ejemplo este citado también por el autor.

